

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2021 -2022 Ikasturtea

Master Amaierako Lana

**Gorputz-irudi idealaren bizipenak eta
erresistentzia-praktikak emakume feministen artean**

Egilea:

Uxue Urzelai Dorronsoro

Tutorea:

Mari Luz Esteban Galarza

2022 ko Iraila

Eskerrak eman nahi dizkiet...

*Marta eta Mainerri, master hau egiteko nituen
zalantzak entzun eta aurrera egitera animatzeagatik.*

*Maialen, Haize, Irati, Markel eta Anderri,
ikasturte ero honetan helduleku ezin hobea izateagatik:
komunitatean sortzen diren zaintza sareetan sinestea egin duzue.*

*Yoana eta Ainhoari,
ahizpatasuna erreal dela ikusarazteagatik.*

*Guraso eta gainerako lagunei, nire ausentziak errespetatu
eta hala ere sostengu izaten jarraitzearen oparia eskaintzeagatik.*

*Milena eta Aneri, estropezuka gertatu den egunerokoa goxo-goxoa izatea
posible egin duzuelako eta bizitzaren zatitxo hau nirekin partekatzeagatik.*

*Aldekari, putzuetako irakurketa klubetan hizkuntza arazoekin emandako
laguntzagatik, lagun sasi-antropologoak izatearen beharra argi geratu da.*

*Irati, Lorea, Ane eta Maialeni, bihotza parez pare ireki
eta zuen bizitza nirekin partekatzeagatik.*

*Mari Luzi, zurrunbiloaren erdian eskainitako pazientzia eta goxotasunagatik,
eta bide hau zurekin egitearen plazera posible egiteagatik.*

*Neure buruari, bizipen hau errealitate izatea baimentzeagatik
eta gogortasunaren erdian argia ikusten jarraitzeko gaitasuna izateagatik.*

*Volver a empezar de nuevo
aunque el viento sople de cara
si hay tempestad, habrá calma
volver a sentir el fuego
vivir como si fuera juego
con ese entusiasmo canalla
veremos entonces si calla
como animal compungido
entre cerros perdidos
¡el miedo que todo lo halla!*

*De todos los calabozos
de los que me he visto presa
ninguno no viste reja
sinuosos los antojos
van moldeando mis gozos
como barro fresco y frágil
como en un estado febril
ando medio hipnotizada
por el brillo, anonadada
¿por qué caer es tan fácil?*

*Volver a empezar de nuevo
reanimar los jardines
sentir en los pies los bailes
recoger fracasos al vuelo
luchar otra vez por el juego
que todo lo vuelve posible*

*jugoso, mutable, sensible
así lo quiero para mí
profundo y ligero, así
en este mundo tangible*

*Que la vulnerabilidad
me haga más libre y más justa
que se abra como una pausa
volver a aprender a escuchar
que mi voz vuelva a mutar
después de tanta cosecha
y convertida en veloz flecha
atraviere esta pared
y vuelvo a mirar con sed
qué principio abrió esta brecha*

*De las amarguras de la miel
las heridas en la piel
se curan*

*Volver a empezar de nuevo
aunque el viento sople de cara
si hay tempestad, habrá calma
volver a sentir el mmmm...*

(Maria Arnal eta Marcel Bagés
"Milagro")

AURKIBIDEA

1.- NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO	1
2.- HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	5
2.1.- Helburuak	5
2.2.- Hipotesiak	5
3.- HELDULEKUAK: MARKO TEORIKOA	7
3.1.- Gorputza, munduan <i>izateko</i> modu bezala	7
3.2.- Generoa, ekinaren ekinez identitate bilakatua	14
3.3.- Feminismoa eta lodi-aktibismoa, azaletik azalera doan mugimendua.....	21
4.- NONDIK BEGIRATU? Analisirako erabilitako kontzeptu nagusien argipena	28
5.- IBILBIDEA: METODOLOGIA	34
5.1.- Elkarrizketak eta elkarrizketatuak.....	37
6.- BAHETZEA: ANALISIA.....	43
6.1.- Ondoez iraunkorra eta desiraren gurpiletik kanporaketa	44
6.2.- Desplazamenduak gako bezala.....	55
6.3.- Feminismoa erresistentzia modura	66
6.4.- Plazera ez da bakarrik sexualitatea	77
7.- EHUNDUZ: ONDORIOAK.....	88
8.- BIBLIOGRAFIA.....	92
9.- ERANSKINAK: ELKARRIZKETETARAKO GIDOIA	97

1.- NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO

2019. urtean, “kasualitate” bat zela medio, Bilboko Centro Maya¹-n doula² gisa formatzen hasi nintzen. Bertan murgildu nintzenean une horretan egon nahi nuen tokia zela sentitu nuen, besteak beste, amatasunaren inguruko hausnarketa berriak eskaini zizkidalako. Formazio horren bidez emakumeok gure gorputzaren gainean jasaten dugun beste biolentzia baten berri izan nuen: biolentzia obstetrikoa.

Formakuntza amaitu ostean, haurdunaldiko eta erditu osteko yoga saioak ematen hasi nintzen zentro horretan bertan. Aldi berean, doula gisa lan egiteko nire praktikaldiak estreinatu nituen eta urtebetean 6 emakumeren

¹ Centro Maya nagusiki amatasunean, dolu perinatalean, haur txikien hezkuntzan eta hauekin guztiekin zerikusia duen formakuntza ezberdinetan espezializatua dagoen zentroa da. Bertan profesional ezberdinek egiten dute lan: haurdunaldiko eta erditu osteko yoga irakasleak, psikologo perinatalak, zoru pelbikoan zentratzen den fisioterapeuta, haurrak soinean eramateko teknika ezberdinen inguruko espezialista zein pedagogia ezberdinetan adituak. Bestalde, doula eta yoga perinataleko formakuntzak eskaintzen dira urtero. Azkenik, gai ezberdinen inguruko doako saioak antolatzen dira: edoskitzea, dolua, mugimendu askea, haurren loa... Gehiago jakiteko ikus: <http://centromayabilbao.com/>

² Doulak haurdunaldiko bidelaguntza eskaintzen du, normalean etapa ezberdinetan eta kasu gehienetan emakumeei. Doula lana egiteko modu ezberdinak duden arren, honela laburtu daiteke bere lana: haurdunaldian zehar doulak, haurdun dagoen emakumeak eta honen erreferentziazko pertsonak, baldin badago, topaketa ezberdinak egiten dituzte. Topaketa hauetan, momentu bital honetan izan ditzaketen beldur eta emozioen inguruko lanketak egiteaz gain, ebidentzia zientifikoan oinarritutako informazioa ere eskaini ohi da eta askotan erditze planak egiten ere laguntza eskaintzen da. Haurdunaldiko 40.aste inguruan doula 24 orduz guardian egoten da eta ospitale zein etxeetako erditze eta dilatazioan presente egon ohi da, sostengu emozionala eskainiz erditzen duenari eta bere erreferentziazko pertsonari. Erditu ostean ere topaketaren bat egiten da edoskitzearekin izan ditzaketen kontuetan laguntza eskaintzeko. Doula ez da osasun langilea eta erditzean beti egoten da emagina.

haurdunaldi, erditzen eta erditze osteetan bidelagun izateko oparia jaso nuen. Lehenengo bidelaguntza, emakume arrazializatu eta prekarizatu³ batena izan zen. Orduan bizi nintzen herriko emakume etorkinen taldetik jarri ziren nirekin harremanetan, egoeraren berri eman zidaten eta horrela iritsi nintzen doula gisa estreinatzerara, Naimaren eskutik. Biolentzia obstetrikoa bizi garen genero-sistema desberdindu eta botere-harremanez betetakoaren beste adar bat da, osasun-sisteman modu ankerrean ematen dena. Naimaren erditzean argi geratu zitzaidan.

Testuinguru honetan hasi nuen Masterra, ustez argi nuen amatasuna eta biolentzia obstetrikoren inguruan begirada feminista sendoago bat izateko helburu irmoa nuela. Galdera asko nituen nire buruan entzuten nituen bizipenen haritik: atxikimenduzko hezkuntza eta edoskitze jarraituaren praktikan egon zitekeen esentzialismoa, amatasunaren aurkako perspektibak, osasun arloan eta bereziki obstetrizian ematen diren biolentziak... Geratu, eseri eta gauzak ordenatzeko beharra nuen, begirada feminista behar nuen. Buruan zurrumbilo izugarria nuen, baina masterreko ikasketa hauek, zurrumbilora ordenatu baino, areagotu egin dutela sentitzen dut maiz, zorionez.

Eta zurrumbilo honen erdian, jada biolentzia obstetrikoren gaia aukeratuta nuen garaian, doktore-tesiak eta artikuluak irakurtzen hasi nintzen. Bat-batean konturatu nintzen, hori dena irakurritako testuetan idatzita bazegoen, hain txukun, koherente eta garbi, nik ez nuela ezer berririk gaineratuko eta ez niola zentzurik ikusten gaia aztertzeari. Beraz, metodologiari dagokion atalean aipatuko dudan bidean barna, esku artean duzun honetara iritsi nintzen, barne arrak mugituta.

³ Lan honetan zehar “prekarizatu” hitza erabiliko da “prekario” beharrean, aukeratutako egoera bat izatea baino gehiago, sistema kapitalista heteropatriarkalean bizitzearen ondorio dela zehaztu ahal izateko. Arrazoi berdinegatik egingo da “zaurgarritu” eta “zaurgarri” arteko bereizketa.

Gorputz-irudiaren auzia, jakina den bezala, emakumeoi (bereziki, baina ez bakarrik) bizitza ezker-eskuin eta goitik-behera zeharkatzen digun auzia da. Emakumeei inposatzen zaizkien hipersexualizazioa, gorputz-irudi hegemonikoa, argaltasun eta edertasunaren arteko ekuazio zurruna, edertasun eta arrakastaren arteko harreman ustez banaezina, normatibitatearen zama, gazte-argal-zuri izan behar izatearen harria... hauek guztiek gure mundu ikuskeran eta harremanak eraikitzeko unean dituen eragin negargarrien inguruan ere asko hitz egin, idatzi eta teorizatu izan da.

Baina niri bat-batean ondo formulatu gabeko galdera bat hasi zitzaidan burmuinean hegan, udako eulien antzera. Neure burua eta beste hainbat emakumerena, egoera honen guztiaren biktima gisa ikusteaz haratago, bizipen deseroso hauei erresistitzeko gai garen subjektu bezala ikusten hasi nintzen. Hau guztia jakinda, pairatuta eta gorpuztuta izanda, emakumeok, egunerokoan gorputz-irudi ideala kuestionatzeko eta gure barrenean erosoago sentitzeko zein ekintza egiten ditugun ikusteko beharra nuen, zein euskarri ditugun eta korapiloak nola askatzen ditugun. Nire buruari galdetzen nion: biktimizazio eta teorizaziotik haratago, zeintzuk dira pausuak, estropezuak, tentsioak eta kontraesanak? Norabidea argi izanda, zeintzuk dira egunerokoan martxan jartzen ditugun jarduerak? Nola eramaten dugu praktikara gure agentzia? Funtsean, biktimizazioa alde batera utzi eta agentzia behatu nahi nuen.

Honela bada, esku artean duzun lan hau, orokorrean azalduta, emakumeok gorputz-irudi hegemonikoaren presioari aurre egiteko eta bizitza bizigarriago bat izateko egin ditugun ibilbideetako batzuk dira. Praktika txikien garrantziaren eta norbanako zein talde-ekintzak martxan jartzen ditugunaren erakustaldi bat, nolabait esateko, aldaketa eta mugimenduetan zentratutako ikerketa bat.

Zehazki, bost emakume dira lanaren protagonistak, Euskal Herritarrak, 25 eta 35 urte artekoak eta feminismoarekiko atxikimendua dutenak. Horrez gain, beraien aburuz, gorputz-irudi eta esperientziari dagokionez, ondoez esanguratsua jasan duten emakumeak dira.

Metodologia atalean sakonago azalduko dudan bezala, ikerketa-gaia identifikatu eta helburuak definitzeko, nire bizi prozesua idazten hasi nintzen. Tutorearen laguntzaz, autoetnografia egiteko ariketari ekin nion eta horixe izan zen abiapuntua eta oinarriak finkatzeko beharrezko pausoa.

Testu honetako edukiak hainbat ataletan multzokatu ditut. Hasteko, ikerketari hasiera eman dioten galderez gain, helburuak eta hipotesiak zeintzuk diren argituta daude. Ondoren, formulatu ditudan galderei erantzun ahal izateko eta jaso ditudan testigantzak aztertzeko beharrezko heldulekua, hau da, lanaren oinarri teorikoa eta begiradaren euskarria. Horrekin batera, analisirako erabili ditudan kontzeptu nagusiak zehazten dira eta baita, ikerketaren bidaide izango diren emakumeen ibilbideak jasotzeko erabili dudan prozedura metodologikoa zein den ere. Jarraian, jaso ditudan bizipenen analisisa dator eta amaitzeko, hauetatik ateratako zenbait ondorio. Eranskinean, elkarrizketak egiteko erabili dudan gidoiaren berri emango dut.

2.- HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Lan hau bideratzeko baliagarriak izan diren helburuak eta hipotesiak hauexek dira:

2.1.- Helburuak

Orokorra: Gorputz-irudiarekiko ondoez esanguratsua izan duten eta hau eraldatzeko prozesua egin duten emakume feministen esperientzia aztertzea.

Espezifikoak:

- 1.- Generoarekin eta gorputz-irudiarekiko ondoezarekin zerikusia duten praktika korporaletan gertatu diren aldaketa esanguratsuak, hauen jatorri, nolakotasuna eta ondorioak ikustea.
- 2.- Aldaketa hauetan garrantzia berezia izan duten faktoreak aztertzea, hala nola (maitasun) harremanak edo emanda etorri zaizkien testuinguruekiko tokialdaketa sinboliko edo fisikoak.
- 3.- Prozesu horietan, feminismoarekin izandako harremanak edo honekiko atxikimenduak izan duen adierazgarritasuna behatzea.

2.2.- Hipotesiak

- 1.- Emanda etorri zaizkigun testuinguruetatik (familia, klase soziala, herria, eskola...) sinbolikoki edo fisikoki lekualdatzeak garrantzia du gorputzarekiko bizipena eta pertzepzioa aldatu ahal izateko.
- 2.- Maitasun-harremanek eta zehazkiago, bikote edo maitasun-harreman erromantikoek, ondoeza eraldatzeko bidean lagungarriak edo oztopagarriak dira, pertsonok besteak beste, harremanean gauden horien begiradaren baitan eraikitzen bait dugu gure irudia. Harremanak

lagungarriak izateko, inplikatuak duen pertsonen gorputz-irudi eta genero-irudikapen hegemonikoekiko kritikoak izan behar dira edo behintzat zalantzan jarri.

3.- Gorputz-irudiarekin zerikusia duen ondoezari aurre egin ahal izateko, hain justu, gorputz-agentzia bat abiarazten dute hainbat feministak, zeinak gorputz-irudi ideal horren kritika eta eraldaketa suposatzen duen, hala nola: bizipenen irakurketa kolektiboa eta ez indibiduala edota edertasunaren ordezkoko balorazioa eta praktika.

4.- Feminismoaren ideologia, teoria, militantzia-esparru edo praktikekin bat egiteak edo hauekiko atxikimendua izateak babes eta bultzada garrantzitsua eman ohi diote gorputz eraldaketa horri, nahiz eta kontraesanak agertu.

3.- HELDULEKUAK: MARKO TEORIKOA

Ikerketa honen oinarri teorikoak zeintzuk diren eta ildo gisa hartu ditudan heldulekuen berri ematea berebizikoa da. Tiraka hasiko naizen esparruak hiru dira nagusiki: lehenengo gorputz-irudia, bigarrenik genero-identitatea eta hirugarrenik, feminismoa eta lodi-aktibismoa. Kategoriatu hauek euren artean batuta daude eta banatzea zaila da, izan ere, feminismoen baitako irakurketan denak uztartzen bait dira. Beraz, batetik bestera salto egingo dut etengabeko hartu emana islatu nahian eta loturak begiztatu ahal izateko. Hala ere, hiru kategoriatu hauek bereiztuko ditut testuari zentzu bat emateko asmoz.

3.1.- Gorputza, munduan *izateko* modu bezala

Helburu nagusia emakumeek gorputz-irudi hegemonikoaren auzia euren azaletan bizitzeko moduak nola aldatu diren/dituzten jasotzea denez, marko teoriko honen lehenengo heldulekuak gorputzaren eta batez ere, gorputz-irudiaren ingurukoak izan behar dute. Bi kategoriatu hauek nola irakurtzen ditudan, emakumeengan gizarte garaikidean zer suposatzen duten eta zeintzuk ondorio izan ahal dituzten aurkeztu nahiko nuke atal honetan.

Gorputza eta beraren irudia, garena “jasotzen” duen zerbait baino, “erakusten” dena baino edo “dugun” zerbait baino askoz ere gehiago da; pertsonok subjektu bezala eraiki ahal izateko beharrezko baliabidea dugu. Beraz, munduan egoteko modu bat bezala ikustea interesgarria da edo, Thomas Csordasen hitzetan oinarrituz, “una manera de ser-en-el-mundo” (2010: 85). Gorputzik gabe ezingo genuke mundu honetan bizi eta egiten dugun ekintza orotan dago; honela, edozein dela kultura ere, gorputza gizarteari lotuta dago eta ondorioz, praktika sozial oro gorputza bizitzeko eta eszenaratzeko bide bat da (Esteban, 1997).

Gorputz-irudia ere eraikuntza sozial bat da. Mari Luz Estebanek (1997: 28) David Le Bretoni (1990) erreferentzia eginez, gorputz-irudia subjektuek

testuinguru sozial eta kultural zehatz batean eta nolabait bizitza historia partikular baten arabera, gure gorputzaz egiten dugun irudikapena dela diosku. Irudikapen hau kontestu espezifiko baten parametroek eraikitzen dute, hau da, toki eta garaiaren arabera aldakorra da. Gizarteak norbanakoak irudi konkretu baten baitan eraikitzen bultzatzen gaitu (Muñiz, 2014) eta horren baitan sortzen dira gorputz-irudi hegemonikoak, botere-sektoreen sinesmen eta balioek konfiguratzeko dutena.

Ikerketa hau XXI. mendean eta Mendebaldeko gizartearen parametroek ezaugarritutako testuinguruan kokatzen da eta emakumeen gorputza du erdigune. Susan Bordok dioskun moduan, gorputz-irudia historikoki aldakorra izan denez (2001: 12) eta analisi kokatu bat egiteko asmoz, hemen eta orain emakumeen gorputz-irudiari ematen zaion zentzua, nolakotasuna eta ondorioak zeintzuk diren aztertzea derrigorrezkoa da. XIX. mendean Mendebaldeko gizarteek, desberdintasunak desberdintasun, emakumeei edertasun eredu zehatz bat ezarri zieten, non feminitatearen ideia gorputzen hauskortasun eta sentiberatasunaren baitan finkatu zen (Muñiz, 2014). Oinarri honetatik abiatuta irudi, mugimendu, praktika eta sentimendu konkretu batzuk atxikitu zitzaizkien emakumeei. Naomi Wolfen aburuz, Iraultza Industrialaren altzoan “edertasunaren mitoa” jaio zen (2002: 36) eta horrek, gorputz itxura bat baino gehiago, portaera zehatz bat agintzen du. Zehazkiago, edertasunaren mandatuak emakume batek bere gorputzari eman diezaioken erabilera, askatasun fisikoaren mugak eta garapen psikologiko zein intelektuala definitzen ditu (Bordo, 2001).

Edertasuna, beraz, gaitasun fisiko bat izatek haratago irizpide kultural bat da eta gizarte garaikideetan, Mendebaldeko ideal estetikoek gidatzen dute iruditegi hau (Yehya, 2010). Gaur egun, dena den, aginduzko edertasun hegemonikoa, feminitatearen nozioari nahitaez lotua dagoena, munduaren alde askotara zabalduta dago mass medien bidez; iruditegi honen arabera, gaztetasuna, argaltasuna eta sentsualitatea dira emakumeek izan behar dituzten ezaugarriak (Muñiz, 2014). Emakume gisa ulertuak izateko beharrezko bereizgarriak dira aurrekoak eta horrela finkatu ahal izateko, mandatu horiek

betetzeaz gain, gorputz zehatz batzuk baztertu behar dira, hala nola, gorputz zaharrak, dekadenteak eta desgaituak (*Ibidem*). Horretarako, gure kulturaren, emakumeen gorputzak xehetasun handiz neurtzen dira eta etengabe gorputzeko atal oro da moldatua eta aldatua (Bordo, 2001: 43).

Errepresentazio eta idealak gizarte kontrolerako mekanismoak dira, norbanakoak diziplinamenduaren bitartez sailkatu eta botere-sektoreen interesen arabera moldatu ahal izateko. Gorputza erabiltzeko modu eta gorputz-irudi zehatz bat, erregulazio sozialerako hainbat instituzioren bitartez inposatzen zaigu, hala nola, zuzenbidea, erlijioa, ekonomia... (Esteban, 1997). Instituzio hauek eraikuntza horiek sortu, erreproduzitu eta iraunarazten dituzten bezala, testuinguru historiko eta kulturalaren arabera aldakorrak izango dira, baina kasu guztietan, izaki soziala eraikitzeko bideak (*Ibidem*). Bestalde, edertasuna eta honen praktika mendekotasun eta botere-harremanak erreproduzitzeko eta horiek iraunarazteko bidea ere bada (Muñiz, 2014), gizon zuriaren supremazia mantendu eta gainerakoak dependentzia egoeran mantentzeko. Testuinguru horretan, eta Wolfen (2002) ideiak gidari, edertasuna emakumeen identitatearen zutabe nagusienetarikoa bat bilakatu da eta norbera ez den besteen onspena beharrezkoa denez, gizon zuriena, alegia, egoera zaurgarri batean kokatuak daude. Edertasuna, kulturalki inposatutako patroi fisiko bat den heinean, politikoki determinatua dago eta gaur egungo Mendebaldeko gizarteetan, gizonen nagusitasun egoera mantentzeko sistema eraginkorrenetarikoa da (*Ibidem*: 39-40).

Honaino nola heldu garen jakiteko, Elsa Muñizek (2014) aipatutako sentsualitatearen haritik tiraka hastea interesgarria iruditzen zait. Aurreko mendetik hona emakumeon gorputz-irudia hipersexualizatzeraz nola iritsi den aipatzea, gizartearen kontrolerako eta ordenarako beste mekanismo bat den heinean. Izan ere, sexualitatearen bitartez, plazeretik eta harreman sexualen auzitik haratago, politika, boterea edota gizatalde ezberdinen arteko harremanak kudeatzen dira (Esteban, 1997). Azken mendean gorputzarekiko jarreraren aldaketa erradikalak gertatu dira; lehen bekatuari lotua zegoena, orain, publikoa eta kontsumitzen den zerbait gehiago izatera pasa da (Flores, 2010).

Erljioa, legea eta ekonomia ziren emakumea eta gizona hierarkia baten baitan banatuta mantentzen zituztenak, baina horien indarra galtzen joan den heinean, emakumeen gorputz hipersexualizatu eta objektu bilakatu dira funtzio hori betetzen dutenak (Wolf, 2002: 229). Arrazoi horiek medio, erabat sexualizatutako gizarte batean bizitzera iritsi gara, non publizitatean, ikus entzunezkoetan eta sare sozialetan, nagusiki emakumeen gorputzak modu sexualizatuan aurkezten zaizkigun eta sexuaren erakustaldiak presentzia handia duen (Esteban, 1997). Irudi eta errepresentazio horiek, emakumeen sexualitate eta desio erreala agertu baino gehiago, gorputz femeninoaren bertsio ofizialak soilik erakusten dituzte beste batzuk zentsuratuz (Wolf, 2002: 220) eta bestalde, agenda sexual eta desiraren bertsio propio bat sortzea dute helburu (*Ibidem*: 229).

Espainiar estatuan, gertuago dagoen testuinguru batean kokatzeko, aurreko mendeko lehen laurdenean, eliza katoliko kristaua zen moralaren kustodia zuena eta instituzio horren balioen arabera, emakumeak garbia eta purua behar zuen izan. Helburu hau lortzea ezinezkoa zen, gainera, sexuaz plazerez gozaten bazuen eta honela, gizon-emakume arteko ezkontza gizartearen kontrolerako eta moralaren ordenarako mekanismo indartsuenetariko bat zen (Aresti, 2000)⁴. Erljio katolikoaren supremazia gutxitzen joan zen heinean, morala sortu eta erreproduzitzeko boterea zientzia medikoak eta kapitalismo neoliberalak ordezkatu zuten progresiboki. Zientzia biomedikoak legitimitatea irabazi zuenez, kastitateak jada ez zuen gizarte kontrolerako eraginkortasunik, besteak beste, abstinentzia sexualak instintua erreprimitzen zuenaren diskurtsoa zabaldu zuelako (*Ibidem*). Horrekin batera,

⁴ Gehiago jakiteko, ikus: Roca i Girona, Jordi (1997). *De la pureza a la maternidad: la construcción del género femenino en la postguerra española*. Madrid: Subdirección General de Museos Estatales.

Mendebaldean 60ko hamarkadako gizarte mugimenduen altzoan “iraultza sexuala” edo askatasun sexualaren ideia zabaltzen joan zen (Cobo, 2015) baina ez zien berdin eragin emakume eta gizonei. Emakumei arnagune bat eskaini baino gehiago, gizonezkoentzat eskuragarriago egoteko betebeharrak sortu zuen eta menpekotasuna mantentzeaz gain, aurretik zeuden botere-harremanak gogortzea ere ekarri zuen (*Ibidem*).

Sistema kapitalistak izaki sozial konkretu batzuk balio, sinesmen eta praktika zehatz batzuekin eraikitzen dihardu, “emakume = objektu sexual” irudia sortu eta finkatzen, besteak beste, gure gorputza merkantzia bilakatu eta hemendik etekin ekonomikoa ateraz (Cobo, 2015). Hau honela izanda, gaur egun, hipersexualizazioa neoliberalismoaren markoan ulertu behar dugu. Merkatu librearen ekonomian, edertasunaren eta perfekzioaren bilaketa obsesio bilakatzeak industria zinez arrakastatsua zabaltzen du: kosmetika, zirujia estetikoa, tratamendu klinikoak eta aurpegi zein gorputz-irudia moldatzeko espazio anitzak (Muñiz, 2014). Kontsumoaren kulturak objektuak desiratzen dituzten gizonak eta objektu izan nahi duten emakumeak sortu ditu, gainera, objektuen nolakotasuna beti da aldakorra, zaharkitzera kondenatua eta merkatuak inposatua (Wolf, 2002: 232).

Mugimendu feminista indarra hartzen joan zen neurrian, kapitalismo patriarkalaren lehen erreakzioa emakumeak etxeko lanetan zoriontsu zirela konbentzitzea izan zen. Aitzitik, herritarren eskakizunak askatasun gehiago irabaztearen bidean zeudenez, beste behin, kapitalismoak diskurtso hau bereganatu zuen aldarrikatzen zenaren aurkako efektua sortu eta gizarte kontrolarekin jarraitzeko. Honela, 80. hamarkadatik aurrera beste irudi bat eraiki zuen: etxekoandrea den eta gainera bere bikote gizonezkoarentzat sexualki erakargarria den emakumea (Cobo, 2015), betiere binomio sexual baten baitan eta amatasunaren derrigortasunaren altzoan. Gizabanakoen eta gure gorputzen gaineko kontrolaren gorakada ematen da sexualizazioaren bideetan eta helburu argia du: “La sexualización es un dispositivo que los sistemas de dominio aplican a los miembros de los colectivos oprimidos con el objetivo de apartarles del ámbito de la racionalidad y de la política” (*Ibidem*: 15). Hori dela

eta, esan genezake emakumeen gorputza hipersexualizatuz eta gorputz-irudiak horri erantzun behar dionaren lotura eginez, objektu eta merkantzia bilakatzeaz gain, emakumeak botere-guneetatik eta erabaki-esparruetatik aldentzeko asmo irmoa ere badela.

Hipersexualizazioa kontrolerako mekanismo bezala ulertuta, sexualitatea bera kontrolatzeko helburuaz gain, kontrol honi erantzuten dion eta emakume sexualki erakargarriari egokitzen zaion gorputz-irudi ideal sortu da. Arestian aipaturiko edertasun hegemoniko mendebaldarrak, gizonezko zurien begietan desiragarria den emakume gorputz eredu zurruna, zehaztasun maila handikoa eta errealtate gutxikoa sortu du. Jarraitu behar den edertasun eredu itxiak azal zuria du, ilehoria da, begi argiak ditu, garaiera zehatz batekoa da eta muturreko argaltasuna du (Muñiz, 2014; hooks, 2018). Gizarte garaikideetan gorputz perfektu, eder eta osasuntsuaren helmugara iristeko exijentzia geroz eta handiagoa lortzeko, aukeran eskaintzen diren ereduak oso mugatuak dira eta jada neurri jakin batzuk ere izan behar ditu (García, 2016: 14). Eredu hori betetzen ez duten gorputzak onargarria denetik kanpo geratzen dira, beraz, ezberdintasunen existentziaren inbisibilizazioa ikaragarria da (Muñiz, 2014).

Gizon eta emakumeei, gorputzak dieta eta ariketa fisikoaren bidez moldatu behar dituztela agindu zaie, hau da, modelo zehatz horretan sartzen ez dena zuzendu beharra dagoela sinetsarazi zaigu (Muñiz, 2014). Lortuko duten helburua ez da soilik edertasuna; etengabeko saiakeran tematzea, sozialki arrakasta, estatusa eta zoriontasuna lortzeko beharrezko baldintza gisa aurkezten dira (Esteban, 1997; Bordo, 2001; Muñiz, 2014). Honela, edertasuna bereizgarri fisiko bat baino zerbait handiagoa eta askoz ere haratago doan ideal bat bezala aurkeztuta, gorputz-irudi hegemonikora iristea obsesio nartzisista bilakatzea lortu da (Esteban, 1997). Emakumeek, gorputz-irudia parametro horien baitan eraiki behar izatea, edertasun ezaugarri zehatz hauek lortu behar izatea eta honenbestez, gorputzak “gorputz perfektu” bilakatzea, subjektuen existentziarako helburu nagusi bilakatu da (Bordo, 2001; Muñiz, 2014; Esteban, 2016a;). Bestalde, ideia horiek hartu duten indar kolosalagatik, emakumeak euren gorputza mespretxatzera ere iritsi dira (Bordo, 2001) eta obsesio fisikoak

sortu dira, hala nola, zahartzaroari beldurra eta kontrola galtzeari terrorea (Wolf, 2002: 36).

Gorputzarekiko trataera eta erregulazioan parte hartzen duen beste instituzioetako bat osasun sistema da (Esteban, 1997), erlijio kristauari moralitatearen eta “egia absolutuaren” lekukoa hartu diona. Sistema medikoan, argaltasuna osasunaren adierazle zuzen gisa irakurtzen da eta instituzio horrek sozialki irabazi duen zilegitasun neurrigabearen ondorioz, norbanakoak egia absolutu bezala ulertzea iritsi dira. Argaltasun idealaren gehiegizko zamagatik, sistematikoki dietak egitera bultzatzen gaituzte nahiz eta “gehiegizko pisurik” ez izan (Esteban, 2004; Piñeyro, 2019). Hori dela eta, sistema medikoko profesionalekin ditugun topaketetan ohikoa izaten da gure pisuaren inguruko komentarioak entzun eta osasun arazoak argudiatuta argaltzera bideratuak izatea. Aldi berean, dieten kulturak emakumeengan presentzia eta garrantzia handiagoa hartzen du, besteak beste, oso gaztetatik bultzatzen gaituztelako elikadura erregulatzera (Esteban, 1997, 2013; Piñeyro, 2019).

Horren zergatia, beste behin, diziplina eta auto erregulazioaren bidez kontrol sozial eta ideologikoa lortzeko modu eraginkorrak bilatzea da (Esteban, 2004), izan ere, “edertasunaren mitoak” funtsean zerikusi gutxi du dieta eta gorputz itxura berarekin (Wolf, 2002: 423). Gorputz-irudia eta pisua kontrolatu beharreko zerbait dira, bai gurea baita gure ingurukoenak ere, honela emakumeak dieten zein elikaduraren erregulazioaren esferan mugitzen dira, pisua irabazi eta galtzen dute etengabe eta argaltzeko modu ezberdinak probatzen dituzte bizitzan zehar (Esteban, 1997). Idealizatutako gorputz-irudi zurrunean ez sartzearen diskriminazioak elikadura nahasmenak dakartza maiz (Muñiz, 2010) eta zentzu honetan, gazte eta nerabeen artean generoari dagokion patologia nagusia anorexia eta bulimia izatea dira ondorio larriena (Esteban, 2013). Emakumeak, gorputz-irudi idealagatik pairatzen ditugun elikadura arazoaren jakitun izanda ere, askotan euren bizitza arriskuan jartzera iristen dira (hooks, 2018). Finean, erregulazio eta kontrol mekanismo den edertasun irudi hegemoniko horri segika jarri gaituzte modu obsesiboan eta iristea irrealia den

helmuga batera bidean, gure haragia manipulatzeko dugu etengabe (Yehya, 2017).

Besteak beste, kapitalismoak eta sistema medikoak gizartearen homogeneizazioa dute jomuga (Muñiz, 2010), gizarte heterogeneo bat kontrolatzea zailagoa delako eta orduan, botere-posizioak mantendu ahal izateko lehenengoa beharrezkoa delako. Beste helburu batzuk ere badaude: alde batetik, gizarte sektore espezifiko batzuen bazterketa kolektiboa sortzea, mendekotasun harremanak beharrezkoak dituztelako instituzio erregulatuak. Beste alde batetik, egokia denaren eta ez denaren banaketa ematea moral espezifiko bat sortzea eta azkenik erreferentzia zehatz batzuk gudan finkatzea, normatibitatearen onurak ordena lortzeko bidea direlako. Bazterketa beharrezkoa da araua sortzeko, hau da, gure identitatea konfiguratzeko, izan behar ez garen "beste" horren erreferentzia behar dugu, zeharkatu ezin ditugun mugak argi izan ditzagun. Edertasun modeloen inposaketak biolentzia sinboliko eta erreal ankerra sortzen duela ere esan genezake (*Ibidem*) eta ezaugarri horiek betetzen ez dituzten gorputz eta pertsonen diskriminazioa sustatzen du (Muñiz, 2014).

Testuinguru honetan, emakumeen gorputzarekiko biolentzia gertatzen da, feminitatea lortzeko geroz eta parametro sofistikuagoak inposatu eta mugak estutzen dizkiguten heinean (Muñiz, 2010, 2014). Eta biolentzia diot, beste aukerarik ez dugula sinetsarazten zaigulako, azken finean, arazoa ez bait da argaldu edo gizentzen dugun, informal edo elegante janzten garen edo makilajea erabiltzen dugun edo ez (Wolf, 2002: 424).

3.2.- Generoa, ekinaren ekinez identitate bilakatua

Pertsonoi, jaiotzen garen unean ditugun genitalen arabera sexu bat ezartzen zaigu eta, hortik abiatuta, gizarteak eta kulturak portaera, rol eta gaitasun zehatz batzuk ezartzen dizkigu: emakumeen sexuari genero femeninoa eta gizonezko sexuari genero maskulinoa (Burgos, 2005). Sexua eta

generoa kulturalki eraikiak direnez, norbait gizon edo emakume etiketatzea erabaki sozial bat da (Burgos, 2007), baita bakoitzaren jarrera egokiak zeintzuk diren determinatzea ere (Bullen eta Díez, 2016: 70). Testuinguruak aldakorrek direnez, berez, identitate horiek ez dira finko eta estatikoak (Esteban, 2009b). Honela, generoa sistema bezala ikusi behar dugu eta kontzeptu honetatik egin irakurketa (Bullen eta Díez, 2016).

Sexua naturala eta neutroa dela sinesten da eta ustezko naturaltasun horrengatik, bi sexu dira begiztatu ahal diren bakarrak: gizona eta emakumea, lehenengoa maskulinoa eta bigarrena femeninoa. Honela binarismo sexuala da patu bakarra (Ahmed, 2018) eta binarismoa normaltasunari lotua aurkezten da nahitaez (Burgos, 2007). Modu horretan, pertsonon arteko banaketa bi talde handi eta homogeneousotan banatu nahi da, aurrerago azalduko ditudan helburuak lortu ahal izateko. Autore batzuek, Judith Butler, Monique Wittig, Michel Foucault eta Donna Harawayk, besteak beste, sexuaren naturaltasuna zalantzan jartzen dute, kontzeptu hori eraikuntza kulturala eta fikzioa dela azpimarratuz (Burgos, 2005).

Jaiotzen garen unean emakume edo gizon garen erabakitzen duena sistema medikoa eta bertako profesionalak dira. Aurreko kapituluan aipatu bezala, instituzio horrek gizartearen homogeneousazioa eta diziplinamendua dituzte helburuetako batzuk. Elvira Burgosek (2007) azaltzen duen moduan, XX. mendeko aurrerapen medikoek egiazko sexua eta honenbestez sexu normala zein ziren definitu zuten. Sexu "naturala" definitzearen ideia onduz, gainerako gorputzak anormal edo naturaren alterazio bezala ikusiak dira, adibidez, sistematikoki manipulatuak diren gorputz intersexualak. Arrisku mediko erreal gutxi daude interbentzio horiek sostengatzeko, aitzitik, profesionalek, bizitza emozional eta sozial osasuntsu bat izan ahal izateko gorputz "normala" beharrezkoa dela argudiatuta praktikatzeko dituzte zirujia gehienak (*Ibidem*).

Medikuntzak, salbuespenak salbuespen, beste instituzio batzuen antzera, bi sexu eta bi genero bakarrik daudela onartzen du eta bizitza zoriontsu bat

nahi badugu, sexua generoarekin lotuta egon behar dela inposatzen digu. Gorputz “normalak” atxikitako generoari erantzun ahal izango dionaren premisan sostengatzen da eta honela, ordena eta gizarte kontrola mantendu ahal izango dira. Intersexualitateak sexu eta genero banandu eta finkoen iruditegi kulturala arriskuan jartzeko aukera zabaltzen du (Burgos, 2007) eta hau ekidin beharreko zerbait da.

Sexuaren ondotik nahitaez genero bat atxikitzea sekuentziazio moduko bat da, dagokigun generoa eztabaidaezina da eta “izango garena”, orain “garenari” lotuta dagoenaren ideia du oinarri, hau da, agindu bilakatzen den iragarpen baten forma hartzen du (Ahmed, 2018). “Dagokigun” genero-identitate bitarra sortzeko, mutur bakoitzari atxikitzen zaizkion ekintzak, pentsatzeko moduak, harreman, gustuak zein sentitzen ditugun emozioak zeintzuk diren ikasi egiten dira. Hori dela eta, sexuari egozten zaion generoa ez litzateke “izateko” modu bat izango, “egoteko” modu bat baizik eta ideia honek, bizipenak berezkoak ez direla ikusten laguntzen digu (Esteban, 2009b).

Bitartasunaren logikaren barruan, antolaketa soziala genero-rol banaketa zurrunaren arabera antolatzen da (Juliano, 1998). Ikusi bezala egituraketa hori ez da naturalki ematen, giza talde ezberdinduen parte izatera iristeko sozial, kultural eta linguistikoki moldatzen gaituzte (Burgos, 2005). Honela, pertsonak banatzeko modu posible guztien artean gure kulturen generoaren arabera banaketa egiten da, eguneroko ekintza txikienetara ere sartzen den sexu-mania baten moduan (Juliano, 1998: 91). Kulturen bitartez, generoak, ustez gure gureak, intimoak eta berezkoak ditugun portaerak, plazerak, praktika sexualak eta desioak ere moldatzen ditu (Burgos, 2005; Bullen eta Díez, 2016). Ezberdinak garelako uste dugu, ezberdin egiten gaituztelako.

Banaketa horrek botere-harremanak eta hierarkiak sortzen ditu, gizonak emakumeen gainetik daude eta hortik kanpora dauden identitateak deuseztatu egiten dira. Hegemonikoak ez diren azpikulturetako kideak eta baztertzen diren identitateak desordena kategoria hartzen dute (Juliano, 1998) eta mendekotasun egoera batean topatzen dira zuzenean, arestian aipaturiko

pertsona intersexualak adibidez. Genero-arauek espazio publikoan agertzeko modu egokia zein den definitzen dute, publikoa eta pribatuaren arteko mugak ezartzen dituzte eta bereizketa hori politika sexualen zerbitzura jartzen da (Butler, 2009). Ildo honetan, Butlerri jarraituz, espazio publikoan agertzen dugun itxura ez bada genero-arauei jarraitzen diena, kriminalizatuak izango gara eta ez gara babestuak izango jasango ditugun jazarpenen aurrean.

Emakumeen genero-identitatea definitzea eta Mendebaldeko gizarte garaikidean emakumeei atxikitzen zaien feminitatearen ideia zein den azaldu beharko genuke. Alde batetik, ikerketa honi dagokion testuingurua delako, baina baita jakina delako ere feminitate (eta maskulinitate) diskurtsoak zein praktikak Mendebaldeko gizarteetan eraikitzen direla (Bullen eta Díez, 2016: 71). Ez bitartasunaren ideiarekin bat natorrelako edo existitzen diren identitate anitzek zeresanik ez dutela uste dudalako, baizik eta ez delako xedea genero-identitate anitzen irakurketa bat egitea. Bai ordea, helburu eta hipotesiei erantzun nahian, emakumeei atxikitzen zaien feminitate ereduaren nolakotasuna eta horrek izan ditzakeen ondorioen berri jakitea.

Emakumeei, besteak beste, femeninoak, beraz, apalak, atseginak, goxoak, etxekoiak, amak, zaintzaileak, isilak, sentsualak eta pasiboak izan behar direla irakatsi zaie. Gizonezkoak beste muturrean daude eta bati baimentzen zaiona besteari ukatzen zaio. Bestalde, emakumeak femeninoa izateaz gain, praktika heterosexualak izan behar ditu eta kontrako sexua desiratu behar du (Burgos, 2005), hau da, gizonezkoen desiraren objektu izan behar du (Bullen eta Díez, 2016: 76). Hau guztia gutxi izango balitz, emakumeek edertasunaren atributua izatea ere funtsezkoa da eta gizonekin alderatuz, sexualitatearen eta desiraren trataera ezberdin bat ematen da (Esteban, 2013). Aurreko kapituluan azaldutako edertasun itxiaren ezaugarriak betetzen baditugu, emakumeak horrela ulertuak izango gara eta derrigortasun hori medio edertasuna emakumeontzat eskema erregulatzailerik bilakatzen da. Horrez gain, feminitatearen errepresentazioak sortu eta erreproduzitzeko gakoa da edertasuna, genero-bereizketak sortuz (Muñiz, 2014). Emakumeak gorputz-irudiari soilik murriztean, emakumeak objektu bilakatzeko joera gertatzen da

eta emakumeen gorputz-irudiaren kontrol horrek, genero bereizketaz modu pribilegiatuan hitz egiten digu (Esteban, 2016a: 96).

Generoaren eraikuntza nahitaez bete beharreko arauen baitan eraikitzen bada, generoaren erreprodukzioa boterearen negoziaketa bat da (Butler, 2009). Marko berean, feminitatea edertasunari lotua badago, Muñizek (2014) Susan Bordori erreferentzia eginez, edertasuna bera boterea kontuan hartu gabe ezin ulertu daitekeela diosku. Edertasuna kontzeptu, errepresentazio, diskurtso eta praktika multzo bat izanda, gorputz sexuatuaren materialtasuna eta generoaren definizioan gakoa da eta performatibitatearen bitartez egiten da posible (Muñiz, 2014). Baina, zer da performatibitatea? Nola ikasten dugu dagokigun genero-rola?

Hasteko, esan genezake maskulino edo femenino taldeei atxikitu ahal izateko gorputz-praktika batzuk errepikatzea beharrezkoa dela eta honenbestez, garenarekin baino gehiago, egiten dugunarekin zerikusia duela (Esteban, 2013). Ekintza horien praktikaren errutinaren bitartez, gure gorputzak debekatuak dituen eta beharrezko dituen keinuak, gorputzaren mugak eta hartu dezakeen espazioa zein den ikasten ditu (Bordo, 2001: 33-34). Honela, generoa bizitzan zehar eraikitzen doan zerbait da eta diskurtso hegemoniko baten baitan eraikitzen doa, une historiko eta geografia ezberdinen arabera aldakorra da, baina beti ere, eraikuntza kultural bat. Emakume sentitzea edo emakume bezala aritzea prozesu dinamiko eta konplexuak dira eta gorputz-praktiketan dute oinarria (Esteban, 2009b, 2013).

Generoaren eraikuntza jaiotzen garen unetik hasten da, haurrak oso txikitatik ikasten dutelarik behaketa eta imitazioaren bitartez zeintzuk diren errepikatu behar dituzten ekintzak. Gure bizitzak erregulatuko dituzten praktiken jardunean aritzeak ondorio materialak izango ditu eta honela identitatea eraikitzen joango gara (Burgos, 2007). Hortaz, performatibitatea genero-mandatuaren errepikakortasun bat bezala ulertu behar dugu, zeinaren bitartez diskurtso horrek izendatzen dituen parametroak eta ideiak materia bilakatzen diren (Butler, 2002). Horrela, genero-identitatea barrura eta kanpora

begirakoa da; barrura begirakoa, identitatea eraikitzen eta berau gobernatzen duena izatea espero delako eta kanpora begirakoa, gorputz-irudia identitate honen isla gisa ulertzen delako.

Irakurketa sakonago batekin, gorputz-irudiarekin, genero-ideologia finkatzea baino gehiago, ardatz ezberdinak dituen identitatea eraikitzea helburu dela ikus dezakegu. Bide honetatik, modelo politiko eta ekonomiko zehatz batzuk finkatu nahi dira, esan bezala, generoak sistema sozial oso batez dihardu (Esteban, 2004). Heterosexualitatea derrigorrezkoa da eta gizarte osoa antolatzen duen instituzioetako bat ere bada. Instituzio eta inposaketa den heinean, giza erreproduzioa eta egitura normatiboa iraunarazteko funtzioa du. Gizabanakoak funtsean sexu eta sexualitatearen kategoriek definituak izan direnez, euren identitateak eta gorputzak mendekotasun eta diziplinamendupean kokatzea errazagoa da, hau da, maneiagarri bilakatzen dira (Burgos, 2005).

Horretaz guztiaz gain, performatibitatearen bitartez subjektu nor den ere definitzen da, hau da, "la performatividad de género está...atada por las diferentes formas en que los sujetos acaban siendo elegibles para el reconocimiento" (Butler, 2009:325). Performatzearen bitartez genero-arauak betetzen ditugun unean onargarri, ikusgarri eta gai bilakatzen gara, gutaz espero dena bete dugulako (Ahmed, 2018). Honela, subjektu izatera iritsi egiten gara prozesu performatiboan etengabe ekitearen ondorioz, prozesu horren arauak testuinguru sozial eta kulturalak markaturiko parametroetan egin behar da, gainera (Burgos, 2005). Finean, performatibitatearen bidez, pertsona bizidunak eta euren bizitza zaintzea merezi dutenen eta ez dutenen arteko banaketa ematen da (Butler, 2009).

Horrenbeste tematu behar bagara generoa performatzen, arau zehatz batzuetan sartzeko hainbesteko errepikakortasuna beharrezkoa bada, etengabe saiatu behar bagara muga estu horietan sartzeko, generoaren hauskortasuna bera agerian geratzen da (Butler, 2009). Bestalde, ekitearen beharrak generoa materia bilakatzea edo gauzatzea inoiz osatuko ez den helburua izango dela adierazten

digu (Butler, 2002) eta genero-idealak betetzea posible ez den lan bat da, huts egingo duen ekintza bat (Burgos, 2005). Ideal bat den neurrian, itxiegia eta erabat bizigarria izatea ezinezkoa da Burgosen (*Ibidem*) arabera. Ondorioz, hauskortasunak arauak birsortzeko aukerara irekitzen gaitu eta hegemonia zalantzan jartzeko espazioak irekitzen dizkigu (Butler, 2002).

Esan bezala, generoa, gizartea bitartasunean banatzeko, bereizketa horren arabera homogeneizazioak sortzeko eta jendartea kontrolatzeko estrategiak dira, baina aldi berean, pitzadurak ditu. Gizarte bakoitzeko botere-sektoreak euren lorpenen egonkortasun ezaren jakitun izanda, segurtasuna irabazi nahian (Juliano, 1998) eta berezko hauskortasuna ezkutatu nahian, naturaltasun eta normaltasunaren nozioa asmatu ditu arestian aipatu bezala. Identitatea biologiarekin lotzeak, atxikitzen zaizkien ezaugarriak finkoak direla sinestaraztea du helburu, denbora pasa ahala aldatuko ez direla adieraztea, alegia. Horrela dio Julianok Lorite Menaren lanean oinarrituta:

“Los seres humanos se refugian conceptualmente en las ideas de estabilidad, permanencia y naturalidad (es decir, inevitabilidad). Así se produce una búsqueda de seguridad, de permanencia, que afecta a distintos ámbitos de las conductas humanas” (1998: 15).

Horri gaineratuz, Burgosek (2007), Foucaulti erreferentzia eginez, sozialki eraikiak diren ideiak natural bilakatu nahi izatearen atzean kultura diziplinatzailearen funtzionamendua agerian geratzen dela diosku. Naturaltasunaren agindupean, performatibitatearekin gertatzen den berdina gertatzen da, alegia, euren artean bateraezinak diren bi sexuen eskema itxia betetzera derrigortuta gorputzak atzemangarri bilakatzen direla (*Ibidem*).

Genero-identitatearen inguruko hausnarketa, teorizazio eta erresistentzia-praktikak izan dira mugimendu feministaren borroka ildoetako batzuk. Genero normatiboa eta derrigorrezko heterosexualitatea dira, feminismoaren aburuz, gorputzari atxikitu zaizkion agindu nagusienak (Muñiz, 2010). Mugimendu sozial hori izan da generoa naturalizazio prozesu batera eramanez dela mahai gaineratu duena, ondorioz, gorputza biologia baina gehiago

dela ikustea zaila egin zaigu eta aldatu ezin den zerbait dela sinetsi izan dugu (*Ibidem*). Feminismoak generoa eta gorputza irakurtzeko zein bizitzeko pertsona bezain beste modu daudela hauteman eta aldarrikatu du. Generoa eta sexua eraikiak direla jakinda, historian zehar aldakorra izan dela onartuta eta bere horretan ordena sozial hori mantentzeko errepikakortasuna behar duela jakinda, berau iraultzeko atea irekita daudela ikusi du feminismoak, nolabait, performatibitatea agentziarako bide ere bada (Butler, 2009).

Atal hau amaitzeko, Butlerren (2009) hausnarketa batzuk ekarri nahiko nituzke hona. Bere aburuz, genero-arau hegemonikoa eraberritzeko estrategia anitzak praktikan jarri behar ditugu, berebizikoak bait dira edozein genero eta sexu-politika erradikalak aurrera eramateko. Hala ere, gure sexualitatea berreraikitzen eta generoa birsortzen gabiltzan bide honetan hartzen ditugun erabakiak, askoz ere boteretsuagoak diren parametroen baitan egiten ote ez dugun pentsatu beharko genuke. Hau da, oinarrian erabat aukera askeak hartzen ez ditugunaren kontzientzia izan behar dugu. Beraz, honen inguruan hausnartzea eta formula berrien inguruan pentsatzea interesgarria izan daiteke.

Genero-identitatea gorputz-irudiarekin zuzenean lotuta dago, genero bakoitzari irudi zehatz bat atxikitzen zaiolako eta batak bestearen eraikuntzan zeresan handi duelako. Hori dela eta, gorputz-irudiaren tratamendu sozial batek sortzen duen ondoreza eta horrekiko erresistentzia-praktikak ikergai dituen lan honek, genero-identitatea kontuan hartu behar duela uste dut.

3.3.- Feminismoa eta lodi-aktibismoa, azaletik azalera doan mugimendua

Feminismoa da ikerketa honen guztiaren gidari baina hemen errepasso historiko bat egiteko kabidarik ez dagoela uste dut, gainera, zeren arabera izango litzateke eta non kokatu beharko nuke? Nagusiki Mendebaldeko gizarteetan ilustrazioaren ondoreman diren olatu izendatutako denboratarteak hartu ohi dira erreferentzia gisa. Hala ere, jada badakigu ez dela feminismoaren historia begiratzeko modu bakarra, baita Mendebaldeko toki

espezifikoko batzuetan zentratuz, kanpoan uzten ditugula beste hainbat historia, eremu geografiko eta honenbestez, bizipen ere. Bestalde, feminismoa pluralean ulertzen dudala aipatu nahiko nuke, gizarteko mugimendu guztien antzera, askotarikoak izan direlako bideak, pentsamenduak eta ekintzak. Feminismo askok mugimendu asko esan nahi dute (Ahmed, 2018) eta kontzeptu honek berak, mugimenduak, eman ahal digu lehen definizioaren zertzelada.

Behin hau argituta, atal honetan izango ditudan helburuak bi dira nagusiki: bata feminismoarekiko dudak begirada orokorra zein den labur azaltzearen lan konplexua. Bestea, gorputz-irudi idealaren eta genero-identitatearen inguruan feminismoak egin dituen ekarpenetako batzuk mahai gaineratzea.

Zein da ikerketa hau eutsiko duen feminismoaren begirada? Emakume eta gizonen arteko fikziozko binomio horrek sortutako botere-harremanen aurrean kokatzeko eta hauen aurka borroka egiteko ekintza izatetik haratago doan zerbait dela ulertu behar dugu. Ezkerreko mugimendu bezala aurkeztu nahiko nuke (Juliano, 1998; hooks, 2018) eta baita munduan gertatzen diren injustiziekiko erreakzio sentikor bat bezala ere (Ahmed, 2018). hooks-ek argi du: "Laburrean esanda, feminismoa, sexismoa, esplotazio sexista eta zapalkuntza deuseztatze mugimendu bat da" (2018:33).

Feminismoa, kanporanzko borroka eta pentsamoldeetan oinarritzeaz gain, barruko ekintzak errebisatzera bideratuta ere egon behar du. Honek kontzientzia bat eskatzen du, Simone de Beauvoiren "emakume ez da jaiotzen: egin egiten da" esaldi entzutetsuari jarraituz, hooks-ek "feministak egin egiten dira, ez dira jaiotzen" (2018: 41) diosku eta Ahmedek (2018) feminista izaten ikasi egiten dela azpimarratzen du. Hau da, jazarpen egoerak bizitzeaz gain, politika feministen aldeko posizionamenduak hautazkoa eta ekintzazkoa izan behar du (hooks, 2018).

Feminismoari esker, bizi garen sistema patriarkal eta genero-sistema desberdinduaren inguruan asko hausnartu eta idatzi da, baita inposatzen zaigun gorputz-irudiaren eta honek emakumeengan dituen eraginaren inguruan

ere. Gorputza eta sexualitatea ulertzeko begirada berriak ekarri dizkigu, gainera, genero, arraza eta klasearen prismatic begiratzen hasi gara berari esker. Irakurketa hauek aldaketarako mekanismoak martxan jartzeko balio izan digute, aukera berriak sortzeko atea ere ireki digute eta prozesua amaituta ez badago ere, ibilbidea ireki izana bihotzez eskertu behar diot. Mugimendu sozial horrek eraldaketarako gaitasun handia duela esango nuke, kritikotasunaz gain, erresistentziarako praktika anitzak proposatzeko gaitasuna duelako.

Feministek gorputza kontrol eta zapalkuntza historiaz beteriko leku bezala irudikatu zuten, besteak beste (Bordo, 2001). Generoa eta subjektua bera ulertzeko modu bezala irakurri behar da, geografia eta historia zehatz batek konfiguratu duena eta honenbestez, errepresentazio, irudi eta kontzepzio espezifiko batzuk dituen (Esteban, 2009a). Gorputza, orokorrean, eta emakumeen gorputza konkretuki, arestian aipatu bezala, kontrol eta erregulazio sozialerako funtsezko tokia izan da (*Ibidem*: 1). Bestalde, "gorputzaren politikaren" inguruko kritika bat sortzen ere hasi ziren eta hemendik gorputza bera borroka politikorako toki material bezala aurkeztu zuten (Bordo, 2001: 33-34). Testuinguraketa horrek emakumeak ekintza kolektibora bideratzeko indarra izan du (*Ibidem*: 61), hein batean, bizipen pertsonalak elkarbanatuak direla ikusi eta estruktura baten baitan kokatuak izan delako.

Duela hamarkada batzuetatik hona, feminismoa edertasun kanon eta gorputz-irudi idealaren gaineko analisiak egiten hasi zen eta jada XXI. Mendean, emakumeen aurkako biolentzia matxistaren ardatz nagusienetariko bat dela aintzakotzat hartzen du (Piñeyro, 2019: 135). Gizon eta emakumeei eragiten dien kontu bat dela onartzen bada ere, emakume eta genero disidenteenganako zapalkuntza ankerragoa dela ere ikusarazi ahal izan du. Edertasunaren mitoak emakumeak fisikoki eta psikologikoki suntsitzen ditu (Wolf, 2002: 50) eta feminismoaren beraren aurkako erreakzioa bortitza dela ere esan genezake, edertasun femeninoaren irudiak inposatzen dituelako arma politiko gisa, emakumeek aurrera egin dezaten oztopatzeko (*Ibidem*: 36).

Irudi hegemonikoei kontra egiten ausartzen direnak gogor zigortuak izaten dira (Esteban, 2016a; Bullen eta Díez, 2016); gainera, Bordok (2001) Michel Foucaulti (1977) erreferentzia eginez dioskun moduan, zigorra inposatzeko gehienetan ez dira hertsadura eta biolentzia fisikoa erabiltzen. Interesgarria da edertasunari eta generoari lotua dagoen emakumeen mendekotasuna termino hauetan ulertzea, kontrola sofistikatua (eta oso arriskutsua) bilakatu bait da; arauak betetzeko pertsonok geure buruari mugak jartzera eta gu geu auto-zuzentzera iritsi gara. Bordok (2001: 53-54) Foucaulten hitzak ekartzean argi adierazten du:

“No hay necesidad de armas, violencia física, restricciones materiales. Sólo una mirada. Una mirada de inspección, una mirada a la que cada individuo bajo su peso terminará por interiorizar al punto que él sea su propio supervisor, cada individuo ejerciendo así esta vigilancia sobre y contra él mismo.” (Foucault, 1977)

Hala ere, gorputza, botere sektoreek nahieran erabili eta moldatu dezaketena baino askoz ere gehiago da, salaketa eta aldarrikapenatarako leku pribilegiatua ere bada (Esteban, 2009a: 1), zentzu berean, gorputz-irudia bera ere errebelia eta aurkaritzarako eremu ezin hobea da (Esteban et al. 2016: 285). Foucaultek berak (1983), Bordoren (2001) arabera, eginiko hausnarketa berrietan botere-harremanak dauden tokian erresistentziak presente daudela diosku. Pixkanaka instituzio dominatzaileak zulatuak dira bazterreko gizarte sektoreetan gertatzen joan diren balio eta ezagutzeekin, ondorioz, egungo botere-harremanak ezegonkorrak dira; erresistentzia konstante bat delako eta hegemonia berriz, prekariora (Bordo, 2001: 55). Feminismoa honetaz jakitun dela esango nuke eta horregatik, beti, teorikoki boterea kuestionatzeaz gain, berau zultzeko estrategiak praktikara eramaten dabilela, hein handi batean gorputzaren bitartez. Honela, gorputz politikoak, besteak beste emakume eta feministen existentzia aldarrikatzen dutenak, estereotipoak zalantzan jartzen dituzten agenteak dira, balio hegemonikoak kuestionatzen dituzte eta arau dominatzaileak urratzen dituzte (Esteban, 2009a: 6).

Hau horrela izanda eta ikerketa honen testuinguruan kokatu nahian, feminismoak eginiko beste ekarpen bati presentzia eman nahiko nioke: lodifobiaren kontrako kritika. Feminismoak sakon landu duen gizon-emakume binomio horrez gain, gure gorputzetan materia bilakatu eta natural izaera hartzen duten beste binomio batzuk ere lantzeko deia egiten dute lodifobia lantzen diharduten hainbat kolektibok; gorputzaren normaltasunaren baitan ematen direnak, hala nola, ederra edo higuigarria, osasuntsua edo gaixoa, gaztea edo zaharra, gai edo ez gai parametroak (Masson, 2013: 225). Aurreko ataletan aipatu den moduan, gorputz-irudi idealaren zein generoaren irakurketa ofizialen baitan gorputz mota batzuk baztertuak izan behar dira. Inork izan nahi ez duen gorputz hori akastun eta gaitasun gabe bezala irudikatzea (García, 2016: 15) beharrezkoa da kontrola mantentzeko eta gorputz oker horiek (Osa, 2021), besteak beste, gorputz lodiak dira.

Gorputz-irudiaren inguruko atalean ikusi dugu argaltasuna emakumeentzat derrigorrezkoa dela, baina lodien kasuan honek zama handiagoa hartzen du (Piñeyro, 2019; Sarriugarte, 2022) eta identitatearekin estuki lotua dago (Piñeyro, 2019: 138). Lodifobiaren irakurketa kritikoa feminismoaren markotik ulertzea derrigorrezkoa da, emakumeek duten patriarkatu kuota altuagatik, loditasunagatik ematen den diskriminazioa bereziki lazarria delako (*Ibidem*: 135) eta “inork izan nahi ez duen hori” (*Ibidem*: 139) direlako gorputz lodiak. Lodifobia egiturazko zapalkuntza da eta horregatik bizitzako espazio guztietan pairatzen da; politika, lana, familia, harreman sexu-afektiboak... (*Ibidem*). Zapalkuntzaren beste adierazleetako bat, gorputza definitzen duen hori, loditasuna, irain bezala erabiltzea da (*Ibidem*: 33).

Loditasuna kontu estetiko bat izatetik haratago doala ulertu behar dugu (Sarriugarte, 2022), izan ere, gorputz lodia maitasuna, onarpen soziala, arrakasta eta zorientasuna lortzeko derrigorrez aldatu behar dela sinestarazten zaigu, bestela, nahitaez, porrot egin duen gorputza bezala ikusiko da (Piñeyro, 2019; Sarriugarte, 2017). Abiapuntu honetatik “aldi baterako gorputzaren” ideia interesgarria da; gizarte lodifobo batentzat loditasuna ez da betirako den

zerbait, inor ez “da” lodia, ezinezkoa da gorputz bizigarri bat izatea (Piñeyro, 2019). Argaltasuna paradisu bezala aurkezteak ondorio lazgarriak ditu lodifobiak jotako gorputzetan eta biolentzia sortzen da; beste norbait izatearen desiran bizi ohi dira, unean duten gorputza gorrotatu, etsai bezala sentitu, gutxietsi eta kalte egitera iristen direlarik askotan (*Ibidem*: 39). Honela azaltzen du Mijo Lizarburuk (Osa, 2021):

“Lodioi disforia antzeko bat sortzen digute: gure buruan atzerritar sentitzen gara eta joera dugu gorputz lodiarekin identifikatu beharrean, gure burua etorkizuneko gorputz argal idealarekin lotzeko. Etorkizun argalaren ideia horrek gure orainaldi osoa determinatzen du.

Etorkizuneko perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa emango dugu hori eskuratu nahian” (Osa, 2021)

Eta ildo berean, Maialenen hitz hauek oso ondo adierazten dute aurreko ideia:

“Nik betidanik gure izan dot aldatu, mitiko gabetan eta urteten jatzun pentsamendu horiek beti izan dira tipo ‘argalduko dot, argalduko dot’ eta beti amestu izan dot argalduko dotela eta helduko dela puntu bat non egongo nazela argal eta pentsatu izan dot bizitzako arazo danak horrekin konponduko direla, eukikotela bikotea, harreman danak super ondo, eukikotela lana... pentsau dot beti nire gorputza aldatuko dala” .

Zapalkuntza horretan sistema medikoak duen papera etengabe errepikatzen da: “Gorroto-adierazpen bat da lodifobia, eta osasuna izaten da gorroto hori sostengatzeko argudio nagusietako bat” (Sarriugarte, 2017). Lodiak direnen osasuna modu homogeneizatu batean tratatzeko joera du instituzio honek (Piñeyro, 2019). Hau da, kultura menderatzaileko instituzio den heinean, emakume lodiak sektore baliogabe bezala irakurriak dira eta kategoria berdintzaileetan kolokatzen ditu (Juliano, 1998: 17). Loditasuna diagnosi bilakatu du osasun-sistemak eta edozein osasun arazo loditasunaren errua dela ikusten dute profesional askok, ondorioz, pertsona lodiei arreta egoki bat

emateari uko egiten diote eta honenbestez, osasuna arriskuan jartzen da (Piñeyro, 2019: 85-86). Orokorrean, emakume lodiak argaltzera bultzatuak dira sistematikoki baina, jakina, “kontua ez dela argaltasuna, gure gorputzen gaineko kontrol soziala baizik” (Sarriugarte, 2022).

Hori guztiagatik esan dezakegu loditasuna politikoa dela. Feminismoak sexualitatea, ekonomia edo biolentzia politizatzen dituen bezala, dimentsio honen inguruko erantzuk bateratuak ematea garrantzitsua da (Masson, 2013: 227). Gizartearen gehiengoak determinatzen duen gorputz normalaren aurrean, lodi-aktibismoak normaltasuna apurtzea du helburu (Osa, 2021). Gainera, gorpuzkera disidente eta akastunen gorpuztasunaren inguruan hausnartzeko atea ere irekitzen digu (Masson, 2013: 226). Ondorioz, lodi-aktibismoa eta lodifobiaren kritika erresistentzia bezala ulertu behar ditugu, izan ere, “arrakala hori erabili nahi dugu –gorputz lodi bat mundu hetero kapitalistan bizi denean naturalki sortzen den arrakala– bertan leku bat sortzeko” (Sarriugarte, 2022).

Orain arte azaldutakoak borobiltzeko eta berezko duen edertasunagatik, Lucrecia Masson argentinarraren hitzekin itxi nahiko nuke marko teorikoaren kapitulua, *Epistemología rumiante* izendatu duen fanzineko hitz batzuekin:

“Entiendo el cuerpo gordo como un cuerpo colonizado, un cuerpo visto como inferior para una cultura donde la delgadez se ha impuesto triunfante. Un cuerpo para el fracaso, para la desaparición; un cuerpo erróneo, errado. Pero, y siguiendo a Fanon, el colonizado se ríe cuando se descubre animal en palabras del colono. Entonces digo: soy la vaca.

Busco la animalidad en mi propia enunciación. Soy un rumiante, y oso desafiar los límites que se han (im)puesto a mi cuerpo y humanidad.” (Masson, 2017: 11)

4.- NONDIK BEGIRATU? Analisisirako erabilitako kontzeptu nagusien argipena

Egindako elkarrizketak aletu eta hauen analisia egiteko erabili ditudan kategoria nagusien argipena egitea beharrezko ikusten dut, irakurle den orok abiapuntua zein den ziurtasunez jakin dezan. Hauexek dira: ondoeza, desplazamenduak, agentzia eta erresistentzia, eta plazera.

Ondoez esanguratsua

Gorputz-irudi idealak sortzen duen “bizipen ezkor hori” zer den zehazki kokatu eta ikerketarako egokiena den kategoria aukeratzea ondo pentsatu beharreko kontua izan da. Hasiera batean “sufrimendua” zen pentsatu nuen lehen kategoria, baina, ondoez esanguratsuaren ideiarekin topatu nintzenean, lanari ezin hobeto atxikitzen zitzaiola ikusi nuen. Emakumeen ondoeza ulertu eta jaso ditudan bizipenei zentzu bat emateko, Mabel Burin, Esther Moncarz eta Susana Velázquez (1990) lana hartu dut gidari, emakumeen osasun mentalean zentratuta badihardute ere, argitasuna baitakar esku artean dugun gaia hobeto ulertzeko.

Burin, Moncarz eta Velázquezek aipatzen dute emakumeen ondoezaren ulerkuntza eta kontzeptualizazioa, klasea eta sexuaren boterea iraunarazteko instrumentu bezala ulertua izan dela (*Ibidem*: 32). Euren aburuz, ondoezaren kontzeptua birformulatzea berebizikoa da eta nahitaez generoaren perspektibatik egin beharreko zeregina da (*Ibidem*: 64), “kultura patriarkalak” emakumeen ondoeza eta gaixotasuna sortzen dituelako modu espezifikoan (*Ibidem*: 40).

Aurreko mendeetan, emakumeen osasuna prisma patriarkal eta androzentristatik irakurria izan da eta begirada honek gaur egunera arte irauten du. 3 etapa historiko behatuz justifikatu dezakegu baieztapen hau, zeinak ondoezaren kategoria hobe ulertzen lagunduko diguten. Lehenengoa,

erlijio kristauaren indarra handia zen garaia; subjektu psikikoa “gizon erlijiosoaren” balioen baitan eraikia zenez, emakumeak objektu posizioa zuen eta naturaren parte bezala ikusten zen; honenbestez, menderatua izan behar zuen eta ezinezko zuen jainkozko ordenara iristea (*Ibidem*: 24). Bigarren etapa, XIII. mendearen ondotik medikuntzak izaera akademikoa hartu zuen garaia; soilik unibertsitateetan eta gizonezkoek jaso ahal zuten jakintza bilakatu zenekoa. Ordura arte herritarren osasuna zaintzeaz arduratzen ziren eta berdinek baliozkotutako jakintzaren subjektu ziren emakumeak aitortzarik gabe geratu ziren; gainera, osasuna ulertzeko modu maskulinoa inposatu zuten eta emakumeen begirada kanpo utzi zuten (*Ibidem*: 26-27). Iraultza Industrialaren hastapenekin batera, beste hainbat gertaeraren artean, emakume femeninoari “amaren moraltasuna” atxikitu zitzaion eta ideal hori betetzea emakumeen osasun mentalerako berme gisa aurkeztu zen. Kontrara, bikote eta ugalketa zirkuitutik kanpo geratzen ziren emakumeak “ero” bezala hartuak ziren (*Ibidem*: 29-30). Hirugarren garaia, azken hamarkadetakoa; medikuntza ofizialaren altzoan dagoen jakintza psikiatrikoa da emakumeen gorputzaren gaineko irakurketa eta kudeaketa egiteko zilegitasuna duen bakarra. Berriz ere, emakumeek kanpokoa den gizonezko agente batengan bilatuko dute pairatzen dutenaren erantzuna (*Ibidem*: 32).

Horrengatik guztiagatik, autore hauek, osasuna-gaixotasuna binomio androzentrista apurtzen duen “ondoez esanguratsu” terminoa proposatzen dute, zeinak ez duen aurreko ikuspegiekin bat egiten (*Ibidem*: 38). Ondoeza gertaera sozial bat den heinean, emakumeenganako opresioa sortzen duten faktore kulturalak zeintzuk diren eta hauen ondorio sozialak zeintzuk diren ikustea beharrezkoa da (*Ibidem*: 37-38). Planteamendu hori neure eginez, lan honetan, “ondoez esanguratsu” terminoa erabili dut gorputz-irudi idealak, sistema patriarkalaren parametroetan eraikia izan den heinean, emakumeen bizitzetan sortzen duen ondorio negatiboa aztertzeko.

Desplazamenduak

Hipotesien arabera, subjektuen agentzia ahalbidetzen duten faktoreen artean, feminismoarekiko atxikimenduak garrantzia baduela aurreikusten dut, baina baita emanda etorri zaizkigun testuinguruetatik fisikoki edo sinbolikoki lekualdatzeak ere. Ideia hau sostengatzeko, Estebanen *Antropología del Cuerpo* liburuaren azken kapituluan (2013) eta Mari Luz Esteban, Margaret Bullen, Carmen Díez, Jone M. Hernández eta Elixabete Imazek azken hamarkadotan euskal gizartean gazteak bizitzen ari diren genero-aldaketan inguruan eginiko ikerketa batean (2016) oinarritu naiz.

Norberaren espazioetatik aldentzeak eredu berriak ezagutzeko aukera ematen du lagun arteko harremanei, harreman sexu-afektiboari, praktika korporalei edo modu performatibo berriei dagokienez (*Ibidem*: 286). Bide horretan jarri ahal dira erresistentzia-praktikak martxan, hau da, kontestu alternatiboetan birgizarteratzeak aldaketak ematea ahalbidetzen du.

Jatorrizko testuinguruekiko urruntzeak ez du zertan beti fisikoa izan behar, hau da, aldentzea sinbolikoa ere izan daiteke, adibidez, talde sozial berri batean parte hartzearen edo ekintza ezberdin bat egitearen ondorioz. Horrek, alde batetik, geure burua modu ezberdin batean hautemateko eta eraikitzeko parada ematen du eta beste alde batetik, beste “gorputz bat bilakatzeko” aukera ere zabaltzen du (Esteban, 2013: 187).

Ikerketa honen ildo nagusietan zentratuz, gorputz-irudiari eta genero-identitateri dagokionez, lekualdaketa fisiko edo sinbolikoek emakume izateko, emakume moduan bestean aurrean aurkezteko eta “emakumez janzteko” modu berriak eta arropa ezberdinak probatzeko aukera errazten dutenaren ideia jarraitzen dut. Baita, Estebanek (*Ibidem*: 191) Del Valleren lanean (1992-1993) oinarrituz dioen bezala, desplazamenduak emakume (eta gizon) gisa dugun esperientzia birplanteatzeko aukera ematen duela eta ondorioz, generoarekiko sozializazio prozesu berriak abiarazteko atea irekitzen duela ere.

Agentzia eta erresistentzia

Foucault, Bordo eta Estebanek, beste batzuen artean, subjektuen agentziaz egin dituzten hausnarketan berri eman badut ere, analisirako Maria Ruizek proposaturiko agentzia kontzeptua emakumeek gorputz-irudiak sortutako ondoreari erresistentzia egiteko oso aproposa dela iruditzen zait. Agentziaz edo erresistentziaz hitz egitea ikerketa honen helburuetako bat dela jakina da, besteak beste, “norbanakoen agentzia eta praktika sozialak baztertuta, emaitza problematikoa bezain eskasa izango litzatekeelako, betiere (Ortner, 2006: 14).” (Ruiz, 2016: 162). Ruiz (2018: 159) Sherry B. Ortnerren (2006) definizioan oinarritzen da bere doktore-tesian eta horren arabera, subjektuek testuinguruarekin elkarrekintzan, errealitatea eraldatzeko gaitasuna dute eta horretarako boterearekin negoziatzen dute, betiere, unean dituzten muga eta aukeren arabera. Agentziaren gakoa intenzionalitatea izango litzateke, kontzientea edo inkontzientea izanda ere, aktore sozialek aldaketa indibidual edo kolektiboak lortzeko nahitasuna dutelako.

Agentzia, kultura eta une historikoen arabera eraikia da eta horiek konfiguratzeko dute agentziaren nolakotasuna (Ruiz, 2016: 165). Zentzu berean, erresistentzia ere parametro kultural batzuen markoan kokatu behar dugu, testuinguruak ematen dituen baliabideen baitan aldakorra izango delarik (Abu-Lughod, 1990). “Erresistentzia agentzia-boterearen aldaeretakoa bat dela defendatu du Ortnerrek (*Ibidem*: 144)” (Ruiz, 2016: 166), hau da, erresistentzia boterearekin lotua dago ez dominazio bezala ulertua, “azpitik” ekiten duen indar bezala baizik.

Menderakuntzaren aurka “egoera aldatzeko sorkuntza eta birsorkuntzan aktiboki aritzea” (*Ibidem*: 168) ere baden arren, erresistentzia ez dugu ulertu behar gizakion askatasun kuota soil bezala (Abu-Lughod, 1990: 42). Aitzitik, erresistentzia botereak hartzen dituen formak ulertzeko eta gizakiok bertan harrapatuta nola geratzen garen ikertzeko balio behar du, hau da, “boterearen diagnostikoa” egiteko erreminta izan behar du (*Ibidem*). Erresistentzia beti boterearekin lotuta dago eta modu honetan ulertzen badugu, boterearen

konplexutasuna eta berau naturalizatzen diren moduak ulertzeko bidea izango da (*Ibidem*: 41).

Plazera

Hipotesiak formulatu nituenean plazerak izan zezakeen garrantzia kontuan hartu ez banuen ere, elkarrizketak egiten nindoan heinean etengabe agertzen zen zerbait zela konturatu nintzen. Horregatik erabaki nuen plazera, modu zabalean ulertuta, analisi-kategoria bat izan behar zela. Erresistentzia eta agentzia baimentzen dituzten beste faktoreetako bat plazera da eta horretarako Laura Muelasen (2015) ikerlana erreferentzia ezin hobea izan da.

Plazera zerbait konplexu bezala ulertu behar dugu, plazer sexualarekin zerikusia baduen arren, hortik haratago joanda, praktika anitzek konfiguratzeko dute eta subjektuek gorpuzten duten emozio eta esperientzia baikorra da (Muelas, 2015: 5). Praktika hauek, adibidez, erritmoarekin (musika, dantza) edo mugimenduarekin (kirola, ariketa fisikoa) zerikusia izan dezakete (Esteban, 2013:248). Plazera, aktibismo eta teoriatik eraikitzen dela ere azpimarratzen du Muelasek (2015) eta horrez gain, Audre Lorde (2003) jarraituz, barneko asebetetze sententzia sortzen delako beti nahi izaten da berriro sentipen horretara itzuli (Muelas, 2015: 5). Aldi berean, plazera (auto)gogoetatik abiatutako bukatu gabeko eta amaiezina den prozesua da, dinamika indibidual eta kolektiboek baieztatzen dutena (*Ibidem*: 35).

Plazeraren bizipen subjektiboa baldintzapenez betea dago eta muga sozialek berau bizitzea ekidin dezakete, bestalde, generoak eta ideologia kapitalistak kondizionatua dago (*Ibidem*) eta horregatik begirada feministatik behatzea garrantzitsua da. Horrez gain, plazera esperimendatzeko, ulertzeko eta gozatzeko orduan elementu biografikoen baldintzak faktore determinatzaileak dira, hala nola, autokontzeptua, autoestimua, norberaren gorputzaren eta atseginezko praktiken ezagutza, jasotako hezkuntza eta prestakuntza,

sozializatuta gauden espazioak edo era guztietako baliabideak eskuratzeko ahalmena (*Ibidem*: 35-36).

Beraz, plazera mandatu kulturek, gorputz-irudi idealaren inposaketak eta genero-identitate zurruna nahitaez betebeharrak sortutako ondoezari aurre egiteko, plazera “ahalduntzeko” (Muelas, 2015) eta aldaketarako palanka dela (Esteban, 2013: 248) defendatzen dut. Plazeraren bitartez izandako bizipen positiboek epe labur, ertain eta luzera, eragin zuzena eta oso onuragarria ekar dezakete pertsonen eta emakumeen subjektibotasunaren eraketan, izan ere, esperientzia horiek, besteak beste, gorputzaren inguruko agindu kulturekiko urruntzea eragin dezakete (*Ibidem*.). Bestalde, praktika feministan ikusi den bezala: “el placer...contribuye de una manera fundamental a dinamitar la estructura social, en el sentido en que posibilita que la posición de las mujeres se traslade desde los marcos de la sumisión y la pasividad, hacia la autogestión, la autonomía y el empoderamiento” (Muelas, 2015: 99).

5.- IBILBIDEA: METODOLOGIA

“Nola heldu naiz ni honaino” atalean aipatu bezala, Master Amaierako Lana egiteko buruan nuen lehen ideia esku artean duzunaren oso ezberdina zen. 2021eko abenduan biolentzia obstetrikoren inguruko doktore-tesiak zein artikulua irakurri nituen eta heldu nahi nion gaia hori ez zela konturatu nintzen, baina ez nuen alternatibarik. Irakurketa horien guztien artean, Miren Guillóren artikulua batekin topatu nintzen: “La in-corporación de la investigación: políticas de la menstruación y cuerpos (re) productivos” (2013). Beste gai batzuen artean autoetnografiaz ziharduen eta kuriositateak jota edo, oso modu kaotikoan nire bizitzako parte bat pasarte idatzi nituen, nire ustez baliorik ez zutenak. 2022ko urtarrilean, tutoreak ariketa autoetnografiko osatu bat egitea proposatu zidan, honela, nire bizitzako dozena bat pasarte edo memoria idatzi nituen modu narratiboan. Egun batzuk beranduago begirada analitikoarekin irakurtzen saiatu nintzen, ariketa zinez zaila izan zen eta itsu-itsuan nindoala sentitzen nuen.

Buruko desordenaren bazterren batean, hala ere, argitasun piska bat ikusten hasi nintzela sentitu nuen. Ariketa autoetnografikoan gorputz-irudiaren inguruan asko idatzi nuela konturatu nintzen eta hasieran begirada biktimista izango nuela uste banuen ere, ariketa egin ostean, nagusiki agentziaz eta aldaketa mekanismoen hitz egin nuela ohartu nintzen, baita feminismoak nire prozesuan izan zuen garrantziaz ere. Desordena hori guztia lurreratzen lagundu zidan otsaileko tutoretzak, non gaiak zegozkion tokian kokatzeko argi asko ekarri zidan eta martxa hartzen joateko, ikerketa proiektua idazteko zereginarekin atera nintzen bertatik.

Ariketa autoetnografikoa egitea gakoa izan da ikerketa honi hasiera emateko, baina baita ikertzaile modura non kokatzen naizen hausnartzeko ere. Zientziaren erabateko objektibotasun faltsu horren aurrean, estrategia autoetnografikoak ikertzailearen subjektibotasuna, emozioak eta hauen guztien eragina onartzen du, ezkutatzeko saiakera egin beharrean (Ellys, Adams et al., 2015). Aldi berean, zientzia egiteko modu positibista eta zurrunari beharrezko

alternatiba bat eskaintzen dio, modu bakar eta legitimo bat besterik ez dagoela erakusten duelako. Prozesu hau egiteari esker eta MAL honetan parte hartzen duten emakumeei bide hau egin dudala azaltzearen ondorioz, kontatu didatena sakontasunez begiratu ahal izan dudala eta gure artean konplizitate moduko bat sortu dela esatera ausartzen naiz.

Otsailaren amaieran, ikerketa proiektuaren gainean kategoria analitikoak identifikatu eta marko teorikoa osatuko zuten irakurketak egiten hasi nintzen. Martxotik aurrerako lanak nagusiki irakurketak izan ziren, artikulua, liburuak, doktore-tesiak, Master Amaierako Lanak... Irakurri eta irakurri nabilen bitartean, elkarrizketatuko nituen emakumeak zeintzuk izan zitezkeen ere pentsatzen joan nintzen. Inguruko lagunei, etxekoei eta ikaskideei nire gaiaren berri eman nien eta hortik sortu ziren elkarrizketatu ditudan emakumeak. Paraleloki ikerketa-proiektua fintzen nindoan eta maiatzean marko teorikoa idazteko lehen dokumentua irekitzeaz gain, elkarrizketak ere egin nituen. Ia berrogei orri nituen irakurketa horietako guztietako zita interesgarriak autoreka, artikuluka eta gaika banatuta, baina une horretan marko teorikoa idazten hasteko lan biziki zaila neukan aurretik.

Marko teorikoa bideratu ostean, transkribapenak eta analisisa egiteko garaia iritsi zen. Une horretan ere zalantza ugari izan nituen baina tutorearen laguntzaz betiere, apurka-apurka ikerketa lanari forma eta zentzua ematen joan ahal izan naiz udan zehar. Uztaile eta abuztuan marko teorikoa berregituratu eta analisisa-kategorien inguruan hausnartzea ere izan dira egin beharreko lanak. Irakurketa berriak egin, autore berriak ezagutu eta hauek guztiak nire lanean nola txertatu erabaki behar izan dut. Berrito hasi nintzen doktore-tesiak, artikulua, Master Amaierako Lanak... irakurtzen, autoreka, artikuluka eta gaika banatzen zita interesgarri ugari, aurrekoan baino gehiago ziren, gainera.

Momentu txiki batean atzerapausoak egiten nabilela uste nuen, nire ustez egituratua zegoen zerbait berriro hankaz gora jarri behar nuela. Baina uste hau okerra zela ohartu nintzen segidan. Honela, ikerketa etengabeko mugimenduan dagoen zerbait dela ikasi dut, alegia, zerbait itxia eta lineala ez

dela eta ondorioz ikerketa hau bera amaitutzat inoiz egongo ez dela onartu behar izan dut.

Arestian aipatu bezala, ariketa autoetnografikoak zuzenean eraman ninduen (neure) agentziaz jabetzera. Azalean bizi dugun mendekotasun egoeraren jakitun naiz eta ez da nire asmoa horri garrantzia kentzea, baina emakumeok biktima paperean ikusteaz nekatu nintzen. Errealitatea aldatzeko ekintza txikiak eta handiak egiten dihardugu etengabe eta analisiaren erdigunean horixe jarri nahi nuen, emakumeon agentzia eta erresistentzia mekanismoak. Estebanen aburuz (2013), biktimizaziotik ateratzen diren analisien bidez emakumeen bizipen konkretuak jaso ahalko ditugu eta ondorioz, izaki pasibo eta homogeen gisa ikusteari utziko diogu. Normatibitateak dituen ondorio negatiboak kontutan hartzen jarraitzea garrantzitsua izanagatik ere, emakumeak agente bezala ikusten dituzten analisi alternatiboak proposatu beharko genituzke (*Ibidem*).

Helburu eta hipotesiei heldu ahal izateko eta egindako ibilbidea ikusita, ikerketa honek epistemologia feministaren barruan egon behar zuen derrigorrez. Epistemologia feministaren aspektu garrantzitsu bat ikertzailearen ezaugarriak kontuan hartzea da, genero-identitatea barne. Ikuspuntu horrek hausnarketa emozional eta kognitibo baten beharra mahaigaineratzen du eta aldi berean, norberaren identitatearen inguruko kontzientzia hartzeak, emaitza sendoagoak izatea ahalbidetzen du (Bullen, 2017). Zentzu honetan, Jone M. Hernándezen aburuz (1999), teoria feministaren balioa, besteak beste, akademian ohikoa den dikotomizazioa eta androzentrismoari aurre egin ahal izatea da, urgentzia handiko lana, nire ustez.

Gorputza eta gorputz-irudia izanda lanaren hari nagusiak, “gorputza erdigunean” jartzen duen metodologia kualitatibo baten beharra nuen eta horregatik, gorputz-ibilbideen teknikan inspiratuak egon dira egin ditudan elkarrizketak. Autoetnografiaren altzoan zientzia positibistari egindako kritikaren ildotik, gorputza oinarri duten ikerketak beste logika eta arrazionaltasun mota batzuen balioa agerian uzten dute. Bestalde, bizi garen

mundua ulertu eta bertan bizitzeko forma anitzak ere baliozkotu ditzakegu (del Marmol eta Sáez, 2011). Gorputzaren inguruko pertzepzio eta sentsazioei arreta jarritz, munduan *izateko* moduari erreparatzen diogu (Csordas, 2010) eta gizarteko esparru ezberdinak ikertzeko parada izango dugu.

5.1.- Elkarrizketak eta elkarrizketatuak

MAL hau burutzeko lagina 4 emakumeri egindako elkarrizketak izan dira, esan bezala, gorputz-ibilbideen teknikan oinarrituak egon direnak. Informatzaileekin egin ditudan topaketen denboraren batz bestekoa 2 eta 3 ordu artekoa izan da eta bakoitzarekin behin elkartu naiz, salbuespen batzuekin: emakume batekin ordubete iraun zuen bigarren elkarrizketa bat egin nuen eta beste batekin, topaketa egiteko zailtasunagatik, telefono audio bidezko galdera batzuen erantzuna eskatu nion. Horren arrazoia, transkribapenak egin ostean hutsune batzuk aurkitu nituela izan zen, baita gai batzuen inguruan sakontzea beharrezkoa ikusten nuela ere.

Bestalde, nire ariketa autoetnografikoa ere informazio iturrietako bat izan da eta analisisan txertatua gelditu da elkarrizketatuen bizipenekin batera. MALaren hasieran idatzi nuen testuaren zati batzuk eta bertan atera ziren ideia batzuk sartu ditut analisisan, hau da, ez dut hitzez-hitz dena txertatu. Ikerketan dudak inplikazio pertsonalagatik konbinatu ditut lehenengo eta hirugarren pertsonak idazketan. Esango nuke neure esperientzia ere aintzat hartze horrek, analisisa aberasteko modu bat izateaz gain, jasotako bizipenen ñabardurak ikusteko aukera eman didala. Horrela, kanpotik begiratzen duen behatzaile izatetik haratago joatean, objektibotasun zurrun bat alde batera uzteko aukera izan dut (Hernández, 1999). Memoria lan handia egin behar izan dugu ikerketan parte hartu dugun emakumeok, Ahmed-ek idatzi zuena berretsiz: “Compartir un recuerdo es poner un cuerpo en palabras” (2018: 43).

Denek esan dute emakume autoizendatzen direla baina eurentzat emakume izatea zer den definitzeko eskatu diedanean, pentsatzera

bideratutako isiltasunak eta zalantzezko erantzunak izan dira nagusi. Denek sentitzen dituzte tentsioak eta kontraesanak emakumetasuna definitzerako unean eta batere erraza ez dela diote. Feminitateari dagokion irakurketa kritiko batetik datoz tentsio hauek, hau da, gizarteak emakumeei atxikitzen dizkigun genero espresio eta jarrera, gustu, desira eta abarrekin erabat identifikatuak sentitzen ez direla diote eta honenbestez, emakume bezala identifikatzen badira ere, feminitatearen ideia propioa eraikitze bidean daude denak. Hala ere, hausturarako bidean sortzen diren tentsio eta kontraesanen inguruan analisiaren atalean sakonduko da.

Ikerketa subjektuen profila honakoa izan da:

Euskal Herrian jaio eta heziak izatea: Nahiz eta norbanakoen artean desberdintasunak egon, kulturalki eta sozialki antzekotasunak izan ahal dituzten pertsonen bizipenak ikertzea beharrezkoa ikusi dut, kulturaren baitako sozializazio prozesuak eta xehetasunen aldagaiek ikerketa beste esparru batzuetara eman bait dezakete.

25-35 urte bitartekoak izatea: Nire ariketa autoetnografikoa izan denez nolabait hasiera eman duena, nire adin inguruko emakumeak izatea interesgarria iruditu zait, generazio konkretu honetan zentratu ahal izateko. Izan ere, adin-tarte antzekoa izateak feminismoarekiko eta beste hainbat parametroekiko momentu historiko antzekoan zentratzen lagunduko du eta horrek analisi kokatuago bat egitea ahalbidetu dezake.

Emakumeak izatea: Gorputz-irudiaren bizipenak feminitatearen eraikuntzan zein honen aldaketan izan duen eragina ikertu ahal izateko euren burua emakume gisa hautematen duten pertsonen profila jasotzea beharrezko jotzen da.

Feminista auto-izendatzea: Ikerketaren helburuetako bat feminismoarekin izandako harremanak edo honekiko atxikimenduak izan duen adierazgarritasuna behatzea denez, euren burua feministatzat hartzen dutenak eta, beraz, feminismoaren erreferentziak ezagutzen dituztenak (ez halabeharrez

militantzia-esparruetan aritu direnak) ikerketa-subjektuak izatea derrigorrezkoa da.

Elkarrizketak egiten nindoan heinean gorputz dimentsioaren inguruko bizipen eta hausnarketak presentzia handia zutela ikusi nuen, zehazki loditasunak eta lodifobiaren aurkako ideia zein ekintzak. Honenbestez, ekainean lodifobiaren aurkako jai batean behaketa parte-hartzailea egiteko aukera izan nuen, elkarrizketatu dudan emakumeetako batek lodiaktibista talde batekin antolatu duen jaia, hain zuzen ere. Bestalde, mugimendu feministaren garrantzia ere oso esplizituki agertu izan da elkarrizketa guztietan. Horregatik saiatu naiz feminismotik antolatu izan diren ebentoetan parte hartzen. Hain zuzen, ekainean, AFIT eta Ankulegik antolatu zuten I Antropologia Feminista Kongresuan eta Euskal Herriko Bilgune Feministaren topaketetan parte hartzeko aukera izan nuen. Ebento hauetan parte hartzeak gaur egun Euskal Herriko mugimendu feministan ematen ari diren eztabaida eta hausnarketen berri sakonago izaten lagundu dit.

Elkarrizketatu ditudan 4 emakumeetatik bat gertuko pertsona da, beste bat erreferentziaz ezagutzen nuen eta azken bietara ezagunen bitartez iritsi naiz. Denek izan dute ikerketarekiko jarrera oso irekia eta bihotzez eskertu behar diet izan duten prestutasuna; gainera, marko teorikorako egin ditudan irakurketez gain, euren bizipenak entzuten irakaspén handiak jaso ditut. Topaketa guztiak eurek aukeratu dituzten lekuetan izan dira, denak giro goxo eta intimoan. Hasiera batean konturatu ez banintzen ere, transkribapenak egiten nituen bitartean ohartu naiz barreak konstante bat izan direla elkarrizketa hauetan. Barreak ez dira urduritasun edo deserosotasun baten adierazle izan, aitzitik, euren buruaz eta izan dituzten bizipenez barre egin dute. Honenbestez, konfiantza eta erosotasuna oso presente egon direla esango nuke, baita horrek euren ideiak zein bizipenak lasaitasunez adierazi dituztela erakusten duela ere. Testigantzak idatziz utzi behar nituenez, ahal nuen neurrian, euren oniritzia jasotzen saiatu naiz eta erabiltzen ditudan izen guztiak fikziozkoak dira.

Honela ba, hauek dira elkarrizketatu ditudan emakumeak:

Irati: 28 urteko emakumea da, pertsona alaia eta gertukoa, komunikatzeko gaitasun handia duena eta bere hitzetan oso gardena dena, horregatik izan da akaso bi elkarrizketa egin dizkiodan pertsona bakarra. Familia nuklear baten altzoan jaioa bada ere, ahizpak eta berak ama biologiko ezberdina dutenez, etxe bereiztuetan bizi izan dira beti eta hori erabakigarria izan dela iritzi du. Bizkaiko hiri txiki batean pasa zituen haurtzaroa eta nerabearoa, baina 18 urte zituenean Euskal Herriko beste hiri batera joan zen unibertsitate ikasketak egitera eta bertan bizi da ordutik. Jaioterrian nerabearotik mugimendu feministako kide izanda, orain bizi den hirian ere mugimendu feminista eta okupan oso aktiboki militatzen du. Eraso sexual larri bat jasan zuen duela urte batzuk eta berak dioen moduan “nire patua hilda egotea zen”. Gertaera horren ondorioz, gaur egun enpleguaren erritmoak batzuetan sortzen dizkion ezinegonen harira, ez du modu jarraituan lan egiten eta egiten duenean, hurrekin ibiltzen da hezkuntza formalean edo aisialdian. Dantza da, besteak beste, identitatea berreraikitzeke bere estrategia garrantzitsuenetariko bat, batez ere jasan zuen erasoaren ostean.

Lorea: 27 urte dituen emakumea, bere bizitzako zati handiena Euskal Herriko hiri batean pasa du eta gaur egun ere bertan bizi da. Familia nuklear bateko kide da eta anaia bat du, eurak ere hirian bizi dira eta familia gertu du. Saltsa askotan egotea gustuko du eta erabateko artista da, dantza estilo ezberdinak, clown, antzerkia eta antzekoak egin izan ditu haurra zenetik. Haur Hezkuntzako unibertsitate ikasketak amaituta izanda eta horretan lanean egonda, praktika artistiko eta kulturalen inguruko unibertsitate ikasketetan murgilduta dabil azken aldian. Lodi bezala definitzen da, berarentzat loditasuna ez da “egoteko” modu bat, “izateko” era bat baizik. Bere bizitza asko determinatzen duen zerbait dela argi du eta lodifobiaren aurka Euskal Herrian sortzen dabilen mugimendu feministako kide da. Azken hilabeteetan jaialdi ezberdinak antolatu dituzte eta aurtengo irailean Euskal Herriko I. Jatunaldi lodiak antolatu dituzte.

Ane: 32 urte dituen emakumea da eta, euskal herritarra den arren, azken urteetan Londresen du bizitokia. Bere burua interes asko dituen pertsona gisa ikusten du, oso hiztuna eta aktiboa. Lehen unibertsitate ikasketak publizitatea eta lan harremanak izan ziren baina moduren batean gizartearen eta familiaren espektatibak betetzeko egin zituela uste du. Ikasketa horiek bertan behera utzi zituen eta zinea zein antropologiako ikasketak egiten ibili da gerora, bere espektatiba propioak sortu eta bizitza parametro propioen baitan eraikitzen saiatzeko bidean. Duela bi urte eskas ama izan zen eta gaur egun seme bat du. Amatasunaren harira bere identitatea berreraikitzen dagoela dio eta prozesu horretan nahiko murgilduta dagoela ere bai, ama izateaz haratago bere burua nola definitzen duen begiztatu nahian. Feminismoaren berri izaten hasi zenean oso identifikatua sentitu ez zela aitortzen duen arren, erreferentzia ezberdinak jasotzen joan zen heinean, bizitza begiratzeko oinarri bilakatu dela dio. Mugimendu feministan aktiboki parte hartzen ez duela zehaztu du, besteak beste, bere antsietatea medio espazio hauetan parte hartzea asko kostatzen zaiolako.

Maialen: 25 urteko emakumea, irribarretsu eta goxoa, denbora gehiena herri batean bizi izan dena eta "ideiak oso argi dituen". Berak dioen bezala, familia "desegituratu" eta egoera ekonomiko zaurgarritu bateko kidea izateak identitatea asko definitu du. Gurasoak haurrak zirenean banandu ziren eta hauen enpleguari dagokionez aldi bateko lanak izan dira nagusi, baita gaueko lanaldiak ere. Loditasunak ere asko definitzen duela dio eta kirola oso garrantzitsua dela berarentzat, izan ere, bere gorpuzkerari zentzu berri bat emateko bide esanguratsuenetarikoa da, kirola utziko balu "Maialen nor da?" zalantzan jartzeraino. Gaur egun mugimendu feministan aktiboki parte hartu ez badu ere, lodifobiaren eta feminismoaren teoriak zein praktikak gertutik jarraitzen ditu eta bere bizitza gidatzen dutela dio. Euskara eta dantza saioak ematen egin izan du lan eta orain oso zentratua dago herriko kirol talde batean.

Itsaso: 34 urteko emakume alai eta irekia da, edonorekin hitz egiteko gai den horietakoa. Azken 15 urteetan bidaia asko egin ditu eta bizitoki ezberdinak

izan ditu munduko herrialde ezberdinetan, baina azken urteetan Euskal Herriko landa gunean finkatu da eta elkarbizitza komunitarioko proiektu bat sortzen dabil. Maialenen antzera, beti egoera ekonomiko zaugarrituan egon den familia bateko kide izateak gizartearekiko begirada zorrotza eskaini diola uste du. Hainbat unibertsitate ikasketa dituen arren, bera ere egoera prekarizatuan egon izan da beti. Haurrekin egin du lan urte gehienetan, baina duela pare bat urtetik hona hilekoaren eta amatasunen akonpainamenduan zentratuta dagoen proiektu bat sortu du. Dantza, umorea eta abestea dira, besteak beste, bere pasioak, liberaziorako eta gorputz-irudiaren auziari zentzu berri bat emateko bideetako batzuk. Euskal Herrian egin dituen egonaldietan mugimendu feministan parte hartu izan du, baita gaur egun ere.

6.- BAHETZEA: ANALISIA

Jasotako bizipenen analisia antolatzea erabaki korapilatsua izan da. Ondozari presentzia ematea beharrezkoa ikusten nuen eta maila berean erresistentzia-praktikei zentralitatea ematea ere derrigorrezkoa zen, ikerketaren helburuei men eginez. Azkenean, ondoezatik plazerarako bidea aurkeztea erabaki dut, baina historia lineal bat kontatzeko arriskuan erortzea erraza zenez, bizipenetan etengabe agertzen diren tentsio eta kontraesanak ere eroale izango dira. Emakume guztien bizitzetan gorputz-irudia eta genero-identitatearen berrikuspena konstante bat da, joan-etorriak daude, batzuetan ondoezak indar gehiago hartzen du, besteetan plazera dago erdian eta hauek denak bizitzako beste faktore batzuekin etengabeko elkar eraginean daude.

Behin hau argituta, esan analisia aurkezteko lau zutabe handi erabili ditudala: lehenengoa, ondoez iraunkorra eta desiraren gurpiletik kanporaketa; bigarrena, nire lanaren protagonistei emanda etorri zaizkien espazioetatik egindako desplazamenduak gako gisa; hirugarrena, erresistentzia-praktikak gauzatzeko feminismoak izan duen garrantzia; eta laugarrena, plazera eta sexualitatearen adierazgarritasuna ondoezari aurre egin ahal izateko. Hauek guztiak, bananduak aurkezten baditut ere, etengabe harremanetan daudela eta trama konplexuak sortzen dituztela argitzea ere beharrezkoa da.

Azkenik, ikerketa-subjektuen aurkezpenean azaldu bezala eta aurrerago zehaztuko den moduan, feminismoarekiko atxikimenduaz gain, ikerketa honetan elkarrizketatu ditudan bost emakumetatik laurentzat, praktika artistikoak, hala nola, dantza, zinea, kantua... eraldaketarako gakoak izan dira. Errealitate horri presentzia eman nahi izatetik, analisisan zehar abesti batzuk txertatu ditut. Ez dira ausaz aukeratuak izan, ikerketak iraun duen bitartean, hemen landu ditudan gaiekin konektatzen lagundu didaten kantuak baizik. Beraz, zu, irakurle hori, irakurketaren lanean murgildu aurretik, atal bakoitzaren hasieran kantuaz bustitzera gonbidatzen zaitut. Irakurketa akademikoarekin batera, azaldu nahi dudana nolabait gorpuzteko saiakera eta gonbidapena da honakoa.

6.1.- Ondoez iraunkorra eta desiraren gurpiletik kanporaketa

*Esan zenidan, esan zenidan
ez dela posible horrela bizitzea.
Esan zenidan, esan zenidan
ez dela komeni gehiegi pentsatzea.
Eta begira, eta begira
egunak ihesi doaz.
Niri begira esan zenidan
jasan ezina nintzela.*

(Merina Gris)⁵

Gorputz-irudi idealaren araua derrigor betetzeak emakumeei ondoeza ekartzen dienaren ideiarekin estreinatzen dut kapitulu hau. Gure gorputzetan jasaten dugun opresio eta biolentziak, askotan, ondorio lazarriak ditu gure osasun mental eta fisikoan. Emakumeengan sufrimendua ere badakar, berariazko ondoeza, Mabel Burin et al. jarraituz, mendekotasunezko egoera sozialari zuzenean lotutako emakumeen oinaze propio bezala ulertzen dudana (1990: 35).

Ikerketa honetan, nagusiki, gorputzaren tamaina⁶ eta argaltasunarekin loturik dira ondoezaren ardatz nagusiak, baina ez hori bakarrik. Gure gizarte

⁵ Merina Gris taldearen “sAIATZEN nAIZ :)” kantua, Spotify plataforman <https://open.spotify.com/track/17JM19ecRkTCDC77KMZKiu?si=5ddf0915d70a40f9> edo Youtuben <https://www.youtube.com/watch?v=AxnzFCO3OnQ> eskuragarri.

⁶ “Tamaina” hitza erabiltzen dut, gorputzaren “pisu eta bolumena” modu bateratuan adierazteko. Izan ere, ia emakume guztiek loditasunagatik izan duten ondoezaz badihardute ere, fisikoari dagokionez, ez da loditasuna soilik izan bizitza osoan ondoeza determinatu duen faktore bakarra. Euren hitzetan, gorputz “altua” eta “handia” ere izan dira gorputz-irudi idealetik at egoteko aldagaiak.

heterozuzen honetan, emakumeak hipersexualizatuta daudenez, espero da nolabait gu desira (heterosexualaren) gurpilean egotea, baina hori ez da modu berean gertatzen gorputz-irudi hegemonikoaren parametroetatik at geratzen direnekin. Ez direnez emakume “egoki” kategorian sartzen eta ez dutenez haiengandik espero dena betetzen, sexualitatean mugak berriaz bizi dituzte ez baitira “gorputz desiratu” gisa tratatuak izaten, eta honek ere ondoeza dakarkie. Euskal Herriko emakumeak, Mendebaldeko gainerako gizarteetakoak bezala, edertasunari dagozkion patroikulturalen eragin zuzena dutela (Esteban, 2016a: 91) aipatzea beharrezkoa da, elkarrizketatu ditudan emakumeen bizipenen abiapuntua zein den jakiteko.

Horregatik guztiagatik, atal hau bi bloke orokorretan banatu dut: alde batetik, gizarteak, familiak eta osasun-sistemak sortzen duen mina eta jazarpenari dagokiona eta, beste alde batetik, hipersexualizazioak eta desiraren gurpiletik at egoteak sortzen dituen ondorio negatiboak. Biak gure kulturak genero femeninoari eskaintzen dizkion baldintza zapaltzaileak direla (Burin et al. 1990: 36-37) ulertzen dudalako egin dut antolaketa hau.

Marko teorikoko gorputz-irudiaren atalean azaldu bezala, emakumeoi haurrak garenetik irakasten digute jarraitu beharreko ideala zein den eta oso gaztetatik ikasten dugu parametro horien baitan egokia eta desagokoa zer den, baita gure gorputza horien baitan epaitzen ere. Horrela dio Iratik:

“Ditut pilo bat txikitako diario... 13 urtetatik eta horrela, eta egon nintzen irakurtzen eta nik literalki ulertzen nuen nire gorputza zerbait handiegia izango bazen bezala, como que no estaba bien. O sea, zela, sentitzen nintzen lodiegi eta altuegi”.

Jasotzen ditugun mezuak ez dira beti zuzenak izaten, baina hala ere interpretatzeko errazak egiten zaizkigu eta nolabait gorputzu egiten ditugu, Loreak, beti espresio artistikoari lotuta egon denak, hala zehazten du:

“Infantzian probatu nituen gauza ezberdinak, ba hori... egin izan nuen ballet eta izan zen nahiko biolentoa, zelako testuinguru bat ba super

hostil en plan, mete el culo, mete tripa... uste dut momentu horretan ez nintzela kontziente para nada baina bizi nuen nire gorputza pues gaizki, como que caló todos los mensajes que recibía”.

Zuzenak ez diren baina ondoeza sortzen duten mezu horien artean, hainbatek aipatu dute nerabezaroan neurriko arropa ezin aurkitu ahal izatea faktore garrantzitsua izan dela. Loreak, adibidez, diosku bere amak jantzen zituen moduko arropak jantzi behar izaten zituela eta horrek identitatean eragina izan duela. Bestalde, lotsa zein kulpaa ere sortzeko efektua izan du, Itsasoren arabera:

“Nerabea nintzenean taila handien dendetara joaten nintzen arropa eroatera eta honek lotsa ematen zidan, ez nion inoiz inori esaten non erosten nuen arropa eta gainera, arropa hau ez zitzaidan gustatzen eta ez ninduen errepresentatzen”.

Orokorrean, gizakiok sortzen dugun erreferentziazko lehen taldea familia izan ohi da, eta bertan sortzen dugu lehen kidetasun-sentimendua. Sendiak ere gorputzaren diziplinamenduan paper oso garrantzitsua izan duela aipatu dute elkarrizketatu guztiek, eurengandik jaso bait dituzte argaltzeko lehen mezu zuzenak. Maialenek, berak dioen bezala familia “desegituratu” batean hezia izanda ere, argaltasunaren presioak izan duen presentzia handia dela azpimarratzen du:

“Pertsona lodi moduen hamaika-hamabi urte dekodazenetik beti saiatu die etxien nire irudia moldatzen, eta tiak eta holan bebai, azkenien, bizitzan konstantemente esan doztie argaldu biher nabela”.

Familia nuklearretik haratago doan presioa da, gainera:

“Larunbat askotan amonak baserri ilun horretako bazterren batean harrapatzen ninduen ezustean beste lehengusu-lehengusinei bezala. Eta han, beti-beti, erretorika berdina: itsusi zaude, argaldu beharra duzu,

horrela ez zaituzte maiteko... gaur egun ere amona ikusten dudan bakoitzean berdina esaten dit". (Itsaso)

Itsasok eta Loreak helduaroan ere halakoak entzuten dituztela diote, argaltasunaren obsesio sozialak adin tarte ezberdinak hartzen dituenaren seinale:

"Txikitan dietaren bat eginez edo amak bazkari familiar batean: 'Lorea, zuk ez jan gehiago'. Horrelako komentarioak egon dira eta jarraitzen dute egoten".

Eskola-esparruan ere gertatzen dira biolentzia hauek. Biolentzia deitzen diet, Piñeyrori jarraituz (2019), argaltzera gonbidatzen gaituzten komentario errepikakorrek gorputza derrigor aldatu beharra dagoela eta argaltasunaren araura moldatu behar dela esaten bait dute. Honela, beste pertsona bat izatearen desioa sortzen da eta unean duzun gorputza gorrotatu eta etsai bezala sentitzea ere gertatzen da, akats bat bezala ulertua den heinean, gorputzarekiko deskonexioa ematen da eta hau ere biolentzia da (*Ibidem*). Baita norbere gorputza den bezalakoa eta gizartearen mezuaren artean disoziazioa sortu dezakeelako ere. Iratik horrela bizi izan du:

"Klasean nituen bereziki kapulloak, gizon batzuk, bereziki sartzen zirenak fisikoarekin. Orduan nire kontzepzioa, nire buruarekiko kontzepzioa, izan da un desfas. Eta gero ya eukin dut gehiago pues desconexión, como que no habito el cuerpo, asi que ni siento ni padezco, ni pa mal ni pa bien".

Eremu horretan gertatzen diren biolentzien larritasuna handia izatera iristen da kasu askotan, non gorputz-irudi ideala ez betetzeak isolamendua eta bazterketa soziala ekarri ahal dituen. Burinek (1990), Claude Herzlich eta Janine Pierret (1984) soziologoek ikerketan oinarrituta, ondoezak eta gaixotasunak kasu askotan parte-hartze soziala edo bazterketarekin zerikusitu zuzena duela dio. Itsasoren testigantzak sostengatzen du hau:

“Lehen Hezkuntza oso gogorra izan zen niretzat, loditasunaren ondorioz mespretxuak jasotzen nituen etengabe eta lagunik ez zuen haur bat nintzen, nahiz eta niri edonor iruditzen zitzaidan erakargarria lagun modura izateko. Nire burua urte haietan zurrumbilo batean oroitzen dut. Ikastetxetik kanpo arratsaldeetan etxean bakarrik ordu asko pasatzen nituen, etxean ez bait zegoen dirurik herriko beste haurren bat ezagutu ahal nuen eskolaz kanpoko ekintzaren batera joateko”.

Osasun-sistemak argaltasunarekiko presioan duen eragin zuzen eta handia eztaba daezina da, bai teorikoki, arestian aipatu bezala diziplinamendura bideratutako instituzio bezala (Esteban, 1997), baita enpirikoki ere, elkarrizketatu ditudan emakume guztiek egin bait diote erreferentziaren bat sistema medikotik jasan duten jazarpenari eta askotan errepikatu den faktorea da. Itsasoren testigantzak adierazten duen bezala, lotsa eta kulpaa ere ekar ditzake presio hau bizitzeak:

“Haurra nintzenetik medikuen eskutik beti jaso izan dut argaldu behar nintzenaren mezua. Amak eramaten ninduen dietak jarraitzeko ospitalera eta han medikazioa jartzen zidaten, pastillak eta antzekoak. Janaria oso erregulatua zen, zein maiztasunarekin jan, zenbat kantitate, zer jan... gaixotasun baten antza zuen horrek, baina berezko osasun-arazorik ez zegoen. Lotsa handia ematen zidan dietan nengoela aitortzeak ikaskideen aurrean eta nahiago nuen esan gaixorik nengoela, alergiaren probak zirela edo dena delakoa”.

Emakume askok medikuarenera joateari uzten diote, dituzten sintomak gorputz tamaina handiagatik direla sinetsarazi nahi dietelako eta diagnosi errealik gabe geratzen direlako askotan, bai ordea argaltzeko aginduarekin. Beldurra, fobia edo lotsa sentitzera iristen dira asko eta amore emanda, gaixotasun sintomak izanda ere kontsultetara joateari uzten diete; ondorioz, osasuna arriskuan jartzen da kasu batzuetan (Piñeyro, 2019: 86): Hau da Maialenen kasua:

“Txikitán ta holan medikura enintzen juten, porke juten nintzen danetan urtetan nintzen medikutik bardin: esaten argaldu in binabela. Eta niretzako beti izan da traumatikoa hori, adibidez. Nire amakin ya, adibidez, medikuen rebisioietara ez ginen juten bez. Niri behartu doztie argaltzera, eta arrazoia nahiz ta hasiera baten izan osasuna, ez zan osasuna, zien beste mila arrazoi, dauelako txarto ikusita, dauelako gizartien behar bat argala izatea, inposatzen delako argaltasuna”.

Harrigarria da nola loditasuna eta gorputzaren neurri handia osasunaren kontrako atentatu bezala ikusiak diren eta aldi berean, pertsona handi eta lodiak infradiagnostikatzea ohikoa den. Aneren kasuan, haur txikia zenetik gertatu da jazarpina:

“Medikuan ere hasten dia gauzak ez? Pertzentilakin ere hasten dianian obsesionatzen, joe, ume bat da! Nere familian oso jende handiya gea eta de etxo ni naiz emakume bajúena. O sea kriston matxakia umeak geanetikan”.

Burinen (1990) lerro berean, Piñeyrok dio opresioak jasateak emakume asko osasun mental zaurgarritu batera eraman dituela, antsietatea, fobiak edo autoestimua baxua esaterako, baina baita elikadura-jokabideen nahasmendura, anorexia eta bulimia barne (2019: 83). Osasun mentalean izandako ondorioak elkarriketatu guztiek baieztatu dituzte eta elikadura nahasmenak ere errealitate izan dira, azken hauek ondorezarekin zerikusi zuzena dute. Iratiren kasuan, nerabezaroan hasi ziren nahasmenak, dietak egitearen ondorioz gero betekadak hartzen eta jarraian botaka egiten. Besteak beste loditasunak sortzen zion antsietate arrazoiak medio iritsi zen egoera honetara:

“Obviamente neuken kriston antsietatea, jaten nuen asko, egiten nuen botaka eta jarri nintzen oso arin oso gaizki de terminar vomitando todo, eta konsiente de ‘nahi dut gelditu baina ezin dut’. Gorputzaren kontzepzioa da mierda bat ikusten nintzelako lodi denbora guztian”.

Irati kontziente izan bada ere, badaude egoera batzuk zeintzuetan ez den erabaki bat izaten eta horrek mugak non dauden jakitea galarazten du, arriskua handituz. Itsasoren kasuan bezala, ez zela ohartu argaltzen zegoela inguruko feedbacka jasotzen hasi zen arte:

“18 urte nituenean lehenengo aldiz gurasoen etxetik irten nintzen, Unibertsitate ikasketak egitera. Goizez ikasi egiten nuen, arratsaldean lan eta gero militantziako bilerak, karteleoak, prestaketak eta nola ez, unibertsitateko lanak. Gosalduta egiten nuen eta zertxobait afaldu ere, baina sekula ez bazkaldu, egunean zehar kafea eta porroak bakarrik kontsumitzen nituen. Ni ez nintzen kontziente izan ikaragarri argaltzen nengoela jendea esaten hasi zitzaidan arte, mutilak niregana ligatzera etorri ziren arte eta arropa erortzen zitzaidala ohartu nintzen arte”.

Emakume bat argaltzen denean zoriontzia ohikoa da, nahiz eta osasun mental, fisiko edo ondoez batek eragindako ekintza kaltegarria izan. Osasun-sisteman ere, normalean, ez da osasun-arazo baten susmorik hartzen, argaltzea beti delako ona. Biolentzia bezala ere ikus daiteke, izan ere, eta Anek dioen bezala, argaltzearen ondorioz onarpen sozial handiagoa lortzen dugu eta horrek gorputzaren gaineko kontrola zerbait ona izango balitz bezala ikustera garamatza. Gorputz-irudi idealaren zurruntasun maila altua dela ere errepikatu dugu behin baino gehiagotan eta Itsasoren elikadura nahasmenen ondotik askotan entzuten zuen komentario bat horren isla zuzena da: “Oso guapa zaude! Ez argalago ez gizenago e, horrelaxe geratu”.

Hipersexualizazioa ere ondoezaren parte handi bat da emakume askorentzat, beste hainbat arrazoiren artean, objektu izatea garamatzalako eta gure autoerrealizazioa gizon txuri eta cis-generoaren begietan eraiki beharra izatearen presioagatik. Hala ere, gorputz-irudi idealean sartzen ez diren emakumeengan eta, zehatzagoa izanda, lodiak diren emakumeengan beste osagai bat ere sartzen da jokoan, eredu sexualetik kanpo daudelako. Piñeyroren arabera, inork bere ispiluan ikusi nahi ez duen gorputz hori izateak jada ezberdintasun bat markatzen du (2019: 139) eta desiraren zirkuituan ez egoteak

ondoeza areagotzen du. Mijo Lizarburuk dioen bezala, “badago betetzen ez dugun kanon estetiko bat, eta hortaz, gure eskura ez dagoen kapital erotikoa bat” (Sarriugarte, 2022).

Hala adierazten dute elkarrizketatu ditudan emakume guztiek, salbuespenik gabe. Era berean, emakumea hipersexualizatua den heinean desiragarria izan behar du eta desiragarritasunak, oparotasuna eta arrakasta ekarriko dizkio nahitaez. Denek aitortzen dute euren gorputzetan ekuazio hori ez betetzeak ondoez handiak sortu diela. Adibide batzuk aipatzearen:

“O sea beti sentitu izan naiz, DBHrarte eskolaz aldatu nintzela como que no iba a ser deseada por ningun pavo [hombre] jamás. Eta ligatzen hasi nintzenean nire autoestima oso ikututa zegoen y era carne de cañón. Uste dut autoestima zegoela oso oso ikutua ya hasi nintzenean gizonekin harremanak izaten. Oso ikutua gorputzari dagokionez”. (Irati)

“Hasieran igual hurbiltzea ni gizonengana, momentu horretan gizonekin harremanak nintzelako eta ni hurbiltzea eurengana eta hor konturatzea en plan de ‘a bale, que no estoy bien’, kanpotik jaso nuen ese ‘no estás bien’ edo ‘ez zara nahikoa’”. (Lorea)

“Nik nerabezaro aldiaren beti sentitzen nintzen potola eta potola igual a gaixki eta itsusiyá. Orduan, ba ezin niola inorri gustatu, ezta? Emakumeak arazo hori dakaula pentsatzen det e bai, gure arazuan parte dala mayormente gizonentzako izan behar izati flakak, politik y tal”. (Ane)

Ondoez zuzena norbere gorputz eta pertsonarekiko bada ere, harreman sexu-afektiboak eraikitzerako unean zuzenean sentitzen da, baina baita beste edozein harreman eraikitzeorakoan ere, izan ere, osotasunean balizkoa ez den pertsona bezala ikusiak direla hauteman dute.

Errealitate honen aurrean, ondorio ezberdinak ikus ditzakegu. Gorputz-irudia, espero dena ez bada, emakumeek pertsonalitatearekin lotutako

estrategiak erabiltzen dituzte ikusgaitasuna lortzeko. Estrategia hauek besteen espektatibak betetzera bideratuta daude, hau da, ez da norbera denaren hiperbole bat, antzerki bat baizik eta tentsio honek berak ere ondoeza dakar:

“Azkenien ezin nazela izan gustable moduen, jendeari ezin dotzazula gustau. Nik bai sentitzeot pasa dala nigaz, emon biher izan dotela beste zeozer. Tipo, erreforzau behar izan dot nire izaera, adibidez, barre ein. Eragin behar izan dot beti barrea, konpentsatzeko, ez? Azkenien, algo tiene que tener, o sea nire izaera egon dala markauta nire gorputzagatik. Gero bebai atribuitzen jatzuz beste gauza batzuk, ideia batzuk, rol bat... eta azkenien rol hori mantentzea edo betetzea denbora guztien azkenien da presiño bat zure buruan”. (Maialen)

Itsasok ere berdin adierazten du: bere gorpuzkerak jarrera eta portaerak definitu zituen. Haurtzaroan harremanak izateko edozein estrategia bilatzen zuen, bere gustu eta iritzi propioak arbuiauz. Ondoren, nerabezaroan, ondoeza handiegia zenean, bere burua babesteko, izaera alai eta gertukoa deuseztatuz eta pertsona hotz eta urruna bilakatuz.

Emakumeen hipersexualizazioak eta kanon sexualetik kanpo egoteak genero-rolen inguruan hausnartzera garamatza zuzenean, feminitate eredu itxi bat inposatzen duelako, besteak beste. Rol horrek emakumeen ondoez eta gaixotasunean eragin zuzena du (Burin et al. 1990: 56-57) eta hau horrela ulertzea derrigorrezkoa da marko honetan. Aneren ibilbidea jarraitzea adibide egokia da ideia hau ulertzeko:

“Ez neon oso komoda emakume genero-rolan barruan, eztakit nola esan, ez det inoiz zalantzan auki nere generua baina rolakin ba hori ez naiz ikusi hor eta sentitzia un poco fuera de lugar, igual no soy toda lo femenina que debería de ser o tal. Eta batzuetan behartu zure burua femenina egotea eta ez neon komoda hor, ez neon komoda ere ez oso maskulina”.

Arrazoi horregatik, estetika eta modaren bitartez generoa performatzeko bere bideak ondorio hauek izan ditu:

“Uste det pasa ditutela fase asko gauzak saiatzen. Azkenean enkajutzen saiatzen, sartu behar det rol hauetan, Bershka⁷ jun eta horko erropa, ba ez nintzen identifikatua sentitzen horrekin. Ikusten naiz mozarrotuta bezela. Gañea kriston presiyua sentitzen da beti hor ze potola zea, eta potola berdin gaixki. O sea, no aceptado, potola egotea da lo peor que te puede pasar como mujer. O sea, edozer gauza ondo, baño gorda... buf! Eta klaro horrekin hasten zea eta azkenian hortan zare pentsatzen egun osua. Eta hori da ere bai parte de emakume izatiana”.

Gorputz-irudi ideala loditasun-argaltasun binomioaren aterkipean egoteaz gain, feminitatearekin eta genero-rolarekin ere estu lotua dagoenez, ideala betetzearen presio bide zien mekanismoak berdinak dira. Baita parametro hauetan ez sartzearen ondoreza ere. Anek honela kontatzen digu:

“Nik amakin euki det presio hori ez? Nezkan bi lehengusiña karo beti oso femininak izan diala eta nere ama beti joe, ‘zeba ez dezu beraiek bezala iten? Zeba etzea beraiek bezela jazten? Beaiiek bezela makillatzen? Beaiiek bezela ilea konpontzen?’. Zure identidadia dudan jartzen ez? Ze enkajatu in behar dezu nonbait eta puede ser nere barrun zerbait gaizki zeolan sentsazioa, zeba ez nun enkajutzen edo...”.

Atxikitzen zaigun genero-identitatearekin puskatzen saiatzeak edo bide horretan egoteak zigor soziala eta mespretxua dakartza askotan (Esteban, 2016a: 96) eta horrela, emakumeen jokabideak mugatzen ditu (Bullen eta Díez, 2016: 71). Bizitza osorik eta modu atseginean garatu ahal izatea ere oztopatzen

⁷ Bershka Inditex multinazionalaren barruan dagoen arropa marka bat da. Euskal Herrian hainbat denda ditu eta modaren joerak markatzen dituen diseinuak sortzen ditu. Gehiago jakiteko, ikus: <https://www.inditex.com/itxcomweb/es/marcas#bershka>

du. Gure gizarteak emakumei toki konkretu eta eginkizun sozial bat esleitu die, eta beren osasun mentalaren zein egonkortasunaren berme gisa identifikatua izan da (Burin et al. 1990: 84). Horrenbestez, norbere uste eta desiren baitako gorputz-adierazpenak publikoki agertu nahi izateak eta bueltan arbuioa jasotzeak, barne tentsio eta gatazkak sortu ahal ditu. Maialenek horrela adierazten du:

“Hurbiltzen da uda eta ya nau urduri moduen. Beti izen naz emakume bat ez dana depilau eta gustaten jata bebai [ez depilatzea], bueno, enaz konsideratzen bez guztiz femenina ez. Naz pertsona bastante basta, o sea gizarteak in dauen ideia hortatik bai urruntzen nazela, baina urruntzen nazenien bai beti jaso izan dodaz en plan kritikak etxien, ‘zelan al zaz jun sobako hoiekin?’ eta horrelakoak. Nire ustez azkenien da erreza depilatzea eta ez entzun behar izatea jendeak esaten dauena ez depilatzea baino, en sí gauza da kontrakua ez? O sea ez arduratzia uliengan...”.

Familian edo gizartean erdeinua jasotzeaz gain, lan-eremuan ere ondorio larriagoak bizitzera arriskatzen dira genero-rolari men egiten ez dioten emakumeak:

“Saiatu ginen biok [bikote ohia eta bera] lana iten zinean baino klaro emakume bezela, es complicado... Eukitzen nitun diskursiyo asko ze beti dudan jartzeizue, aunke zuk bakizu ze hai zean iten, lan iten hai zea ondo, ez dezu ezer gaizki in eta beti kuestionau ingoizue, trataukoizue gutxio bezela. Euki nun akoso sexual arazo batzuk ebai, zuzendariak direktamente oheratzeko eskatu zian telefono bidez eta ezetz esan nion. Orduan hasi zan esaten que nik nere lana oso gaizki iten nula eta nose qué. Jendiak esperoko dulako zerbait gehio zuregandik emakume bat zarelako y porque se pueden aprovechar de ti básicamente”. (Ane)

Argi geratu den bezala, baina orokortzeko modu gisara, gorputz-irudi ideala eta argaltasuna, genero femeninoaren nahitaezko ezaugarri bezala ulertuak, emakumeen bizitzetan izugarritzko presioa sortzen du eta esparru

guztietan ematen da: “Jasotzen nuen eskolan, ligatzerakoan, baina etxean ere jasotzen nuen, dena batera”. (Lorea)

Emakumeon ondoeza, honenbestez, arauarekiko atxikimenduak, bere egunerokotasunean, sortzen du (Burin et al. 1990: 107). Ondoeza medio, geure gorputzak gorrotatzera iristen gara; autonomia, ekintzarako gaitasuna eta aldaketarako erresistentzia mekanismoak martxan jartzea zailtzen duen eta biolentziak jasateko arriskuan jartzen gaituen ondoeza.

“Gorputzarekin harremana siempre has ido como ahh [atasko edo gorrotoari lotutako onomatopeia], como nik uste dut oso erasoetatik eta como oso patriarkatuaren digeritzeko modua, como odiar mi cuerpo y luego odiarme a otros niveles... rollo me odio a mi misma, no creo que nadie me ma va a querer”. (Irati)

6.2.- Desplazamenduak gako bezala

*Eta ohartu nintzen orri zuri batek
mila hitzek baino indar gehiago duela
sortzera bultzatzen baitu horrek.
Eta ohartu nintzen beldurra nion hura
zerbaiten hasiera izan zitekeela.*

(Liher eta MICE)⁸

Esan dut dagoeneko: emanda etorri zaizkigun testuinguruetatik sinbolikoki edo fisikoki lekualdatzeak garrantzia du gorputzarekiko bizipena

⁸ Liher eta MICE abeslarien arteko kolaborazioan eginiko “Orri zuri batek” kantua, Spotify plataforman <https://open.spotify.com/track/1Vl4aZWfT7ZKaH8wIWlHrP?si=483e5886512a4083> edo Youtuben <https://www.youtube.com/watch?v=cJc1oA19SU> eskuragarri.

eta pertzepzioa aldatu ahal izateko. Kasu askotan, inguru zaharrekiko apurketa beharrezkoa da harreman berriak esperimentatu eta begirada ezberdinen erreferentziak lortu ahal izateko (Esteban et al. 2016). Egin ditudan elkarrizketetan baieztapen hau argi geratzen da, forma ezberdinak hartzen dituelarik. Maialenek adibidez, horrela bizi izan du:

“Girona izan zan nahiko garrantzitsua, o sea, nire bizitzako fase garrantzitsuenetariko bat izango zan Girona. Azkenien herri txiki batekua izanda eta betidanik X herrian egonda bizitzen ba gurasoekin ta, ba lo mitiko, ez? Juten zarela kanpora eta bapatien se te abre un mundo”.

Gorputz-irudiari eta genero-identitateari dagokienez, desplazamendu fisikoek, batez ere baina ez bakarrik, generoa performatzeko modu berriak (Esteban et al. 2016) praktikara eramatea erraztu dezakete eta horrek, nahitaez, identitatea berrikustea. Gakoa, Maialenen ustez, “zerotik hasteko” aukera izatea da eta baita leku berrian jarrera kritikoa duen talderen batekin topatzea ere:

“Eta lehenengo aldiz be bai iten dozuz lagunak, igual bai zu ere pertsonalidade helduago bategaz, o sea, nik dekotezen lagunak nire herrian die ba txikitakoak eta ezagutzen doztie txikitatik. Eta zoiez leku berri batera eta ezagutzen dabe gaur egungo Maialen hori, eztaue ezagutzen aurretikoa. Bertan eduki naben zirkulo soziala be bai izan zan oso kritikua, izan zan oso... emplan no sé, como vestir identidade bategaz eta, definitzen nire pertsona be bai, igual aurretik garrantzia emoten enien gauzei garrantzia emoten eta bai, izan nintzen konszienteago, no sé, nire identidadearen inguruan”. (Maialen)

Maialenen kasuan ikusten den bezala, identitatea berreraikitzeke berebiziko garrantzia izan du testuinguru lagungarri batekin topatzeak. Testuinguru horiek mesedegarriak dira toki horietako ideologia inplizituengatik (edo esplizituengatik), batez ere balio eta errepresentazio zehatz batzuk dituztelako (Esteban, 2013: 251). Iratiren ibilbidea, eraso sexista larria jasan zuena, oso argigarria da ideia honen adibide bezala, izan ere,

emakume feministaz osatutako etxebizitza komunitario batean bizitzen egon zen urte batzuez:

“Han bizitzea ere bastante hito, aldatzea tokiz, kontestuz eta ba bereziki bloke feminista batean bizitzea, bai bai. Hor izan zen ulertu nituela gauza asko ere bai eta ordutik uste dut euki dudala feminismoa konstante, eta erasoaren osteko prozesua ere izan dela prozesu bat begirada feminista batetik. Izan zela la primavera, dena emakumeak, joan nintzen como (arnas sakona) eta hor izan zen kontzientzia hartzea, sanazioa, beste harreman eredu batzuk, beste konbibilitate mota bat, hor ikasi nuen pilo bat, hor bihurtu nintzen super bollera ‘no me ralléis hombres, por favor’ (barreak). Eta bai, hor izan zen nire bizitzako urterik zoriontsuena, en contraste”.

Sexualitatearen gaia aurrerago landuko bada ere, aipagarria da Maialen eta Iratiren kasuan lekualdatze fisikoek izan duten adierazgarritasuna sexualitatea modu ezberdin batean bizi ahal izateko:

“Sexualidadean bai lagundu zoztela deskubritzen, o sea, bertara jua nintzan diciendo que era hetero [sexual] eta bat-batean buelta nintzen ta decia que era bisexual. Gauzia da nire herrian beti eduki nabela zirkulo oso hetero[sexual]a, por así decirlo. O sea, nire kuadrillan denak identifikatzen ziren heterosexualitateagaz eta bapatien hori, jun nintzen hara eta ikusi neban nire zirkuloan danak ziela bollera, eta ni ‘¿pero que es esto?’ (barreak). Eta eizozten benetan replanteatzia eta benetan pentsatzea, hau izan da gustoko dotena edo benetan gustaten jatez bi generoak edo zer? Ta hori ez zan pasau adibidez ba hori Gironan egon arte ta egon arte benetan zirkulo baten zana, ba oso anitza sexualidadearekiko. Zentzu honetan, emon notzela buelta mordo bat generoaren asunto honeri”. (Maialen)

Baita harreman sexu-afektiboak lehen kontaktua izateko ere:

“Oso aldaketa handiya izan zan neretzako, hor [unibertsitatera joan zenean] euki nun nire lehenengo mutila [bikotea] izan zana, aldaketa bat... gaztea nintzan eta neretzako lehenengo mutila izan zan eta hori izan zan oso aldaketa handi bat”. (Ane)

Taldeak erreferentzia izan daitezkeen bezala, esparru berri horietan ezagututako pertsona zehatz batzuen erreferentzialtasuna ere gakoa izan daiteke, kasu honetan unibertsitateko irakasle batek ireki zizkion atea feminismora:

“Unibertsitatean eduki genuen asignatura bat gizartearen antolaketaren inguruan eta horrelako soziologia moduko bat eta gaur egun gizartean dauden problematika batzuk, hor hasi zen... Heteropatriarkatua eta agertu zen, hitz hori, eta hasi nintzen familiarizatzen horrekin. Hor ya fuerte eman zidan feminismoak (barreak), ya full, a mí el feminismo me abdujo mucho. Hirugarren mailan izan genuen asignatura bat eta hor ere egiten zuten testuen aukeraketa, artistena... zen hautu argi bat eta feminismoa zegoen errotuta asignatura horretan guztiz. Hor hasi nintzen interes gehiago izaten eta asignatura horretan ere ba gorputzarekin lotutako ariketa batzuk ere genituen, ni animatu nintzen performance batzuk egiten klasean eta niretzako izan zen super garrantzitsua”. (Lorea)

Gainera, aipatzekoa da lekualdatze fisikoek, alternatibak eskaintzeaz gain, bizitza-eredu berri batera irekitzeko aukera ere sortu ahal dutela. Aneren kasuan, emakume izateko modu berri bat praktikan jarri ahal izan du, independenteagoa, ekonomikoki autonomoagoa eta honenbestez, ustez emakumeen ezaugarri natural diren mendekotasun eta otzantasunaren berezgarrietatik at:

“Hori izan zan nire bigarrenengo fasea esango nuke, dala Bilbon bizitzen hasi nintzenen 17-18 urterekin. Bilbon hasi zen independentzia bat, banijuan 17 urte gurasuan etxean bizitzen eta bat-baten bakarrik bizi naiz, pisu batean, unibertsitate batean... Gainera nik nere burua zaindu

behar nun 24 ordu eta bapatian bizitzako responsabilidade guzti hoiiek. Gainera ni lanian hasi nintzen, nire lehenengo lana, iten nula goizetan unibertsitatea jun aurretikan umiak hartu etxetikan eta eskolara eramán, gauza sinple bat baina bueno, ba hori, aldaketa handi bat. Gero zine-eskola bukatu nun eta Londresea jun nintzen bizitzea eta hori izan zen beste puntu handi bat aldatzeko”.

Antsietate-gertakariak izanak zituen Anek eta Londresera iritsi berritan, beldurrak medio, krisian sartu zen. Hala ere, egoera horri aurre egin ahal izatea beragan konfiantza handiagoa lortzeko bide argia izan dela dio:

“Iritsi nintzan Londresea dena lotuta, baino arazo bat auki giñun ya alkilatu giñun lehenengo gelakin. Eta hori dala ta pasa nintzan nere bizitzako antsietate atake handiyena eukitzea eta enion buelta ematen. Zaila izan zan ze bildurra nekan nere ansiedadiana, azkenian ansiedadia dakat eta eukitzen det, momentu hortan oso modu potentian ataera zan. Hori aldaketa potente bat izan zan neretzat, hara jutia, ezer gabe...baño azkenian nere bizitzan aldaketa handi bat suposatu zun, herrialde ezberdin bat, hizkuntza ezberdin baten eta azkenian adaptaziyua, ze ez nekan inor ezaguna eta zuk in behar dezu dana. Supervivencia total, eta hor pilo bat ikasi nun. Momentuan sentitzen nun ez neola ezer iten eta oain ikusten det gauza pillobat in nitula ez? Lana bilatu, ikasi, etxea billau... ba gauza pillo bat ez ziala batere errexak izan. Reto handi bat izan zan neretzako eta aurrea eramán nun. Gauza pilo bat lortu nitun enula pentsatzen gai izango nintzala”.

Bizi garen mundu globalizatuan sare sozial birtualek duten presentzia eta adierazgarritasuna ikaragarria da. Nire buruari galdetzen diot ea horiek, nolabait, lekualdatze sinboliko bat eskaini ahal diguten, komunitate berri baten parte izatea baimendu dezaketelako, nahiz eta birtuala izan, eta askotan inguru hurbilean ez ditugun erreferentzia berriak eskuratzea ahalbidetzen dutelako. Erreferentzia alternatiboak izatea, errealak edo fikziozkoak izanda, funtsezkoa da ideologia menderatzaileekiko iritzi eta jarrera kritikoak izateko (Esteban,

2016b:236) eta zentzu honetan, aipatutako sare sozialek paper nabarmena dute gizarte garaikidean. Anek eta Maialenek elkarrizketan zehar hainbat aipamen egin dizkiete Instagrameko kontu eta Interneteko blog ezberdinei, baina Lorearen kontakizunari bi arrazoirengatik adierazgarria dela deritzot. Lehenengoa orain arte aipatutakoagatik eta bigarrena, Lorearen kasuan lodi-aktibismoaren berri sareen bidez jaso zuelako eta oinarria sortzen joan ostean, gaur egun bizi den hirian lodi-aktibismoa lantzen duen talde baten parte delako:

“Eta hor ere uste dut oso garrantzitsua izan zela... feminismoa agertu zen baina segituan agertu zen lodi-aktibismoa. Eta gogoratzen dut ni ya nengoela unibertsitateko asignatura honetan run-run horrekin de gorputza, feminismoa eta ez dakit zer eta praktika artistikoekin lotuta. Eta hor ere momentu batean gorputzari buruz hasi nintzen testu batzuk irakurtzen eta gogoratzen dut egun batean *weloversize*⁹ bloga ezagutu nuela, como body positive eta antzekoak... orain beraien diskurtsoarekin ez nago oso ados, baina momentu horretan agertu zen lehenengo body positive kontzeptua eta aukera bat ireki zen, ez? Janzteko lodi bezala nahi duzun bezala, eta apur bat askatzeko eta orduan hori izan zen lehenengo deskubrimendua.

Eta gero daukat buruan markatuta el día que yo en facebook seguí a *stop gordofobia*¹⁰ eta izan zen ‘¿pero, esto qué es???’ yo flipando ‘Ai ama zer da

⁹ Weloversize bloga 2013.urtean jaio zen, Elena Devesa eta Rebeca Gómez Poloren eskutik. Helburu nagusia, emakumeentzako neurri handiko arropa erakargarria aurkitzen laguntzea zuen. Gaur egun 490.000 jarraitzaile ditu soilik Instagrameko kontuan. Gehiago jakiteko ikus: <https://weloversize.com/>

¹⁰ Stop gordofobia 2011.urtean Carlos Savoie eta Magdalena Piñeyrok sortutako Facebook sare sozialeko taldea da. 9 urtez sare sozialean lodifobia salatzen ibili ostean, 2022ko abuztuaren 1ean, talde administratiboak online formatuari itxiera ematearen erabakia plazaratu zuen. Une

hau? ¿Como es posible??'. O sea, en plan, faszinatuta. Eta hasi nintzen gauzak irakurtzen eta tipo '¡Joder! es que se autoreclaman gordas, ¿no? wow super potente!' Eta gogoratzen dut eman niola 'like' eta nengoen pentsatzen 'zer pentsatuko du jendeak de que yo esté dando like a ésto, ¿sabes?', eta o sea hori daukat hor markatuta, momentu hori de como gogo horiek emateko like eta deskubritzeko zer zen hori eta aldi berean en plan 'aber aber, que la gente se va a dar cuenta de que soy gorda, ¿no?' (barreak)."

Sare sozial birtualak askotan derrigorrez eredu txar bezala ikusten ditugu eta albo-kalteak asko eta gogorak dira. Anek argi dauka: "Ansiedade asko sortzen da sare sozialetan eta oso selektiba izan behar zea ze jende jarraitzezun". Baina aldi berean, beste inon ikusten ez zituen gorputz mota ezberdinak ikusi ahal izateko eta bere gorputzari zilegitasun gehiago emateko aukera ere izan da:

"Beitu, gaur egun, gauza on eta txarra dakan gauza bat da sare sozialak. Txarra igual ba inpaktu txar asko daukatela baina baitare hor hasi nintzan ikusten ba hori, emakume ez normatibak beaien gorputza erakusten, beaien bizitza eta pisuan inguruan hitzeiten eta nola pues ez zala txarra. Erakusten ebai gorpuzkera ezberdin asko eta emakume desberdin pillo bat. Libremente hortaz hitzeten due, dietan kulturai buruz hitzeiten, ze gezur handi dan eta gauza guzti hoiiek eta horrek ere lagundu zian nei konfiatzen nere buruanga, esatia beitu enao bakarrik krisi hontan, por asi decirlo. Joe ba piskta gehio onartzen nere burua, ze beak ahal badu, nike bai, zeba ez?".

horretan, Facebooken 106.632 jarraitzaile zituen eta Instagramen 150.000. Gehiago jakiteko ikus: <https://www.facebook.com/stopgordofobia>

Gizartearen botere menderatzaileekiko jarrera kritikoa duten talde, pertsona edo sare sozialek duten garrantzia ikusi badugu ere, Irati eta Itsasoren ibilbideek pentsarazi didatena aipatu nahiko nuke. Bien kasuan lekualdaketa fisikoak egon dira, batez ere Itsasoren bizitzan, bien kasuan izan dira erabakigarriak leku aldatze hauek, baina beti ez da izan jarrera edo praktika alternatiboak topatu dituztelako, kasu batzuetan kontrakoagatik baizik. Biek, desplazamendu bat dela medio, botere patriarkalaren gordintasunak gogor jo dien gertaerak bizi izan dituzte eta hauek izan dira gorputzarekiko bizipen eta pertzepzioak aldatzera eraman dituena, besteak beste.

Itsasoren kasuan, egin dituen lekualdatzen fisikoetan, kasu honetan herrialde aldaketak, feminismoarekiko erreferentzia zuzenik ez du jaso. Egonaldi hauek bere herrialdean zuzenean ikusi ez dituen opresioaren aurpegi ezberdinak ikustera eraman du eta hauek paraleloki egiten hari zen lanketa kritikoarekin uztartu dituelako sortu izan ditu alternatiba berriak. Iratik bestalde, herrialde aldaketa batean jasan zuen eraso sexista bortitz baten ondotik egin izan ditu hausnarketa berriak, bere hitzetan:

“Nengoenean emakumeen komunitatean bizitzen egin nuen bidai bat eta erasotu ninduten bidai horretan eta gero egon naiz urte batzuk bastante gaizki, pare bat urte bien jodida. Eukin nuen urte bat eta erdi estres post traumatikoa, orduan, komunitatean egotea horrelako historia batekin bastante gogorra zen niretzat. Emakumeekin bizitzea zen la puta clave, lehenengo hilabeteak batez ere, izan zen nire prozesua konpartitzea guztiz, neukan kriston babesa, ez nengoen bakarrik, hau da, guztion borroka zen. Hilabete batzuetan izan zen la clave eta gero ya momentu batetik aurrera sentitzen nintzen piska bat karga, ez nintzela erritmoetara iristen, aparte pasa nuen oso gaizki, nire logelak me saturaba, hasi nintzen lanean eta ezin nuen komunitate bat sostengatu, lan egin, prozesuarekin jarraitu... eta erabaki nuen bakarrik bizitzera joatea. Eta hor puez hasi nintzen osasun mentalaren gaia lantzen, como kontzientzia hartzen nire osasun mentala aldatu dela luzerako, hasi nintzen ezagutzen nire-ni berri bat”.

Dena dela ere, bien kasuan ondoezari aurre egiteko modua izan dira desplazamenduak, nahiz eta bidea konplexuagoa izan den eta erreferentziak ez diren lehenengo kolpean onuragarriak izan. Feminismoarekiko atxikimendua eta momentu batean testuinguru berri batera aldaketa egitea ere beharrezkoa izan dira lanketa ezberdinak egin ahal izateko.

Aldaketara bultzatzen duten lekualdatzeak sinbolikoak ere izan daitezke eta, elkarrizketetan gutxiago agertu badira ere, aipatuak izatea merezi dutela uste dut, estrategia bilakatu diren heinean. Loreak dio batxilergoan klase aldaketa izan zuenean, jende ezberdinarekin nahastu zela eta horiek bera begirune handiagoarekin tratatzen zutelako: “hasi nintzen ni izaten”. Odolezko familian heriotza eta jaiotzekin gertatu diren posizio aldaketak Anerengan “punto de inflexión” izan dira, bere hitzetan. Lehenengoa, amonaren heriotza izan zen eta bigarrena, bera ama biologiko izatea. Bi esperientziak sinbolikoki tokiz aldatu dutela uste du; amonaren heriotzaren kasuan, familiako pertsona zaharrenak desagertzeagatik familia egituran bere kokalekuaren eta generorolaren inguruan hausnartzera eramán du. Semearen jaiotzarekin, berriz, gorputz-irudi idealaren kritika indartu du eta erabaki berriak hartu ditu: arropa “femeninoa” erabili beharrean arropa eroso erabili, elikadurarekin zuen auto-kontrola gutxitu eta askeago izan jan nahi duena aukeratzeko, eta semearen begietan eredu izateko bikinian jantzeko eta gorputza ez ezkutatzeko hautua egin, adibidez.

Toki aldaketa hauek askotan ez dira nahitasunetik abiatutakoak izaten, bihozkada batengatik, 18 urte egin eta familiak unibertsitatera joatea “derrigortu” dituztelako edo barruko har batek jota emandako pausoak ere izan daitezke. Itsasoren kasua adibide ona da hau azaltzeko. Azken 15 urtetan bizitoki ezberdinak izan ditu, Euskal Herrian eta hemendik kanpo, tarteka jaioterrian ere egonaldiak egin dituelarik. Joan-etorri guztiak izan dira aldaketa eta erresistentzia-praktikak martxan jartzeko gakoak, baina hortaz orain konturatu dela dio. Estebanek (2013) *Antropología del Cuerpo* liburuan erakusten dituen gorputz-ibilbide batzuekin antzekotasun handia topatu diot kasu honi. Kultura ezberdinetan egindako egonaldiek erreferentzia oso ezberdinak

jasotzea ahalbidetu diote Itsasori eta aldi berean, bere burua beste modu batera hauteman eta eraikitzeko aukera ere eman diote; bere hitzetan “oso askatzailea izan da herrialde ezberdinetan bizitzea”. Bestalde, urruntasunari esker, askeago sentitu da estetika, jarrera, lanbide eta harreman ezberdinak bizi eta frogatzeko, horien artean, “emakumez mozerrotzeko” (Esteban, 2013: 191) modu ezberdinekin saiakerak egin eta generoaren mugekin jolasteko. Estebanen planteamenduan oinarrituta, esan dezakegu jatorrizko testuingurutik etengabeko “errotze/deserrotze/errotze” jarraituak beste gorputz bat bilakatzera eramanez duela, inguru hurbilari erabat uko egin gabe. Gainera, noizik eta behin jaioterrian egonaldiak egitea funtsezkoa izan da berarentzat, kanpoan eginiko frogak kultura propioan nola uztartzen diren ikusi eta erabaki berriak hartzeko. Itsasok joan-etorriak “jolas” bezala izendatzen ditu eta identitatea berreraikitzeko berebizikoak izan direla dio.

Beste kasu batzuetan, tokialdaketak jada zerbaitekiko kritikoa izategatik hautazkoak izaten dira, Iratiren kasuan bezala:

“Momentu honetan X hirian bizi naiz baina egon da etapa oso garrantzitsu bat nire bizitzan izan dena komunitateko elkarbizitza, egin dudala apustu bat bizitza komunitario batengatik, ba baloreetan bizitzeko apustu bat, pixkat. O sea, gehiago baneukan jakinmina... una inquietud de cambiar las cosas pero muy en crudo eta sartu nintzen hor. Sartu nintzen gehiago arlo afektiboa, komunitarioa ez dakit zer... Eta diot kriston estima ze hor garatu dut pentsatzeko modu bat, hor garatu dut kritikotasun bat, hor aukin ditut prozesu totxo asko. Orduan uste dut dela nire identitatearen oso gakoa, nire helduaroaren garapena hor sentitzen dut”.

Desplazamendua, beraz, aldaketak emateko, agentziaz ohartzeko eta erresistentzia-praktikak martxan jartzeko gakoa izan daitekeela ikusi dugu.

Baina, alderantziz ere izan daiteke, hau da, espazioz mugitzea bera bat ondoez edo ezinegon bati erantzuteko estrategia ere izan daiteke, alegia, jatorrizko testuinguru eta dinamikekin apurtzeko hautazko modua. Hori

ilustratzeko, Iratik, jasan zuen eraso sexualaren ostean, emakumeek osatutako etxebizitza-komunitatean bizi zela eta inguru horretan (militantzia erritmoen exigentziak zirela medio), erasoagatik zuen ondoeza bideratzea ezinezkoa egiten zitzaiola, esaten duena ekarri nahiko nuke:

“Eta izan zen ‘a tomar por culo! Uzten dut lana, uzten dut etxea ¡y me voy a la playa, a Mallorca!’. Eta hori izan zen nahiko garrantzitsua ere bai, izan zen irtetea espazio militanteetatik, espazio feministetatik... gai hau esplizituki lantzen zen leku guztietatik eta testuinguru berri batean jartzea guztiz. Izan zen oso empoderantea, ‘joder, gai naiz eraikitzeko edozein lekutan eta edozein jenderekin!’. Hilabete horrek izan dira beharrezkoak nire identitatea deslotzeko erasoarengandik... izan zen como ezagutzea jende berria, ikustea que a la gente le caigo bien, que le gusta de mi esto y lo otro... eta bai, Mallorcara joatea, etxez aldatzea eta horrelako aldaketak etorri zaizkit ondo ba joateko berreskuratzen nire identitatea zeren eta galdu dut guztiz.”

Atal hau amaitzeko esango nuke, denen kasuan, desplazamendu horietatik eratorritako aldaketak inprimituak geratu direla euren bizitzetan, lekualdaketak egiteko arrazoiak, intentzioak eta moduak oso ezberdinak izan badira ere. Identitatea berreraikitze beharrezkoak izan direnez, esan dezakegu testuinguru zehatz batzuetan bizitako dinamika eta esperientziak funtsezkoak direla aldaketa pertsonalerako (Esteban, 2013: 251). Esperientzia horiek feminismoarekin lotuta egon badira errazagoa izan da genero-identitate eta gorputz-irudi idealarekiko kritikotasuna garatzea zein eraldaketarako mekanismoak martxan jartzea. Hala ere, ibilbide batzuetan ikusi dugun bezala, ez da beti beharrezkoa izan destinoko lekua gai hauekiko kritikoagoa izatea, baina bai tokiz mugitzen diren pertsonak lehendik feminismoaren irakurketa eta atxikimendua izatea. Denek zuten jada kontzientzia kritiko feminista maila bat, baina lekuz mugitzeak edo norbere familia/herri/lagunartearengandik aldentzeak kontzientzia indartzeko balio izan du. Atxikimendu hau irakurketa kolektiboetatik datorren heinean, norbanakoek egiten dituzten aldaketak ere kolektibora bideratuta daude.

6.3.- Feminismoa erresistentzia modura

*Kemenez bete nituen arimaren ubeldurak
ahantzuran galdutako gorputz gogoaren deia.
Bidean noa ta aurreruntz
pausoa ematen jarraitzen dut.*

(Napoka Iria)¹¹

Nire lanaren protagonisten bizipenetan, argi geratu da feminismoaren papera gorputz-irudi idealarekiko aldaketak emateko oinarri sendoa dela. Ziurrenik posible izango da atxikimendu hori gabe aurkaritza-praktikak burutzea, baina elkarrizketatu ditudan emakume guzti-guztien kasuan behintzat, feminismoaren berri izatea (teorikoki zein praktikoki) gakoa izan da agentziaz ohartzeko eta erresistentzia garatu ahal izateko. Aldaketa-prozesuak ez dira beti kontzienteak edo hautazkoak izan, baina denek konpartitzen duten ezaugarria “kontzientiaren hazkundera” izan da (Esteban, 2013: 248) eta, esan bezala, hazkuntzarako funtsezkoak izan dira jatorrizko testuinguruekiko lekualdatzeak.

Baina, zer du feminismoak, horrelako garrantzia izateko? Galdera horri erantzun baino lehen, ikerketa honetako emakumeentzat feminismoa zer den edo feminismora nola iritsi ziren zehaztea garrantzitsua da, nondik abiatzen naizen jakiteko.

Posible da lehenengo gure bizipen pertsonalen bitartez egiaztatu izana bidegabekeriak (Ahmed, 2018) eta ondoren honen aurrean erreakzionatu izana.

¹¹ Napoka Iria taldearen “Ibiltzeko gertu” kantua, Spotify plataforman <https://open.spotify.com/track/70FzInXE5NnS51q6T9qSJE?si=db7e271c05fe4e6f> edo Youtuben https://www.youtube.com/watch?v=Rp4yeaD2_u4 eskuragarri.

Hortaz, aldagai nagusiak bizipen pertsonalak, kritikotasunak emandako kontzientzia eta hauen aurrean posizionatzeko borondatea izan ohi dira (hooks, 2018).

“Nire gorputzarekin nuen trataera, uf... ez zen izan instantaneamente ‘¡uy ya estoy bien!’ Baina bai izan zen zerbait de ‘¡ostia, espera un momento!’ La concepción de diferentes cuerpos, hay una norma, esto no es solo mío... begiratu ingurura eta ikusi jendea dagoela zu bezala, sentitzen duela hau. Como gorputz motetatik haratago, sentitzen naiz horrela nire gorputza delako horrelakoa. Apurtu zidan eta feminismoak balio izan zuen ulertzeko, lehenengo pausua”. (Irati)

Bizi dugun mundua sexista eta patriarkala denez, emakumeok ere pentsamendu eta balio sexistetan sinesteko heziak izan gara (hooks, 2018) eta horrek ere ondoeza sortzen du. Feminismoa orduan, arnagune bilakatzen da, ondoeza ulertzeko balio duena:

“Etengabe beste emakume batzuekin konparatzen oroitzen dut nire burua, ezin dut momentu bat aislatu, konstante bat izan delako nire bizitzan. Aldamenekoak beti ikusten nituen dibertigarriago, fisikoki erakargarriago, jarreraz atseginoago, buruz argiago eta militantzia esparruetan, kontzienteago eta konprometituago. Beti behatzen nuen nola gurutzatzen zituzten hankak, ze ile orrazkera zeramaten, zer jaten zuten, gorputzeko ze forma zituzten, nola ligatzen zuten... Beste emakumeak ziren feminitateaz espero zenaren ondorioa eta ni, asko saiatu arren, ez nuena lortzen eta gainera horrekin eroso sentitzen ez nintzena. Gaur egun ez da horrela eta kontziente naiz feminismoak asko lagundu didala bakeak egiten, nire gorputzarekin eta jarrerarekin, baita feminitatearekin ere”. (Itsaso)

Patriarkatua irauli ahal izateko, gu geu aldatzeko hautua egin eta berau aldatu behar dugunaren kontzientzia hartu behar da (hooks, 2018). Hainbateko diote feminismoa barrura begirakoa eta kanpora begirakoa dela, indibiduo-kolektibo arteko jolasa etengabea, bien beharra. Feminismoa eta feminista izatea

botere posizioetan daudenek sortzen dituzten mendekotasun ezberdinei aurre egiteko erresistentziarekin lotuta daude Lorearen ustez:

“Feminismoa ere da erresistentzia hori eta begirada erresistente hori. Zalantzan jartzen duena, konbatiboa dena, ba hori eramatea esparru guztietara. Konbatitzen ditu sistema honen biolentziak, izen abizen guztiekin, biolentziei aurre egiteko jarrera bat, jarrera, mugimendu... Dena, ez? Bai maila pertsonalean dagoena eta baita maila publikoago baten”.

Gainera, Aneren ustez, norberak egunerokoan praktikatu beharreko jarrera bat da, ingurukoekin eta norberarekin:

“Feminista izatea ere hori da, jendeai pentsaraztea, netzako hori da feminista izatea, zu zauden tokitikan ahal dezuna itia, egunerokotasuneko jarreratik.”

Ruizi (2016) segika, subjektibotasunaren eraikuntzan praktikak duen garrantzia agerian uzten dute aurreko kontakizunek, Ortnerren (2006) ideiak jarraituz, “praktiken bidez, munduak subjektuak sortzen ditu eta subjektuek mundua sortzen dute (...) Kulturak pertsonak aktore sozial bezala eraikitzen ditu” eta aktore sozial hauek “sortu dituen kultura erreproduzitzen edota eraldatzen dute –batzuk, normalean–” (Ruiz, 2016: 162). Genital batzuen arabera, kulturak emakume bezala eraiki ditu elkarrizketatuak eta horri atxikitzen zaion genero femeninoa erreproduzitzen dute moduren batean edo bestean, arropa zehatz batzuk erabiltzen edo harreman heterosexualen praktikarekin, adibidez. Horrez gain, aurrerago zehaztuko dudana bezala, kultura bera eraldatzeko praktikak aurrera eramaten dituzte. Ortnerrek (2006) praktika hauek feminismoarekin lotzen ditu eta bere ustez, feminismoa “tresna erabilgarria izan daiteke boterea, dominazioa nahiz bereizkeria (bir)pentsatzeko, baita bestelako zapalketa-ardatzekin –etniarekin edo gizarte-klasearekin, kasu– dituzten artikulazioak lantzeko ere” (Ruiz, 2016:163). Maialenen kontakizuna bide horretatik doa:

“Nire ustez emakume izatiek marketan dotzu gizartie zelan ikusten dozun eta azkenien objektu zapaldu moduen iten dotzu be bai beste zapalkuntza danak ikustea. Bueno, ba emakume izateak lagundu dozte gizartean dauzen desberdintasun hoiek identifikatzen laguntzera.”
(Maialen)

Baina, mendekotasunezko bizipen propio eta kolektiboez kontzientzia hartzeko eta hauen aurka egiteko oinarria emateaz gain, zergatik da hain baliotsua feminismoa? Emakumeen ondoeza gatazkari lotzen du Burinek (1990) eta gatazkak beti egoera kontraesankorrak izaten dira, subjektuek modu kontzientean edo inkontzientean hautematen dituztenak. Modu inkontzientean bizituak badira eta gatazka sortzen duten terminoak ez badira ezagutzen, tentsioa eta antsietatea sortzen ditu (Burin et al. 1990:39-40). Arrazoiketa hau abiapuntu hartuta, esan nezake feminismoak emakumeen ondoezaren terminoak argitzen eta hauen kontzientzia hartzeko ekarpen izugarria egin duela eta honenbestez, emakumeek arnagune bat topatu dutela bertan eta ondoezari norabidea emateko oinarria izan dela:

“Nik deskubritzen dot lodifobia zer dan, o sea, kontzeptua existitzen dala, eta hor hasten naz forma emoten nire bizitzan pasa jaten denari eta hor hasten naz konturatzen, ostras eske hau ez da kasualdez pasa, baizik gizartean arau bat dagolako presio bat”. (Maialen)

Egiturezko biolentziek presente jarraitzen dute eta etengabe pairatzen ditugu, emakumeok zapalduak garen heinean. Zentzu honetan, feminismoa etengabe erreferentzia bezala izatea ere ondoezari aurre egiteko baliagarria da, menderakuntzaren oinarria eta horri alternatibak emateko mugimendua denez, zentzutasuna dakarrelako eta tentsioak sentitzen ditugunean feminismoa da norabidea ematen diguna.

“Edukitzen dodaz tenporada batzuk oso txarrak, jo ba presiño hori eta ahots hori dekotena ‘argaldu in bazaz’... Bueltatu iten jat edo iten dau berba altuau (barreak). Orduan hori isiltzeko bebai usteot garrantzitsua dala jarraitzea irakurtzen. Irakurtzen pertsona lodiak eta pasau jakien

gauzak, eukiten beti konstantemente kontzientzia hori, ze bestela jun ingo jata, eta badakit. Ta behin ya onartzezula ideia hori eta ideia hori presente dekozula, horrek nik usteot laguntzeozula zure prozesu bital horretan bebai eukitea gauza bat eramaten dotzuna a la cordura moduen". (Maialen)

Ondoezaren jatorria identifikatzeko garaian, norbanakoen bizipenak aintzat hartuz, prozesu kolektiboak garatzea ezinbestekoa izan da. Ondorioz, bizi garen kulturak emakumeak zapaltzeko dituen mekanismoek ondoeza sortzen dutela ikusi ahal izan dugu eta horrek emakumeen bizitzetan zentzua duela (Burin et al., 1990: 35) onartu dugu:

"Uste dut feminismoarekin topatu izanak eta aktibismo lodiarekin topatu izanak lagundu didala ni ere horrekin rekonziliatzen eta kokatzen loditasun horretan eta hortaz reappropriatzen nolabait, ez? Eta badaude hala ere momentu zailak edo biolentoak. Adibidez, ba duela gutxi joan nintzen medikuarengana txorrada batengatik eta egin zidan komentario lodifobiko bat. Esan nahi dut, biolentzia horrek jarraitzen du eta horrek igual uzten zaitu gaizki egun bat edo bi baina ere baditut erramintak ikusteko ni ez naizela arazoa, zerbait estrukturala dela nolabait esateko". (Lorea)

Aldi berean, irakurketa kolektiboak, emakumeak ahalduntzeko eta ondoeza sortzen duten eremu batzuekiko erabakiak hartzen hasteko, lagungarriak izan dira. Horrela dio Iratik, emakumez osatutako elkarbizitzan urte batzuez egon zenak:

"Egon naiz ezagutzen feminismoa, egon naiz enpoderatzen zentzu askotan eta hor egon zen kriston aldaketa, baina zegoen fondoko zerbait ez zela kontzientea, zela gorputzarekin harremana. Hor hasi nintzen definitzen asko ere bai, ordurarte izan naiz muy carne de cañón de estas dinamicas chungas. Uste dut, kontziente egin gabe baina hasi nintzen enpoderatzen asako, nahi dut beste harreman eredu bat, 'fuera esta peña de mi vida'". (Irati)

Kolektibitateak norbanakoa aldatzen du eta norbanakoak kolektiboa, etengabeko elkarrekintzan dauden bi indar dira, bata bestea elikatuz, mundua aldatzera bidertuak (Piñeyro, 2019: 171). Elkarrizketatu guztiek aipatu dute norbanako eta kolektiboaren arteko interakzioaren behar eta garrantzia feminismoaz hitz egin dutenean. Horrela adierazten du Loreak: “Asko lagundu didala pertsonalean eta asko laguntzeko daukana modu pertsonalean, baina mugimendu bezala eta kolektiboan ere bai”. Horregatik, espazio feminista kolektiboak sortzea ere beharrezkoa da, besteak beste, muturreko egoeretan berariazko sostengu izan ahal bait daitezke. Iratiren kontakizuna adierazgarria da zentzu honetan, jada feminismoari esker gorputzarekiko jarrera aldatzen hasi zen, baina jasan zuen sexu-eraso larriaren ondorioz zuen osasun mental zaugarrituari aurre egin ahal izateko, inguruan zituen harreman sare feministak gakoa izan bait ziren:

“Feminismoak lagundu dit bakeak egiten gauza askorekin nire barruan eta izan da prozesu bat, gehiago nire gorputzarekin, bai. Ez sentitzen hainbeste nazka nire buruarekiko, bai como a quererme. Baina baita izan da prozesu bat ba bueno, sin el feminismo nire prozesua, o sea chao, estaría muerta literal. Erasoren ostean teoria eta praktika feministak dira lo que me han salvado el culo”.

Ondozari aurre egiteko kolektibitatea palanka da, beraz. Gorputz-irudiaren idealari dagokionez, adibidez, pertsona soil batek ezin dio erraz aurre egin edertasunaren mandatuari, gizarte oso batek nazka eta itsustasuna nagusi diren gorputzetan, plazera eta edertasuna ikusi eta aldarrikatu ahal izatea norbanakoarentzat fruiturik emango ez lukeen gehiegizko ahalegina izango litzateke (Piñeyro, 2019:57-58). Halaber, mendeko posizioetan daudenek agentzia propioa eta euren proiektuak dituztenez (Ruiz, 2016:160), irakurketa zein espazio kolektiboak sortzen dira, kasu honetan feminismoaren barruan, baina lodi-aktibismoari lotua:

“Azken urteetan niretzako behar bat zen sare lodiak sortzea eta beste giro feminista batzuetan, nire lagun feminista eta militante feminista

direnekin. Gauza batzuetan ez gaude maila berdinean. Zuek zarete unas estupendas, amigas (barreak), no es lo mismo. Sortu dugun espazio hori sentitzen dut nahiko... gara talde bat txikia, gara nahiko ezberdinak, cada una viene de un sitio. Eta no sé. Erosoago sentitzen naiz". (Lorea)

Kultura eta menderakuntza-harremanak aldatzeko praktika feministak anitzak dira eta erresistentzia, aurkaritza edo erantzun mekaniko bat baino askoz ere gehiago da, "zalantzarik gabe, sortzailea bezain eraldatzailea baita" (Ruiz, 2016: 167). Testuingurua aldatzeko dugun agentziaz baliatuta praktikak aurrera eramateko nahitasuna osagai nagusia da eta "barne hartzen ditu bai egitasmoak bai eskemak, baita xedeak, jomugak eta intentzioak ere, idealak, desioak edota premiak bezalaxe. Oinarrizkoena da, Ortnerri jarraituta (2006), ekintzak helburu batzuen lorpenera bideratzen direla" (Ruiz, 2016: 164).

Sorkuntza erresistentean gorputza beti dago inplikaturik eta feminista izatea, munduan feminista gisa egotea den heinean, beste hainbat gauzen artean, ageriko gorputz-lanketa ere badakar (Muelas, 2015: 79). Hau da, gorputza generoa eta gizartea kontrolatzeko espazio pribilegiatua den bezala, erresistentzia bera gorputzetik proiektatu eta materia bilakatzen da (Esteban, 2016a: 99). Gorputz politikoak pertsonak, generoa eta harreman sozialak ulertzeko eta begiratzeko, zein munduarekin harremanak sortzeko eta berau ezagutzeko moduak biltzen ditu eta aldi berean, errealitatea aldatzea (edo saiatzea), horri aurre egitea zein erantzunak ematea suposatzen du (Muelas, 2015: 79). Gorputz-irudi idealari dagokionez, elkarrizketatu ditudan emakumeek, irizpide alternatiboak sartzen dituzte beren jokabide eta estetikan; horrela, agerian geratzen da estetikaren mandatu kulturaletikiko kritikoa izatearen eta norberaren jarrera errebisatzearen artean (Esteban, 2016a: 99) dagoen lotura:

"Uste dut nagoela definizio hori eraikitzen oraindik [zer den emakume izatea], nagoela momentuan onartu ditudala normatibitateak eskatzen dizkidan gauza batzuk eta ya como nagoela lasai, beste gauza batzuekin

ez, adibidez nire gorputzarekin ez, batzuetan uuff... baina depilazioa adibidez es un tema que ya me da igual, 'no me voy a depilar'". (Irati)

Ez depilatzea, erantzun eta erresistentzia sinboloa bihurtzen da (Esteban, 2016a:96), bi kasu antza "kontrakoetan" ikusi dezakegu hau. Bata Itsasoren bizipena, 15 urte inguru daramatzana depilatu gabe eta tabernan zerbitzari lanetan zebilenean etengabe ikusten zituen jendearen begiak harriduraz edo nazkaz bere besazpietara begira; berak hori jakinda, indarra sentitzen zuen, borroka-esparru bat bezala. Bestea, Maialenena, zeinak batzuetan ondoeza sentitzen duen depilatu gabe egoteagatik:

"Azkenien nire gorputzakin dekoten harremana be, beti da gorabeheratsua, enaz egongo bakien bizitza osuen. Eta igual momentu batzutan sentitzen naz indarrekin esateko 'ba beitu, berdin dosta jendeak ze esaten dostan, berdin dosta etxien zer entzun, enaz depilauko', baina eske beste batzutan, igual, jende berria ezagutzeran eta holan, sortzen dosta inseguridadia, 'ai ama aber ze esan bioztien zeozer!' eta horrek jartzeozta urduri". (Maialen)

Gorputzean, identitatea eta existentziarako baldintza materialez gain, agentzia ere badago, hau da, praktika indibidual eta kolektiboa (Esteban, 2009a: 2) eta honen isla da, adibidez, janzkerarekiko hartutako erabakiak:

"Desberdintasun bat edo hola aldaketa bat gorputz irudiagaz: janzkera. Izan da nahiko garrantzitsua, adibidez, ni beti izan naz arropa zabala janztekoa, beti gorputza ezkututzen ta holan, eta egixa da, azkeneko bi urtietan edo aldatu dala guztiz nire janzkera. Igual in doten moduen kritika hori, erabaki dotela ez depiletzie, bai erabakiot janztea gauza transparenteekin, erakustea nire gorputza, janztea gauza pegauak... ez eukitea lotsa nire gorputzarekiko. Erakutsi, nahiz eta hasiera baten horrek niri suposatu lotsa pasatzea adibidez. Azkenien izan behar zara indartsua, a lo bueno 'ba gaur jantziko naz holan'. Ta ez da gauza errez bat". (Maialen)

Inposatzen zaigun gorputz-irudian sartzen ez diren emakumeak modu honetan janztea iraultzailea da, gorputz lodiak adibidez, gizarte lodifobo batean, adornatua, estilizatua eta eder ikusi ezin daitekeela ulertzen da (Piñeyro, 2019: 119). Ondorioz, lodiek, antza denez, ez dute eskubiderik eder sentitzeko, ekitaldi baterako apaintzeko edo janzkerarekin arreta erakartzeko, hala nahi izanez gero (*Ibidem*: 120). Maialenek esan bezala, ezkutatu behar den gorputza dela ulertzen da eta ikusgarri bilakatzeak, identitatean ondorioak ditu:

“27 urte daramatzat ni janzten eta ya banoa dendak aurkitzen, zer gauza gustatzen zaizkidan, zer geratzen zaidan ondo, non sentitzen naizen eroso eta non ez... nik bai sentitzen dut aukera gehiago daudela, jantzi nahi badut praka motz batzuk edo, badaukadala aukera gehiago lehen baino. Horrek ere ebidentemente uste dut gorputz irudiarekin, autoperzepzioarekin eta norbere identitatearekin ere kriston zerikusia daukala ez? Nola janzten garen”. (Lorea)

hooksek (2018) moda eta arroparen inguruan egiten dituen hausnarketak oso argigarriak egiten zaizkit emakume hauek modaren bitartez gorputz-irudi idealari erresistentzia egin diotela jakitean. Moda sexistak dakartzan ondorio patologikoak, itxurarekiko obsesioak emakumeen bizitza arriskuan jartzen duela mahai gaineratu zuten hainbat feministak (hooks, 2018: 75) eta borroka horren ondorioz, emakumeek arropa erosoarekin, bularretako eta kortse gabe, zein arropa erosoarekin janztea lortu zen, gainera “emakumeok ederki ikasi genuen gure haragiak maitasuna eta mirespena merezi dituela bere horretan; ez da beharrezkoa deus ere eranstea” (*Ibidem*: 73). Edertasunaren presioak eta berau sortzen modak duen gidaritzza gogor kritikatzan du feminismoak, baina, hooksek diosku edertasunaren industria ehuneko ehunean parametro patriarkalek gidatua dela jabetu behar garela eta alternatibarik proposatu ezean, “emakumeek edertasunarekiko duten jaidura zorrozki gaitzesteak feminismoa ahulduko du” (*Ibidem*: 79). Beraz, bere proposamena feministak edertasunaren eta modaren industrian sartzea da, etengabeko iraultza iraunkorra bultzatu eta erabat aske izateko (*Ibidem*).

Feminismoa arnagune bat dela emakume guztiek adierazten duten bezala, mugimendu feministarekiko kritika eta tentsioak ere denek agertu dituzte. Esaterako, osasun mental zaurgarritua edo idealek sortutako ondoeza dela medio, emakume guztiei zaila egin zaie uneren batean militantzia esparruetan parte hartzea. Loreak adibidez, espazio militante “klasikoak” deitzen die eta honela dio:

“Uste dut beti izan ditudala gogoak militatzeko bai feminismoan eta bai lodifobian baina akojonatzen ninduen. Uste dut nahiko desberdina sentitzen nintzela, ere uste dut nire beldur propioak zirela”.

Lehenengo kapituluan ikusi bezala, ondoeza auto-pertzepzio txarrarekin eta pertsona bezala nahikoa ez izatearen sentimenduekin lotua dago. Itsasoren ustez, Euskal Herriko militantzia eredu “klasikoan” indarra, ziurtasuna eta gogortasuna ezaugarri ohikoak dira eta ondoez sentimenduekin hau ez da erraz bateratzen. Osasun mental zaurgarrituan dauden emakumeen kasuan parte hartzea zaildu egiten da. Anerentzat adibidez, antsietate-gertakariak izaten dituenak, asanblada espazioetan egotea zaila da eta baita agerraldi publikoetan edo kaleko protestetan parte hartzea ere. Hau guztia aipatuta, Iratik eraso sexuala jasan ostean egin dituen hausnarketa eta proposamenak ekarri nahiko nituzke hona:

“Non daude emakume erasotuak? Edo daude isilik edo ez daude, eta zergatik ez daude borroka feministan? Como el sujeto que más necesitan. Konparatzen dituzu espazio militanteak eta la vida real eta dago un abismo, baina bai, o sea, hori izan da oso mingarria adibidez (...) hau pasatu dugunak, en el momento que te das cuenta, bihurtzen gara super vulnerable, super inválida, pentsatzeko eta politika egiteko ere derrepente ez zara baliagarria”.

Eta gaineratzen du, bere esperientziarekin jarraituz:

“Feminismoarekiko, mugimendu bezala sentitu naiz oso kanpoan eta oso bakarrik. Iruditzen zait dugula kriston lanketa prebentzioak, protokoloak

no se qué, baina gero klaro, derrepente gero ezin duzu parte hartu, o sea nik ezin nuen. Egin nuen ahalegin bat, eduki nuen kriston frustrazioa militantziako erritmoengatik, baina ez zara existitzen feminismoaren barruan, oso mingarria. Estamos hablando de agresiones de una manera super frívola de protocolos y no sé qué, pero es que gu gara pairatzen dugunak. Erreferentzialitate falta dago, ostia eta non daude erasotiak izan diren emakumeak? Ze, badaude! Gu gara! Zifrak hor daude. Edo ez ditut ikusten nire talde barruan edo talde honen izaerak ez du ahalbidetzen hemen egotea.”

Jane Barryren (2007) arabera, aktibismoan dauden emakume guztiek partekatzen duten arazo bat prekaritatea da eta horrekin batera, dinamika aktibista klasikoek ez dutela plazera, autozainketa edo kudeaketa emozionala kontuan hartzen (Muelas, 2015: 85). Burin eta lankideek (1990) aldarrikatzen zuten bide beretik, Iratik baditu horri alternatibak emateko proposamenak: osasun mentala kolektibizatu eta erantzuna bete behar soziala izan behar dela, alegia:

“[Erasotua izateak] Abarca todas tus putas escalas y capas de persona, eske da egonezin bat eta min bat kolektibizatuta dela askoz arinagoa, edo bizigarriagoa. Nik imaginatzen dut hau nire lagun gabe eta eske... o sea eske... imposible. Eta iruditzen zait mugimendu feminista bezala pues izan beharko zela espazio bat para la peña que no tiene redes, que tenga ahí algo. Referentzialitate kontu hori, en procesos de sanación. Badu uste dut kriston garapena confrontatiboa como movimiento eta erasoan aurrean erantzun zuzena dago kalean, baina gero zer? Eta uste dut dela klabea estrategikoki zelan zabaldu ahal den feminismoa hortik lortzen badugu espazio bat hau lantzeko”.

Abu-Lughod (1990), Juliano (1998) eta Ruizek (2016) azpimarratu bezala, testuinguruak ematen dizkigun aukeren arabera, praktikara eramaten ditugun alternatibak ezberdinak dira. Bestalde, “ezegonkorrak bezain aldakorrek diren gure gizarte-harremanetan, giltzarria elkarrekintza da; hots, negoziazioa”

(Ruiz, 2016: 163-164). Errealitate hau onartzeak botere-harremanei aurre egiteko sortzen diren erantzun motak konplexuak eta anitzak direla ikustera garamatza eta militantzia espazio “klasikoetan” parte hartzen ez duten emakumeen estrategien balioa argitara ekartzen ere laguntzen digu. Menderatuek erresistentziarako jardunbide zabalak dituzte, ez dute “inolako talde bateratua osatzen” eta “egoerari buruzko ikusmolde edota posizionatze anitzak daudenez gero” jokaerak ere askotarikoak izango dira (Ruiz, 2016: 167). Dena den, ezberdintasun, gatazka, begirada eta perspektiba anitz zein kontrajarriak egonda ere, feminismoa munduan egoteko modu bat da (Muelas, 2015: 78) eta feminista bilakatzea, kontzienteki edo inkontzienteki, gure jarrera, gorputz-intersubjektibitatea eta munduan *izateko* modua eratu eta berreratzea izango litzateke (Esteban, 2009a: 2).

6.4.- Plazera ez da bakarrik sexualitatea

*Haizeak, euriak, egunsenti ta malkoak,
argiak, gauak, urak, bizirik nago.
Hegaz (gizakia) naiz.
Hegaz naiz, hegaz naiz...*

(Zea Mays)¹²

Plazera plazer sexualarekin lotzen da etengabe, horrekin bakarrik lotua egongo balitz bezala, horregatik, plazeraren arketipo bilakatu da nolabait (Muelas, 2015: 65); baina sexualitatetik haratago doan zerbait bezala ikustea ere

¹² Zea Mays taldearen “Hegaz naiz” kantua, Spotify plataforman <https://open.spotify.com/track/01XVvvC6a3QlhoPbc4uYm9?si=4fcb103a15ea4089> edo Youtuben <https://www.youtube.com/watch?v=I3tiXqvFhTo> eskuragarri.

beharrezkoa da atal hau osotasunean ulertu ahal izateko. Mendebaldean, azken mendeetan, sexualitatea ikerketa-objektua izan da eta batez ere XX. mendearen azken hamarkadan bizitza erotikoaren beharrezko birnegoiazioa posible egin da (Esteban, 2011: 169-170). Aldi berean, boterearen, generoaren, heterosexualitatearen eta homosexualitatearen arteko harremani buruzko berrikuspenak egin dira, baita mugak desafiatu eta desioari edo identitateari buruzko proposamen berriak egiteko aukera ireki ere (*Ibidem*: 170). Bestalde, hausnarketa feminista plazeraren ikuskera osoago baterantz mugitu da, batez ere queer teorikoek gorputzari buruz egin dituzten irakurketa kritikoetatik abiatuta (Muelas, 2015: 82). Ondorioz, atal hau kokatzeko gakoa zein den argi utziz, eta Audre Lorden (1997) hausnarketak dioskun moduan, plazerak eta botere erotikoak sexu-truke hutsetik haratago doazen dimentsioak ditu eta poza, norberaren ebaluaketarako begirada zein besteekin fisikoki, psikikoki, emozionalki eta intelektualki konektatzeko ahalmena du (Esteban, 2013: 225). Gainera, subjektuen agentzia inplikatzeko duen sormen-prozesu bat da (Muelas, 2015: 97).

Hori horrela izanda, gorputz-irudi idealak sortutako ondorezari aurre egiteko, plazeraren bitartez baliagarriak izan daitezkeen esperientziak zeintzuk diren jakitea interesatzen zait. Helburua ez da eskuliburu bat aurkeztea, baizik eta agerian uztea plazera eraldaketa feministarako erreminta bat izan daitekeela (Muelas, 2015) eta aukera anitzak daudela horretarako. Emakume bezala gure mundua benetan desberdina nola izan daitekeen irudikatzea beharrezkoa da eta horretarako bizitzako alderdi guztiak aztertzea berebizikoa da (Lorde, 2003).

Orokorrean, praktika artistikoak, umorea eta kirola izan dira aipatu diren praktikak eta, sarrera gisa, Lorearen ibilbidea ekarri nahiko nuke hona, gero hortik ardatz ezberdinak lantzeko:

“Ba uste dut zela askatzeko modu bat, gorputza askatzeko modu bat, nire gorputzarekin harreman on bat izateko modu bat eta bai, clown egiten nuenean ere, nitaz barre egin ahal izatea horri esker, o sea, beldurra galtzea ridikuloari. Orduan bai, lagundu dit nire gorputzarekin

nuen harremanean kontzientzia korporal bat garatzen gehiago eta izan zen, ser quien quisiera ser. Esango nuke izan dela espazio bat rekonziliatzeko, ez dela izan kontzientea ezta, baina niri oso ondo egiten zidan, zen aukera bat epaiketarik gabe egiteko gauzak. Lehen egon naiz un poco desvinculada de mi cuerpo. Ba behar nuelako harresiak sortu, basicamente, así, es todo trágico (barreak). Orduan antzerkiak, karateak edo dantzatzeak eta horrek lagundu dit harreman bat izaten nire gorputzarekin non nire gorputza baliozkoa zen edo balizkoa zen. Eta egin nezakeen nahi nuena”.

Plazera genero sistema normatiboa esploratzeko baliagarri bilakatzen da (Muelas, 2015:25); emakume lodi bezala, kirolaren bitartez sentitzen den plazera, genero-rolak kuestionatu eta elikadura, auto-perzepzioa, gorputz-irudia eta auto-zaintzari alternatiba berriak sortzeko bidea izan daiteke. Identitatea eraikitzeko espazio bat ere bilakatzen da:

“Nik uste klabe garrantzitsu bat izan dala kirola eta gainera emakume lodi moduen jentiak ez dau espero ni kirolaria izetie. Rugbyn egotiek bai iten dozte eukitea kontzientzia nire gorputzangan, o sea, gorputza dala nirea. Igual oin arte bai ez dot sentitu dala nirea, beti sentitu dot izan dala gorputz bat gurotena aldatu ta dela gorputz bat ez dodala nahi izatea nirea. Orain kontzientzia bat hartu dot, emoten dotzot garrantzi bat lehen enotzona ematen. Gorputza zaintzea eta zaindu gura izatea. Eneban sentitzen nahi nabela izatea nire gorputza, eneban nahi zaindu. Ointxe, saiatzen naz zaintzen askoz be gehiau, emoten bebai alimentaziñoa, saiatzen naz emoten behar dabena eta kasu egitea bebai, saiatzen gorputza entzuten. Orain kirola ez banaban eingo, zein izengo zan Maialen orduen?”. (Maialen)

Muelasek (2015) Imazen (2013) lana ekarriz diosku, umorea esparru sozial maskulinoarekin lotua egon dela tradizionalki, aitzitik, emakumeak umorearen subjektuak baino gehiago, objektu izan direla espazio publikoan. Talde zapaldua izan den heinean, modu sotil eta engainagarrian, umorea

emakumeei euren posizio soziala zein den gogorarazteko erreminta izan da (Muelas, 2015: 50). Zentzu honetan, umorea, zapalkuntzaren mekanismo sinbolikoak desaktibatzeke subertsio elementu ere izan daiteke (*Ibidem*).

“Maite dut barre algarak ateratzen dizkidaten pertsonen inguratuta egotea, baita nik eurei ateratzea ere. Lasai barre egitea gauza handia da. Haurra eta nerabea nintzenean askotan esaten zidaten altuegi egiten nuela barre, atentzioa gehiegi deitzen nuela eta hori gogaikarria zela. Gehiegitan eta edozerekin egiten omen nuen barre eta horrek tuntuna nintzela zirudiela. Urteak pasa ditut barre gustura egin gabe eta barruan dudak pailazoa ateratzen gabe, baina momenturen batean inkontzienteki erabaki nuen gehiegi gustatzen zaidala eta hala egin nahi nuela, are gehiago, barrea sortzen didaten harremanak nolabaiteko lehentasuna izatera iritsi dira niretzat. Batzuetan espazioa gehiegi hartzen dudala sentitzen dut eta horrek beldurra ematen dit, baina emakumeoi betatu zaigun zerbait dela gogoratzen dut eta pasa egiten zait”. (Itsaso)

Dantzaren bitartez lortutako plazera ere gakoa izan da emakume guztientzat. Ez du zertan dantza talde bateko kide edo dantza mota konkretu bat izan, esango nuke, zerikusirik gehiago duela emakumeek betatuak izan ditugun mugimendu eta espazio batzuk gure egitearekin, gorputza nahieran publikoki agertzearekin. Bestalde, dantza sexualitatearekin lotzeak are indar gehiago eman ahal dio, esperientzia erotikoa gogobetegarria izan daitekeelako, Lordek esan bezala (2003). Iratik dantzarekin izan duen ibilbidea oso interesgarria da, batez ere eraso sexuala jasan ostean, gorputza bere sentitzen lagundu diolako, besteak beste:

“Dantza egitea etorri zait oso ondo. Hasi nintzen eraso eta 6 hilabetera eta izan da la puta clave. Dantza izan da psicodrama total, como que juego a... elegir yo cuando me sexualizo, no ese puto pavo que pasa por la calle. Como lógica de poner cachonda a un tío pero sin que haya un tío, sin que haya un objeto, bailo yo para mí misma. Dantza niretzat da

super iraultzailea, lagundu dit a habitar el cuerpo, disfrutatzer a gorputza”.

Abestearen plazera ere beste modu bat izan daiteke ondoez handia sentitzen den momentuak kudeatzeko:

“Besteek ni abesten entzutearen lotsa izan dut beti, epaiketaren beldur, ondo egingo ez dudanaren beldur. Konfiantza handi-handia dudan pertsonen aurrean bakarrik abesten dut lasai. Bakarrik nagoenean ere abestiak entseiatzen ditut eta apetxuske emozionalarekin nagoenean lasaitzen laguntzen nau, birrikak beraien tokia hartzen dute, uzkurtuta zegoen diafragma askatzen da eta nik negar, barre, oihu egiten dut. Askatzailea da.” (Itsaso)

Aurreko bizipenak erakusten digu plazera sortzen diguten eta erresistentzia-praktikak diren ekintza horietan trabatzeko espazio seguruak beharrekoak direla. Espazio seguruen definizioan ezberdintasunak dauden arren, mugimendu feministan badago erreferentzia sinboliko partekatu bat; errealitate alternatiboak sortzeko gune gisa identifikatuak dira (Muelas, 2015:55). Plazerak espazio propio bat beharrezko duela eta espazio hauek sortzea bera plazerarekin lotua dagoela esan dezakegu. Nolanahi ere, ahalduntzearekin zerikusia du (*Ibidem*: 52) eta sorkuntza hau prozesu kolektibo bezala esperimintatzeko desira ere plazerarekin lotua dago, elkar topatu eta egotea, atxikimendu afektiboa edota emozionala eraikitzearen edo elkarrekin bizitzearen nahia dagoen heinean (*Ibidem*: 85)

Espazio seguru horiek kolektiboki sortuak izan ohi dira baina ez nahitaez espazio militanteen markoan. Maialenek, adibidez, bere espazio segurua lagun taldea dela diosku: “Eurak lagundu dostie asko eraikitzen nire pertsona”. Honela, lagun taldea ez litzateke bakarrik sostengu afektiboa izango, baizik eta bizitzan orientatzeko erreferentzia kognitiboa ere (Esteban, 2016b: 230). Itsasorentzat, adibidez, militantzia esparruez gain, elkarbizitza taldea ere espazio segurua da, zeinetan bizi diren kide guztiak ezkerreko mugimendu anitzetan parte hartzen dutenak diren. Dena delakoak izanda ere, gizarteko

zapalkuntza anitzekiko kritikotasuna duten pertsonen osatutako espazio formal zein informalak edo bien arteko konbinaketa batetik sortuak izaten dira:

“Nik uste nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuenak gaur egun direla ibilbidean zehar bai borrokari lotuak eta ezagutu ditudan emakumeak. Borroka edo komunitateari lotuak, espazio militanteetan ezagutu izan ditudan emakumeak bilakatu direla nire sarearen oinarria”. (Irati)

Lorearen kasuan, adibidez, beharrezkoa izan da talde lodi-aktibista baten parte hartzea militantzia esparrua ere segurua dela sentitzeko, lehen ez bait zituen horrela sentitzen inguruan zituen talde feminista batzuk. Maila pertsonalean berriz, emakume lodi batekin izandako harreman sexu-afektiboak izan da erresistentzia egiteko espazio segurua:

“Uste dut emakumeek gehiago akonpainatu nautela, baina aldi berean ni ere beste momentu batean nago, pertsona hau ere lodia da eta uste dut horrek guztiak ere eragina duela eta inkluso eragina daukala ni zabaldu izanarekin”. (Lorea)

Esperientzia horiek, Muelasen analisiarekin bat eginda, plazerari buruzko iruditeriak zabal daitezkeela erakusten dute, eta baita generoari, gizarteari eta kulturari buruzko aginduak alda daitezkeela ere. Horrela, ahalduntze indibidual eta kolektibotik abiatuta, eraldaketa sozialak eragiten dira (Muelas, 2015: 97).

Plazera sexualitateari lotutako esperientzia baino gehiago dela ikusi dugu, baita horrek duen garrantzia ondoezari aurre egiteko estrategia bezala. Hala ere, ikerketan parte hartu duten emakume guztien bizitzetan harreman sexu-afektiboek duten garrantzia agerian geratu da, baita euren bizitzetan alderdi nagusienetarikoa bat dela ere. Estebanek (2016b) berak ere aipatu du datu hori. Adierazgarritasun maila altuagatik atentzioa jarri beharreko gaia da eta ezin da aipatu gabe utzi, emakume hauek feminista diren heinean, sexualitatearen inguruko jakintza eta formakuntza orokor eta zabala dutela (Esteban, 2011: 174). Lan honen mugengatik, atal honetan sexualitatea bizitzeko

moduak, hauen inplikazio orokorrak eta sortutako tentsioen inguruko zertzelada batzuk bakarrik eman ahalko ditut.

Lan honen protagonistek egindako lanketek, Estebanekin bat eginda (2013), sexualitatea modu positiboan bizi nahi izatera eta plazeraren zein gorputz-gozamenaren garrantziaz jabetzera eraman ditu. Horri esker, gorputza beste modu batean hauteman eta esperimentatu ahal izan dute eta kultura-eskakizunetatik aldendu dira (*Ibidem*: 41). Hala ere, salbuespenik gabe diote desiraren zirkuitu (heterosexualean) sartzeak eta sexualitateaz gozaten hastea argi-ilunez betetako bidea dela. Teorikoki, sexualitatea modu gozagarri batean bizitzea, gorputz-irudi idealak sortutako ondoreari aurre egiteko estrategia izar bezala hautematen bazuten ere, praktikak beste ideia batzuk garatzera eraman ditu eta kontraesanak bizi dituzte.

“[Harreman sexu-afektiboak izaten hastean] Nire gorputzaren pertzepzioa aldatu zen pilo bat onera, klaro. Baina hori doa erabat kanpoko balorazioaren baitan. Eta ligatzeak egiten dit pilo bat, o sea, garai luze batean ez badut ligatzen ba nire autopertzepzioa da okerragoa”. (Irati)

“Nik uste lagungarria izan dela [harreman sexu-afektiboak izatea], baina falso: momentuen emoten dotzu, como... uste dozu zauzela super ondo, baina behin galtzen dotela errefortzu positibo hori nire bizitzan, ideia guzti hoiek amaituten die. Laguntza faltsua da, momentuen sentitzen naiz hobeto nire gorputzaz eta nire buruaz baina behin ez deketela refortzu psitibo hori de ‘me gustas’, galtzen da dana. De hecho, galtzen da ta gainera, nik uste dot pausuak atzera ta dana iten diela. Bai pentsatzen dot hori, azkenien laguntza-tirita bat moduen, benetan zauria ez jatela bez osatzen. Bai dela beharrezkoa jendiek ta inguruko maitasuna jasotzea, baina da beharrezkoa bebai zauriak nik bakarrik osatzea, ze bestelan ez da guztiz reala”. (Maialen)

“Pixkanaka-pixkanaka jun naiz nere burua onartzen, hobeto ikusten, baño erebai asko validación externa, gizonen balidaziotik... nere kiko

konfiantza gorputzana bai, ikustian zeudela gizonak neregandik erakarrita sentitzen zianak ba eramaten zian pentsatzea 'ba, soy acceptable'. Baño hori etzan nik nere burua onartzen nulako, zan besteak niri onarpena emanda que me sentía válida". (Ane)

Loreak adibidez dio, lodi gisa identifikatzen den emakumetako batek, Mijo Lizarbururen (Sarriugarte, 2022) hausnarketekin bat eginda, bere eskura ez dagoen kapital erotikoa bat dagoela argi ikusi izan duela. Espazio seguru bezala definitu ditudan horietan ere, askotan kanpo sentitu dela eta honenbestez, Loreak dioen bezala, "se me ha vetado el placer en general baina bereziki sexuala". Desira instintuarekin lotzen dugu, ordena ororen gainetik, nahi duguna lortzera bultzatzen gaituena dela uste dugu, baina egiazki, desira ikasten den zerbait da (Masson, 2020: 230-231). Lorearen bizipenak pentsaraztea narama, Masson jarraituz; arau eta menderakuntza gabeko espazio alternatiboetan ere, gorputz-hierarkiak sortzen ditugu? (2013: 226). Feminismoaren barruan gehiago arakatu beharko litzatekeen gaia da, baina hemen jasotako testigantzak ikusita, galderaren erantzuna baiezkoa dela esango nuke.

Argi-ilunak egon badaude eta argitasuna ekarri nahian, beste datu interesgarri bat harreman heterosexual eta homosexualen bizipenen artean dagoen ezberdintasuna da. Hala azaldu dute bost elkarrizketatuetatik lauk eta zalantza gabe egin dute afirmazioa gainera. Gizonekiko edo emakumeekiko desira sentitu, gorputzak ezberdin erreakzionatu dezake:

"Musika jaialdi baten geunden momentuaz gogoratzen naiz, gu kuadrillan geunden dantza egiten. Ezagutzen ez nuen neska bat pasa zen gure aurretik eta ni faszinatuta geratu nintzen berarekin. Nire gorputza ezberdin sentitzen nuen, segurtasun handiagoarekin, mutilekin orain arte inoiz gertatu ez zaidan zerbait gertatu zitzaidan eta sorpresa polita izan zen niretzat: ez nuen beldurrik sentitzen, aldiz ziur eta lasai sentitzen nintzen ligoteorako, ez ninduen intimidatzen. Gerora ere ikusten joan naiz, neska batek sexualki erakartzen nauenean askoz ere

lasaiago sentitzen naizela, berdinen artean egongo bagina bezala".
(Itsaso)

Itsasok gaineratzen du: "Gizonekin izan dira beti epaitu izan nauten begiak" eta horrek bere sexualitatean muga asko jarri dizkiola. Epaietatik emakumeak menpeko posizio batean gaude:

"Bai ikusi dut gizonekin eta emakumeekin desberdin harremantzen naizela eta momentu honetan ez zait horrenbeste ateratzen gizonekin harremantzea. Emakumeekin esango nuke samurragoa dela, ez? Ba zaintza hori presentetago dagoela, bestearengandik kezkatzea ere presentetago dagoela... baina evidenterik dena ez da txuria edo beltza... baino bai eta nik uste dut ni gizonekin ere kokatzen naiz leku baten que me da mucha pereza, como behetik". (Lorea)

Emakumeen artean aldiz, epaiketa geruza gutxiago egon daitezke eta mendekotasun harremana izatetik, desira propioa azaleratzeko aukera gehiago sortu ahal dira:

"Nik usteot direla oso harremantzeko modu desberdinak, neskakin da como realau. Ez egotea bilatzen aprobaziñoa eta igual egotea gehiau konsziente de zer dabilen pasatzen. O sea, ni gogoratzen naz oin dela gutxi egon nintzela neska batekin eta tipo galdetze zoztan: '¿estás cómoda?' ta ni, 'ostras eske hau gizonetzko batekin ez dot inoiz izan! O sea, inoiz!' Eta hori, azkenien harremantzeko, ya sentitzen banaz espazio seguru baten, iten dotzu egotea bebai lasai, etzauz tentsiño horretan de '¿le voy a gustar? ¿No le voy a gustar?' igual dekozu argiau zauzela momentu on baten. Bestien zauz denbora guztien a lo pendiente gizonen". (Maialen)

Norberaren desioarekin konektatzeko, plazer sexuala gorputz-gozamenarekin lotzeko eta sexualitatearen esparruan jasandako erasoak "sanatzeko" modua izan dira Iratirentzat emakumeen artean izandako harreman sexu-afektiboak:

“Igual me querían para el sexo pero en realidad no vales eta harremantzen nintzen oso objektu bezala, elkartzen nintzen gizon eredu horrekin. Orduan pasatzen zitzaizkidan mobida guztiak ezin nituen konpartitu eta hasi nintzen normalizatzen biolentzia maila oso altuak. Hau 16-17-18-19 urterekin hasta llegar al bollerismo. Geroago nengoen emakume batekin irtetzen eta harreman hori izan zen muy sanador de rollo, o sea oso konszientea, hitzegiten zelan. Sentitzen zara, derrepente mi sexualidad importa y wow, como... Emakume batekin berria zenez, ‘a pues, esto será de lesbianas, no sé’ (barreak) eta bai, izan zen garai bat pues muy de respirar eta hor eraiki nuen nire sexualitatearekin harremana”.

Honen guztiaren helburua ez da harreman heterosexualak demonizatu eta homosexualak erromantizatzea, dikotomia faltsu eta arriskutsuan eror bait gaitezke. Baina sarritan gizonen interes handiagoa izan dezakete euren posizioa mantentzeko (Bordo, 1990: 58), dituzten pribilegioei benetan uko egitea zaila delako eta alderantziz, emakumeek ez dute behintzat sexu arteko kompetentziarik egin behar:

“Askotan emakumen artien be badauz botere-harremanak, baina bai dauela dana horizontala. Eske ez da bestie moduen, gizonekin harremanak die por y para él, desgraciadamente. Eske hori da, zuk teorian nahiz ta eduki argi gero praktikan eramatea teoria hori, oso zaila da”. (Maialen)

Bizipen erotiko horiek emakumeen ahalduntze prozesuan zeresan handia izan dute, besteak beste, etengabe ideologia eta praktika feminista batekin elikatzen egon direlako, hau da, sexualitatearen praktika alternatiboa eraiki dutelako eta emakume zein gizonen arteko harremanak ebaluatzeko modu konkretu bat izan dutelako (Esteban, 2013: 225-226). Hala ere, emakumeekin harreman sexu-afektiboak izateak tentsioak baretzen lagundu badezakeen arren, gorputz-irudiaren idealak sortutako ondorez esanguratsua gorputzua dagoen heinean, harreman hauek ez dira erabat erabakigarriak.

“Egon da goxotasun bat derrepente [emakumeekin], sentitzea ulertuta, hitz egitea, komunikazioa... que dices ‘¡wow! ¡Qué tarde me he enterado de ésto!’ Horregatik egin nintzen momentu batean ultra bollera. Izan zen como ‘wow chaval, hau da la ostia’. Baina ere momentu baten me llegué a escudar en eso, ikusi gabe que me habían echado del juego de los hombres, que no es que yo no quiera jugar. Emakumeekin sentitzen nuen hori baina neuzkan aurreko muga guzti hoiek ere [jasandako biolentziek sortutako ondoeza]. Claro, pues la mierda llega a todos los lados”. (Irati)

Aipatutako guztiarekin ondorioztatu dezaket plazera modu zabalean ulertuta aurrera eramandako praktika anitzak zein hauek abiarazteko espazio seguruak beharrezkoak izan direla ondoez esanguratsuari aurre egiteko. Baina baita, gorputza bizitzeko forma berriak asmatu eta emakumeek bizi duten menderakuntza egoerari erantzuna emateko ere. Azaldutako kasuetan, emakumeek plazerezko praktika hauen bitartez lortu dutena gorputza gozatu daitekeen zerbait dela sentitzea izan da, sexualitatearekin eta beste praktika batzuekin. Objektu pasibo posiziotik, subjektu aktibo izatera pasatzea izan da gakoa, beraz, plazera, subjektu aktibo izateko estrategia dela esan nezake. Eraldaketa horiek esparru eta momentu zehatz batzuetan gertatu dira, hau da, ez dira bizitzako esparru guztietara eramán ahal izan diren praktikak. Izan ere, aipatu bezala, erresistentzia-praktikak errealitatea aldatzera bideratuta badaude ere, uneko aukera eta mugak konfiguratuta egoten dira. Baina bai eragina izan dutela, emakumeek gorpuztu duten heinean eta honenbestez, kolektiboan eragina dute, iruditegietan, espazio seguruak sortzeko eginiko ahaleginean eta erreferentzialtasunean, besteak beste. Hemen azalduko plazerezko praktikez gain, aukerak anitzak daude, noski. Esan bezala, honek ez du eskema itxi bat izan nahi, aukera sorta zabal baten zati baten isla bat besterik ez da.

7.- EHUNDUZ: ONDORIOAK

Ikerketan parte hartu duten emakume guztiak gorputz-irudi eta genero-identitatearekiko etengabeko kritika eta eraldaketa batean daude, baita norbanakoaren eta kolektiboaren arteko elkarrekintza eta elkar-elikatze konstante batean ere. Edertasunaren inguruko eztabaidan eta birsortzean aurrera eramaten diren erresistentzia-praktikak gorputza inplikatzeko dute nahitaez, beraz, gorputz-agentzia bat abiarazten dute. Horrek, gorputza eraldaketarako eremu zinez garrantzitsua dela agerian uzten du. Mendebaldean errotua dagoen edertasun eredu hegemonikoak sortzen duen ondorezari alternatibak emateko behar eta konbikzioa ere bada partekatzen duten zerbait eta honetan ekinean aritzeko indarra hartzeko, plazera eta feminismoarekiko atxikimendua oinarritzekoak dira.

Ikerketaren ondorioak xehetzeri pasa aurretik, gustatuko litzaidake esatea, helburu zehatza ez bazen ere, parte hartu duten emakume guztiak gorputz tamainarekin (pisua eta bolumena) zerikusia duen ondoreza pairatu dutela. Uste dut interesgarria izango litzatekeela ondoreza beste arrazoi batzuegatik bizi duten emakumeen esperientziak ere kontuan hartzen dituen ikerketa bat egitea, hemen agertu ez diren parametro batzuetara, hala nola, arraza eta klasera, ireki ahalko ligukeelako eta analisi konplexuago eta osatuagoa egiten lagunduko lukeelako.

Genero-identitateari dagokionez, denak emakume bezala auto-izendatzen dira, baina bizitza istorioek agertu duten bezala, identitate hori moldagarria eta aldakorra da, testuinguruaren, momentu bitalaren, bizitako esperientzien eta etengabeko kritika baten arabera, besteak beste. Orokorrean uko egiten die kulturak feminitateari atxikitzen dizkion atributuei, bai estetikoak eta baita jarrerazkoak ere, eta hauekiko alternatibak ere gorputzetik pasatzen da. Hala ere, denek zalantzak dituzte emakumetasuna definitzeko eta modu alternatiboak pentsatzerako garaian, galdera gehiago dituzte erantzunak baino. Argi dugu ze emakume eredu izan nahi ez dugun, baina feminismoaren barruan ere, nahikoa pentsatu al dugu izan nahi dugun

eta identifikatzen garen emakume ereduak zein izango litzatekeen? Nahiko pentsatu al dugu emakume feminista bezala, zer den guretzat, subjektu bezala, "beste modu bateko" emakumea izatea? Wolfek egiten dituen galderak birgogoratzuz, "¿Qué es una mujer? ¿Es lo que hacen de ella? ¿Tienen valor su vida y su experiencia?" (2002: 252). Emakumea subjektua dela barneratu dugu, baina ze subjektu mota da zehazki?

Bizi dugun genero-sisteman, emakumeoi egokitu zaigun gorputz-irudi idealak sorrarazten duen ondorezari aurre egiteko estrategiak martxan jartzeko argi geratu da feminismoaren teoria eta praktikaren atxikimenduaren garrantzia. Nahiz eta kontraesanak agertu, berebiziko bultzada eman diote gorputz eraldaketari. Militantzia-esparruetan zuzenean parte hartzea derrigorrezko baldintza ez den arren, bizipenen irakurketa kolektiboekin bat egitea bai izan dela beharrezkoa. Eraldaketarako mekanismoak abiarazteko funtsezkoa izan den bezala, hala izan da ondoreza bera ulertu eta jatorria egiturazko zapalkuntza baten aterkipean kokatzeko ere.

Feminismoa ezagutu, erreferente berrien jakitun izan edo kontzientziaren hazkundera emateko garrantzia handia izan dute jatorrizko testuinguruetatik sinbolikoki edo fisikoki lekualdatzeak eta horiekiko distantzia hartzeak. Emakumeei, gorputz-praktika berriak probatzeko aukera eman dielako ere izan dira adierazgarriak: estetika ezberdinak saiatzeko, harreman sexu-afektibo anitzak probatzeko edo lehengo aldiz izateko, erreferente berriak hauteman eta kultur-kodigo berrietan sozializatzeko... moduren batean, praktika erresistenteetarako baldintza egokiak eskaini ditu desplazamenduak.

Plazera izan da, modu zabalean ulertuta, lan honen protagonisten artean gailendu den eraldaketarako estrategia nagusia. Sexualitatea eta plazeraren arteko lotura ikertzea eta horri feminismitik alternatibak eskaintzea berebizikoa da, emakumeen zapalkuntzan historikoki duen paperagatik eta hipersexualizazioagatik. Feminismitik, sexualitateari lotuta, irakurketa kritiko sakonak egin eta alternatibak proposatu dira, baina plazera sexualitatera soilik lotzen badugu, plazeraren adierazgarritasunaren analisisa motz geratzen dela

deritzot. Maitasun-harremanek eta zehazkiago, bikote edo maitasun-harreman erromantikoek ondoeza arintzeko baliagarriak izan dira, inplikatuak dudun pertsonen gorputz-irudi eta genero-irudikapen hegemonikoekiko kritikoak izan badira edo behintzat zalantzan jarri badute. Hala ere, besteen begien balorazioaren baitako arintzea izan da eta hau benetan eraldatzailea izan ez dela iritzi dute elkarrizketatuek. Hau da, sexualitatearekin tentsioak dituztela azaldu dute guztiek, berau plazerez goatzera iritsi badira ere, ondoeza arintzeko nahikoa ez dela azpimarratuz.

Testuinguru honetan, (des)sexualizazioa ere izan da denek aipatu duten esparru bat, idealetik kanpo dagoen gorputza izateagatik desiraren gurpiletik, homosexuala eta heterosexuala, at sentitu dira emakumeak eta horrek ondoeza ekarri die. Beraz, plazer eta sexualitatearen arteko analisisian desiraren begirada sakonago eta konplexuagoa behar dugula iruditzen zait. Badakigu desira, bultzada biologikoa baino gehiago, kulturak konfiguratutakoa dela eta beraz, eraikia eta aldakorra dela. Massonen hausnarketekin bat eginda, desira birpentsatzeko premia lana dugu aurretik, desira kolektiboki eraiki eta eredu berriak proposatuz zein gorputz anitzetara tokia eginez, orain arte genituen ideiak hautsi eta eraldatzailea izango den desira bat proposatzeko (Masson, 2020: 231).

Beste alde batetik, kasu honetan praktika artistikoei eta espazio seguruen sorkuntzari lotutako plazeraren garrantzia izan da ondoezari aurre egiteko gehien aipatu den aspektua. Ere horietan egindako praktikak norberaren gorputza plazeretik bizitzera eraman ditu eta identitatearen eraikuntzan faktore positiboak presente izatea ekarri die. Plazera, eraldaketa feministarako estrategia ederra izanik eta emakumeak objektu izatetik subjektu aktibo izatera eraman ahal dituen moduetako bat dela jakinda, aukeren aniztasuna argitara ekarri beharko genuke, transformaziorako eta erresistentziarako ekintzak dibertsifikatze aldera. Agentzian zentratutako ikerketak egiteak emakumeak izaki pasibo eta ahalmen gabekoak baino gehiago direla ikustea garamatza, zentzu honetan, plazeraren garrantzia eta horrek eskaintzen dituen aukerak behatzea baliabide ona izan daiteke. Estebanekin bat nator galdetzen duenean,

sexualitateari lehentasuna emateak ez ote dituen maila berean jartzea interesatzen zaizkigun bizitzako beste dimentsio batzuk ikusezin bilakatzen (2009a:6). Desirarekin bezala, plazeraren zentzua eta ideia modu kolektiboan birpentsatzea hein batean iraultzailea dela iruditzen zait.

Azken aipamen bat sare sozial birtualen inguruan egin nahiko nuke. Sentsazioa dut, gaian gehiegi jantzita ez banago ere, gorputz-irudiarekin eta genero-identitate hegemonikoaren bide bera egiten ari garela esparru horretan ere, hau da, albo kalteak eta eragiten duen ondoeza argi dugu, baina, ematen dizkiguten aukerak ez ditugu oraindik argi ikusten. Elkarrizketatuetako batzuen bizipenak eraman naute horren inguruan hausnartzera, izan ere, aurkitu dudana, sare sozial birtualek erreferentzia berriak aurkitzeko izan duten garrantzia izan da. Sare hauek ez ditut militantzia-esparru edo jakintzaren sorkuntzako espazio bezala irakurtzen eta kontuz ibili behar dugu horrekin. Baina, gizarte garaikidean presentzia handia dutela argia da eta baita eredu alternatiboen erreferentziak izateko ere baliagarriak izaten ari direla neurri batean.

8.- BIBLIOGRAFIA

Abu-Lughod, Lila (1990). The Romance of Resistance: Tracing Transformations of Power Through Bedouin Women. *American Ethnologist*, 17: 1, 41-55or.

Ahmed, Sara (2018). *Vivir una vida feminista*. Barcelona: Bellaterra.

Aresti, Nerea. (2000). La nueva mujer sexual y el varón domesticado. El movimiento liberar para la reforma de la sexualidad (1920-1936). *Arenal* 9: 1, 125-150or.

Bordo, Susan (2001). El feminismo, la cultura occidental y el cuerpo. *Revista de estudios de género. La ventana*, 14, 7-81or.

Bullen, Margaret (2017). La antropología feminista: Aportaciones conceptuales para una epistemología participativa. In: Martínez Palacios, J. (ed.) *Participar desde los feminismos: Ausencias, expulsiones y resistencias*, 29-63or., Bartzelona: Icaria.

Bullen, Margaret eta Díez Mintegui, Carmen (2016). La percepción de la igualdad, el feminismo y las representaciones y vivencias de género. In: Esteban Galarza, M.L., Bullen, M., Díez Mintegui, C., Hernández García, J.M. eta Imaz Martínez, E. *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, 59-88or. Gasteiz: Emakunde.

Burgos Díaz, Elvira (2005). ¿En qué y para que somos diferentes varones y mujeres? Subversión de la diferencia sexual. *Thémata*, 35, 113-124or.

Burgos Díaz, Elvira (2007). Identidades entrecruzadas. *Thémata. Revista de Filosofía*, 39, 245-253or.

Burin, Mabel; Moncarz, Esther eta Velázquez, Susana (1990). *El malestar de las mujeres. La tranquilidad recetada*. Buenos Aires: Paidós.

Butler, Judith (2002). *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del "sexo"*. Buenos Aires: Paidós.

Butler, Judith (2009). Performatividad, precariedad y políticas sexuales. *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, 4: 3, 321-336or.

Cobo Bedia, Rosa. (2015). El cuerpo de las mujeres y la sobrecarga de la sexualidad. *Investigaciones Feministas*, 6, 7-19or.

Csordas, Thomas (2010). Modos somáticos de atención. In Citro, S. (Koord.). *Cuerpos plurales. Antropología de y desde los cuerpos*, 83-104or. Buenos Aires: Biblio.

del Mármol, Mariana eta Sáez, Mariana Lucía (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de cuerpo desde las ciencias sociales? *Question/Cuestión*, 1(30). Hemendik jaso: <https://perio.unlp.edu.ar/ojs/index.php/question/article/view/1058>

Ellis, Carolin; Adams, Tony eta Bochner, Arthur (2015). Autoetnografía: un panorama. *Astrolabio*, 14, 249-273or.

Esteban, Mari Luz (1997). El cuidado de la imagen en los procesos vitales. Creatividad y miedo al descontrol. *Kobie. Antropología Cultural*, 8, 27-54or.

Esteban, Mari Luz (2004). Antropología encarnada. Antropología desde una misma. *Papeles del CEIC*, 12, 1-21or.

Esteban, Mari Luz (2009a). Cuerpos y políticas feministas. Granadako Estatu mailako Jardunaldi Feministetan egindako ponentzia, 2009ko Abenduaren 5-7.

Esteban, Mari Luz (2009b). Identidades de género, feminismo, sexualidad y amor: Los cuerpos como agentes. *Política y sociedad*, 46 (1-2), 27-41or.

Esteban, Mari Luz (2011). *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Esteban, Mari Luz (2013). *Antropología del Cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bigarren edizioa. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Esteban, Mari Luz; Bullen, Margaret; Díez, Carmen; Hernández, Jone M. eta Imaz, Elixabete (2016). *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*. Gasteiz: Emakunde.

Esteban, Mari Luz (2016a). Cuerpo e imagen corporal: cambios, rupturas e hipersexualización femenina. In Esteban Galarza, M.L., Bullen, M., Díez Mintegui, C., Hernández García, J.M. eta Imaz Martínez, E. *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, 89-99or. Gasteiz: Emakunde.

Esteban, Mari Luz (2016b). Relaciones amorosas y sexuales: realidades, retóricas, vulnerabilidades y alternativas frente a la centralidad de la pareja. In Esteban Galarza, M.L., Bullen, M., Díez Mintegui, C., Hernández García, J.M. eta Imaz Martínez, E. *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, 211-240or. Gasteiz: Emakunde.

Flores Flores, Ociel (2010). Un cuerpo: dos ceremonias. In Muñiz, E. (Koord.). *Disciplinas y prácticas corporales. Una mirada a las sociedades contemporáneas*, 191-217or. Bartzelona: Anthropos.

García, Irati (2016). *Género, gordura y feminismo. La experiencia de mujeres feministas en la CAPV*. Master Amaierako Lana. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra. UPV/EHU.

Hernández García, Jone Miren (1999). Auto/biografía. Auto/etnografía. Auto/retrato. Esteban, Mari Luz eta Díez Mintegui, Carmen (Koord.). *Antropología feminista: desafíos teóricos y metodológicos*. Ankulegi-Revista de antropología social, Ale berezia, 53-62or.

hooks, bell (2018). *Feminismoa denon kontua da*. Iruñea: Katakarak Liburuak.

Juliano, Dolores (1998). *Las que saben. Subculturas de mujeres*. Madrid: horas y HORAS.

Lorde, Audre (2003). *La hermana, la extranjera. Artículos y conferencias*. Madrid: horas y HORAS.

Masson Córdoba, Lucrecia (2013). Un rugido de rumiantes. Apuntes sobre la disidencia corporal desde el activismo gordo. In Solá, M. eta E. Urko (comp.). *Trasfeminismos. Epistemes, Fricciones y Flujos*, 225–235or. Tafalla: Txalaparta.

Masson, Lucrecia (2017). *Epistemología rumiante*. Fanzinea. Hemendik jaso [azkenekoz ikusia: 2022/08/13]:

<https://issuu.com/pensarecartoneras/docs/rumiante>

Muelas, Laura (2015). *El placer como proceso creativo en la transformación feminista*. Master Amaierako Lana. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra. UPV/EHU.

Muñiz, Elsa (2010). Las prácticas corporales. De la instrumentalidad a la complejidad. In Muñiz, E. (Koord.). *Disciplinas y prácticas corporales. Una mirada a las sociedades contemporáneas*, 17-50or. Bartzelona: Anthropos.

Muñiz, Elsa (2014). Pensar el cuerpo de las mujeres: cuerpo, belleza y feminidad. Una necesaria mirada feminista. *Revista sociedad e estado*, 29: 2, 415-432or.

Osa, Miren (2021/02/14). 'Maitatu zure burua' leloa sistemaren tranpa da. Mijo Lizarbururi egindako elkarrizketa. *Argia aldizkaria*. Hemendik jaso [azkenekoz ikusia: 2022/08/13]: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2720/mijo-lizarzaburu>

Piñeyro, Magdalena (2019). *10 gritos contra la gordofobia*. Bartzelona: Vergara.

Roca i Girona, Jordi (1997). *De la pureza a la maternidad: la construcción del género femenino en la postguerra española*. Madril: Subdirección General de Museos Estatales.

Ruiz Torrado, María (2016). *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean*. Doktore-tesia. Donostia: UPV/EHU.

Ruiz Torrado, María (2018). Resistencias sexo-afectivas en prisión: un acercamiento a la agencia de las mujeres encarceladas. In Esteban, M.L. eta J.M. Hernández García (Koord.). *Etnografías Feministas. Una mirada al siglo XXI desde la antropología vasca*, 159-181 or. Bartzelona: Ediciones Bellaterra.

Sarriugarte, Danele (2017/10/29). Nolatan neurtzen dira gorputzak XIX. mendeko langile frantziar baten pisuaren arabera? Lucrecia Massoni egindako elkarrizketa. *Argia aldizkaria*. Hemendik jaso [azkenekoz ikusia: 2022/08/13]: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2572/lucrecia-masson-gorputz-disidente-aldarrikatzailea>

Sarriugarte, Danele (2022/07/20). Badatoz Jatunaldiak: Euskal Herriko 1. Jardunaldi Lodiak. *Pikara Magazine*. Hemendik jaso [azkenekoz ikusia: 2022/08/13]: <https://www.pikaramagazine.com/2022/07/badatoz-jatunaldiak-euskal-herriko-1-jardunaldi-lodiak/>

Wolf, Naomi (2002 [1991]). *El mito de la belleza*. Madril: Continta Me Tienes.

Yehya, Naief (2010). La belleza y el *cyborg*. El ideal de la belleza, su representación y la manipulación de la carne para acariciarla. In Muñiz, E. (Koord.). *Disciplinas y prácticas corporales. Una mirada a las sociedades contemporáneas*, 147-164or. Bartzelona: Anthropos.

9.- ERANSKINAK: ELKARRIZKETETARAKO GIDOIA

Elkarrizketak egiteko, gorputz-ibilbideen teknikan oinarritu naiz eta ondorengoa da erabili dudako gidoia, nahiz eta elkarrizketetan zehar ukitzen ziren gaien arabera moldaketa batzuk egin ditudan. Transkribapenak hitzez-hitz egin badituz ere, irakurketa errazte aldera, edukia aldatu gabe, moldaketa txiki batzuk egin ditut.

- Elkarrizketatuei ikerketaren berri eman berriro (elkarrizketatu aurretik egin banuen ere), helburua zein den jakinarazi. Anonimotasuna bermatu eta euren hitzak ikerketarako erabiltzeko baimena eskatu.

Galderak/gaiak:

- Konta iezadazu nor zaren, aurkeztu zure burua nahi duzun moduan: zer egiten duzun, non bizi zaren, norekin, nola definitzen duzun zure burua...
- Aurkeztu zure bizitza: zeintzuk dira zure bizitzan pertsona garrantzitsuenak, zeintzuk izan dira zure bizitzako une eta aldaketa adierazgarrienak, faseak eta zergatik?
- Zer da bizitzan plazera ematen dizuna? Zerekin gozatzen duzu?
- Emakume sentitzen zara?
 - Beti? Edozein testuingurutan? Zer da zuretzat emakume izatea?
 - Aldaketarik eman da? Nolakoa izan da aldaketa hau?
 - Tentsiorik sumatu duzu zure emakume izateko moduaren eta emakumetasun eredu hegemonikoaren artean? Nola “konpondu” duzu hau?
- Zer da zuretzat feminismoa? Eta feminista izatea?

- Konta ieza dazazu noiz eta nola hasi zinen feminismoaren berri izaten edo honekin harremanetan
 - Zertan lagundu zaituela uste duzue feminismoak ibilbide honetan?
- Zer esango zenuke generoaz eta gorputz-irudiaz, orokorrean
 - Gorputza eta emakumea edo gizonezkoa, zeintzuk uste duzue izan ahal direla ezberdintasunak bizipenei dagokionez
- Kontatu ieza dazazu nola bizi izan duzun zure gorputz-irudia...
 - Nola bizi da zure familian gorputz-irudia?
 - Garrantzirik izan duen edo ez, nola bizi izan duzun hau.
 - Aldaketarik eman bada, nolakoak izan dira eta nola kokatu zara hor?
- Nola eragin dizue honek sexualitatean eta maitasun harremanak bizitzeko unean
 - Hitz egidazu izan dituzun edo izan ez dituzun harreman afektiboetan nola eragin duen zure gorputzarekiko zenuen/duzun pertzepzioak
 - Sentitu izan duzue mugarik besteekin harremanak izaterako unean zure gorputzarekin izan duzun pertzepzioaren baitan?
 - Zein harremanetan zehazki?
 - Aldaketak eman direnez, kontatu ieza dazazu nola bizi dituzun orain muga horiek...

- Sexualitatean aldaketarik izan duzun eta honek nola eragin duen zure gorputz-irudia bizitzeko moduan
- Kontatu didazu aldaketak izan dituzula gorputz-irudi hegemonikoarekiko eta zure gorputz-irudiarekiko, orokorrean, zerek lagundu zaituela esango zenuke?
 - Zergatik esaten duzu ez zaudela toki berdinean?